



Partiduaren une bat. | IMANOL SORIANO

13 artzain lehiatan domekan Oñatiko
artzain-txakurren lehiaketan | 5



Jaurlaritzak 4.000 etxe
aterako ditu errentan | 2



Euskal Herriko kontsumo taldeen
topaketa gaur eta bihar Aramaion | 5

ZAZPI URTE ZAIN EGON ETA GERO, LANAK GELDI DAUDE

Aretxabaletan, Txarapea ibilbideko 1. eta 2. blokeetako etxeen jabeak oso kezkatuta eta gogaituta daude. Etxe tasatu horien zozketa 2004an egin zen, eta, ia zazpi urte pasatu badira ere, oraindik bukatu barik daude. Are gehiago, lanak gelditu daude ekaina ezker. Enpresa eraikitzailea lege konkurtsalean dago | 11



Afektatuek protesta egin zuten bukatu barik dauden etxeen aurrean eguaztenean.

MIRARI ALTUBE

SINADURAK



Euskalakarion hitza! | 6
OSKAR ELIZBURU

6 | Euskarazkoa eta tokikoa
IBAN ARANTZABAL

MendeBALDARak eta HegoALDEAK | 12
OIHAN ZUBIZARRETA

40 | Ziabogen ordua
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

36ko gerran hildakoak omenduko dituzte etzi Oñatin

'Gerrako garrak Oñatin'
dokumentala ere
aurkeztuko dute | 33

"Bildukoekin goaz, gure helburua ezker abertzale bakarra osatzea da-eta"



Dani Maeztu | Aralarko
exekutibako kidea | 8

Egun berean askatu zituzten Kukutzan atxilotutako arrasatearrak

Usurpatzea egotzi
diete Bilboko
gaztetxeko aferan | 12

Euskadiko andaluziarrak Arrasaten batuko dira aste bukaeran

Askotariko
ikuskizunak
egongo dira | 15



Errentan bizi izatea, batzuen aukera eta beste batzuen beharra

- ▶ Alokairua biziberritzen dabil, krisiaren markoan
- ▶ Jaurlaritzak 4.000 etxebizitza aterako ditu errentan



Etxebizitza bat alokatzen da Arrasaten. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Alokairua argi-izpia izan daiteke etxebizitzaren merkatuaren krisitik irteteko. Etxebizitza Sailak bi pauso aipagarri eman ditu bide horretan: batetik, inbertitzaile pribatu batekin kontratua egingo du babestutako alokairurako 4.000 etxebizitza utz diezazkion Jaurlaritzari; eta, bestetik, urte bukaeran Bitartekaritza zerbitzu bat estreinatuko du, etxe-jabeari errenta eta gerta litezkeen kalteen ordainketa ziurtatzeko.

Izan ere, jabetzaren bideak muga batekin topo egin zuen 2007an, eta urtetik urtera muga hori gainditzeko zailagoa egin da. Finantza merkatua hondoratu zenean, berarekin batera zuloa arrastatu zuen etxebizitzarena, eta horren ondorioa da gaur egun merkatu hori geldirik edo ia guztiz geldirik egotea, etxe-agenteei dioten bezala. Hala, joan den uztaillean, etxebizitza merkatua %42,5 murriztu zen Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian 2010eko uztailaren aldean, Espainiako Estatistika Erakundearen arabera. Gehienbat etxebizitza librearen merkatua geldotu zen: %48,19; babestutako etxebizitza, soilik %16,46. Eta ez du hobetzeko itxurarik. Hortaz, etxebizitza bat izateko premiak –eta etxebizitza duina– jarraitzen duen artean, bide berriak urratu behar dira.

Datorren urtean "errealitatea"

Alokairua gutxieneko baten aukera da oraindik, baina aukera hori egiten dutenek gero eta laguntza handiagoak izango dituzte Etxebizitza Sailaren aldetik. Hala, datozen urteotan 4.000 etxebizitza ipiniko ditu, EAE osoan, alokairu sozial erregimenean.

Uztailaren 26an, Gobernu Batzordeak 430 milioi euroko gastua onartu zuen, lehiaketa bidez aukeratu den inbertitzaile pribatu batekin ondare eta

ESANAK

"Jendeak badu alokatzeko interesa, baina formula berriak behar dira"

EDURNE DOMINGORENA
ETXEBIZITZA SAILEKO ORDEZKARIA

"Alokatzea aukera onena da, nire iritziz; ez nau lotzen etxebizitzara"

MIREN GALDOS
MAIZTERRA

alokairu kontratu bikoitz bat egiteko. Kontratu horren bidez, inbertitzaileak 20 urterako utziko dizkio Jaurlaritzari 4.000 etxebizitza horiek, hark aloka ditzan. 430 milioi horiek errentak ordaintzeko erabiliko dira. Baina Jaurlaritzarendako 249 milioiko kostua bakarrik izango du operazio horrek, izan ere, aldea maizterrek ordainduko dituzten errentekin estaliko da. Lehenengo urtean, gehienez ere hileko 700 euro ordainduko dute maizterrek errenta gisa.

Inbertitzaile pribatuak, 4.000 etxebizitza horietatik 1.072 Alokabide Sozietateari erosi beharko dizkio; Visesa enpresa publikoari, 1.875; eta Eusko Jaurlaritzari, 199 etxebizitza eraikitzeke lurren erosiko dio. Gainerako 854 etxebizitzak inbertitzaileak sustatu eta eraiki beharko ditu. Gainera, 854 etxebizitzatik 1.000 egitera ere pasa daiteke. "Baliteke", Eusko Jaurlaritzaren hitzetan, inbertitzailearen eta Jaurlaritzaren arteko kontratu mistoa



Miren Galdos maizter oñatitarra, etxe-atari baten sartzen. | LEIRE KORTABARRIA

urri bukaeran esleitzea, eta Sailak espero du "lehenengo etxebizitzak 2012 hasieran errealitatea" izatea. Lehenengo une baten, 1.635 etxebizitza jasoko ditu, eta 2015era arte, urtero beste 788 etxebizitza inguru entregatu beharko dizkio inbertitzaileak gobernari.

Etxebizitza Sailak honako balorazioa egiten du: "Alokairua bultzatzeko, irudimen handiko formula berritzaileak behar dira, eta hainbat neurri bateratzea".

DATUA

700
EURO HILEAN

Hori izango da gehieneko errenta Jaurlaritzak alokatuko dituen 4.000 etxeetan, lehen urtean.

Horregatik, Sailak eutsi egingo dio Bizigune programari, hutsik dauden etxebizitzak alokairuaren merkatutako ateratzeko programa; eta horregatik ere onartuko du bitartekaritza programa, etxe-jabeari errenta eta egin litezkeen kalteak ordaintzeko berme edo aseguru bat ordaintzeko; horren truke, etxe-jabeak merkatu librearen errenta-maila baino errenta txikiagoa eskatuko du. "Hori guztia, babestutako alokairuko eskaintza handitzeko eta ahalik eta jende gehienak aukera hori izan dezan", esaten du Etxebizitza Sailak.

Alokabiderendako fondoak

Esandako eragiketarekin, Alokabide sozietatearen eta Visesa sustapen enpresa publikoaren diru-kontuak onbideratuko dituzte. Hala, Alokabidek 92,4 milioi irabaziko ditu; Visesak, 182,5; eta Eusko Jaurlaritzak, 28; gainera, 21,6 milioi jasoko ditu beste kontzeptu batzuegatik, eta 77 milioi aurreztuko ditu.

Etxebizitza Sailak apustu handia egiten dihardu alokairuaren alde. Saileko komunikazio arduradun Edurne Domingorenak azalpen hau ematen digu: "Alokairua bultzatzeko politikak oso garestiak dira, diru asko behar da, eta gaur egun bankuek ez dute dirurik mailegatzten. Horrela, Alokabidek eta Visesak dirua lortuko dute alokatzeko etxebizitza gehiago egiteko eta alokairu gehiago bultzatzeko". Bere esanetan, "jendartean badago alokatzeko interesa, baina alokairua indartzeko modu berriak behar dira". Esandako formula, kontratu mistoarena, formula berritzailea da: Hego Euskal Herrian lehenengoz egiten da, eta Espainia osoan ere ez da inoiz halakorik egin.

Lehendik, Bizigune programa

Baina datozen proiektu horiei itxoin barik, maizter bihurtu gura dutenek dagoeneko badituzte aukerak: "Errentan bizi izan gura dutenendako badaude baliabideak eta laguntzak, baina jendea, orokorrean, ez dago horiez oso ondo informatuta". Miren Galdos oñatiar gaztearen hitzak dira. Beste jende askok bezala, Galdosek ere izena eman zuen Etxebide zerbitzuan, baina, jende gehienak ez bezala, berak alokairua zuen buruan. Bada, gerora ikusi zuen bazeudela alokairua samurtzeko bideak ere Etxebideren eskutik.

Galdosen kasuan, Bizigune izan zen bide hori. Biziguneren helburua hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko merkatura ateratzea da, eta Etxebizitza Sailak egiten du ugazaba papera; hala, maizterrek ez du harreman zuzenik etxearen jabearekin.

Baldintza nagusien artean, hauek daude: etxebizitza gehienez ere bost urterako ematen da errentan, eta ez derrigorrez maizter berberari, Miren Galdosi gertatu



JESUS MARKAIDE | ETXE-AGENTEA

"Lagundutako alokairu programak gero eta gehiago sustatu beharko dira"

Deba Garaia agentziako Jesus Markaideren iritziz, alokairua gero eta ohikoagoa izango da.

Alokairua ote da etorkizuna?

Bankuek mailegu txikiak ematen dituzte, eta gero eta jende gutxiagok eros dezake etxebizitza. Horren ondorioz, bai, gero eta alokairu gehiago izango dira, eta jabegoa ez da hain ohikoa izango. Europako ereduak kopiatu beharko ditugu eta diruz lagundutako alokairuak izan beharko dira.

Jendea gertu dago errentan bizi izateko?

Egoerak mentalitatea aldatzera behartzen gaitu. Horrez gain, makroekonomiari ere interesatzen zaio alokairua, mugikortasun handiagoa ematen duelako, eta lan-merkatua liberalizatzeke modu bat delako, Ameriketako Estatu Batue-

tan egiten duten moduan. Etxebizitzaren jabe izateak leku batera lotzen gaitu.

Eta une honetan, badago mugimendurik merkatuan?

Jendea aukeraren zain dago, baina etorkizuna oso iluna da: salgai dutenek ez dute saltzea lortzen, eta beste batzuek errentan dute etxea,

"Dauden etxebizitzak erabiltzeko hitzarmenak egin beharko dituzte"

baina etxebizitza batzuk ez dira alokatzeko egokiak, asko hondatu daitezke; beste batzuk oso garestiak dira eta haiek alokatzea ez da errentagarria jabearendako. Etxebizitza merkeagoetan bai, aukera bat izan daiteke.

Egoera oso-oso txarra da, benetan; ez dakigu zelan irtengo garen honetatik. Arrazoi asko dago etxebizitzaren prezioak txikitzen jarraituko duela pentsatzeko, baina finan-



LEIRE KORTABARRIA

tzaketa %50ean badago, eskaera ere txikitu egingo da. Ikusten gabil-tza babestutako etxebizitzak ere ezin ordaindu dabilela jendea; beste askok ez dute etxebizitza erosteko ilusiorik ere.

Zelan ikusten dituzu lagundutako alokairu programak?

Gero eta gehiago sustatu beharko dira. Eta etxebizitzak eraiki baino gehiago –dirurik dutenik ez dut uste–, hitzarmenak egin beharko dituzte, badagoen etxebizitza parkeari irtenbidea emateko. Izan ere, La Caixak 150 errentazko etxebizitza egitea eta antzeko mauka gehiago ez dugu izango. Beste bide batzuk urratu beharko ditugu.

zitzaion moduan: "Zozketa bidez ematen dira etxebizitzak errentan, eta ezetz esanez gero, uko gisa hartzen da; beraz, derrigortuta samar dago norbera baietz esatera. Gure kasuan, aurreko maizterrak bi urte eman zituen etxebizitza bat tokatu zitzaigun, eta hiru

urte bakarrik egin ahal izan ditugu bertan". Epea bukatu ondoren Bizigunen jarraitu nahi duenak berriz prozesu osoa egin behar du: zozketan etxebizitza egokitu arte itxoin. Galdosek egiten duen beste kritika bat da norberak ezin duela etxebizitza aukeratu eta,

beraz, desegoki izatea ere suerta daiteke: adibidez, igogailu bako etxebizitza mugikortasun arazoak dituen edo nagusi bati tokatzea.

Baina Miren Galdosendako, abantailak gehiago izan dira desabantailak baino: "Niretako, alokairua bizi izateko aukera

onena da. Ez nau etxebizitzara lotzen, eta unean ditudan premien arabera bizilekua aukera dezaket. Bestalde, Biziguneren sistema bidezkoa iruditzen zait, norberak bere diru-sarreraren %30 ordaintzen duelako errentan". Gazte onatiar horrek alokairuan

bizi izaten jarraitzen du, baina "aukerako alokairu" bat da, baldintza ekonomiko egokietan.

Miren Galdosen iritziz, beraz: "Administrazioaren aldetik badago hainbat laguntza alokairuan bizi gura dugunondako, baina oraindik badago zer hobetu".

ZEIN ONDO!

Etxebizitza berria gure familiarentzat egokitua, guk nahi dugun moduan!

Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza. Zure eskura dago.

2 logela **198.000€**

3 logela **240.000€**

* Gehi BEZ. Abenduaren 31rarte aprobetxatu %4 ko BEZa.




UTE URIBARRIren bermearekin

ARRASATE



Informazioa eta salmenta
943 71 22 59



Eguazten goizean egin zuten aurkezpena, Arrasateko Kulturaten. | MIRIAN BITERI

Martxan da proiektu berritzaileen erakusketa

Kimu Berriren hainbat lan ikus daitezke etzira arte Arrasateko Kulturaten

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Kimu Berri proiektu berritzaileen erakusketa ireki zuten eguazten goizean Arrasateko Kulturaten. Mondragon Unibertsitateko zortzi ikasleren proiektu berritzaileak daude ikusgai, besteak beste. Hain justu ere, Oñatiko Enpresagintza Fakultateko Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako hiru ikasle taldek aurkeztutako Ekiten/Bikewasher, Elkarrekin eta Emepete izeneko lanak ikusi ahaliko dira; Goi Eskola Politeknikotik, Igex eta Xurf, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Sailetik; eta Ekiten Actinmap, Ekiten Whoru eta Changoo, Informatikako Ingeniaritzatik.

Eguazteneko aurkezpen ekitaldian, Eisa kooperatibako zuzendari orokor Mikel Orobengoak nabarmendu zuen Kimu Berri egitasmoaren helburua gazteen- gan ekintzailetasuna bultzatzea

dela. Horren harira, honakoa aipatu zuen: "Gazteria, aisialdi eta kirol gaitan ekintzailetasuna bultzatzea du helburu". Horrekin batera, gaur egungo egoera ere aztertu zuen: "Unibertsitateek gazteak ahalik eta azkarren eta ondoen prestatzen badituzte ere, krisi ekonomikoaren eraginez gazteek pairatzen duten langabezia tasa izugarria da, eta gero eta zailagoa da enpresa batean lana aurkitzea. Hortaz, irtenbideak

bilatzea beharrezkoa da. Hala, ekintzailetasunaren aldeko apustua egin behar da".

Lanen aurkezpena

Orobengoaren hitzen ondotik, ikasleek euren proiektuak aurkeztu zituzten. Horiek eta beste hainbat ikusgai izango dira domekara bitartean Arrasateko Kulturateko klaustroan eta urriaren 5etik 7ra, Oñatiko Enpresagintza Fakultatean.

ESANAK

"Gazteria, kirol eta aisialdian ekintzailetasuna topatu behar da"

MIKEL OROBENGOA | ISEAKO ZUZENDARIA

"Gazteek pairatzen duten langabezia tasa izugarria da"

MIKEL OROBENGOA | ISEAKO ZUZENDARIA

Antzuolako Markel Belastegik autoa lortu du

Antzuolako Markel Belastegi Toledok irabazi du Euskadiko Kutxak egunotan zozketatu duen autoa. Euskadiko Kutxatik jakinarazi dutenez, Gazte Go Txartela duten bezeroaren artean egin da esandako zozketa eta irabazleak Smart 451 lortu du. Irudian Belastegi azaltzen da, saria jasotzen.



GOIENA

Bakarrik dauden adin txikikoen Izeba proiekturako boluntario bila dabilta

Harrera-lekuen osagarri dira programa horretan parte hartzen duten osaba-izeben familiak

M.B. | ARRASATE

Baketik-ek familia edo pertsona boluntario gehiago behar ditu Izeba proiektua zabaltzen segitzeko. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak hobeto gizarteratzen laguntzeko erantzun solidarioa eta eraginkorra ematea da helburua.

Hala, harrera-lekuaz gain, erreferentziatzeko familia bat ere izango du adingabe bakoitzak haren inguruan. Erakunde publikoen eta harrera-lekuen gizarteratze-ahaleginaren osagarri izango dira harrerako osaba-izeben familiak. Besteak beste, astean behin familiarekin bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea, telefonoz deitzea eta arazo pertsonalak edo administrazioarekin edo heziketarekin lotuta daudenak konpontzen laguntzea izango dira familia horien funtzioak.

Diputazioa eta Baketik

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak eta Arantzazuko Baketik zen-

Arrasaten jarri zuten martxan

Arrasate izan zen lehena Gipuzkoa mailan proiektua martxan jartzen, 2009. urte bukaeran. Programa aurkezteko batzarra egin zuten, eta jarraian, Debagoieneko bederatzi familiak eman zuten izena; gehienak arrasatearrak eta bergararrak baziren ere, aramaioarrak ere apuntatu ziren.

troak elkarrekin izenpetutako hitzarmenak abiarazten eta garatzen du ekimena. Bada, horren gainera informazio gehiago nahi dutenak Baketik zentroarekin jar daitezke harremanetan, edo www.izeba.org webgunera sartu.

Fagor Ederlanek motor berria eroan du Frankfurtera

Bi zilindroko bertsio berria trinkoagoa eta arinagoa da, hiriko ibilgailuetarako aproposa

M.B. | ARRASATE

Fagor Ederlanek Range Extender motor berria aurkeztu du Frankfurtetik aretoan. Bi zilindroko lau aldiko errektuntzako bertsio berria trinko, arin eta eraginkorragoa da, hiriko ibilgailu txikietarako egokia.

Esan bezala, motor berria Lotus Evora eta Jaguar Limo Green modeloetako hiru zilindrokoa baino askoz trinko eta arinagoa da -%44 gutxiago okupatzen du eta pisua %16 gutxiago da-. Lotus Fagor Ederlan Range Extender bertsio berria ezin hobea da hiriko ibilgailue-

tarako, desplazamendu gehienak modu elektriko hutsean egiteko aukera ematen du-eta.

Automation ere Alemanian

Fagor Ederlanez gain, Fagor Automation ere Alemanian dago egunotan, berritasunak aurkeztu. Hala, Automatioken postu bat dauka Hannoverko EMO azokan. Bertan, kontrol eta neurketa sistemetan egin dituen azken aurrerapenak aurkeztuko ditu. Hannoverko azoka erreferentea da mundu osoan metala prozesatzeko industrian.

Biodantza tailerra eskainiko dute Carlos Orellanak eta Rakel Ampudiak etzi Arantzazuko Gandiagan

Arantzazu Gaur fundazioak antolatuta, biodantza tailerra egingo dute etzi, domeka, Arantzazuko Gandiaga topagunean. Gasteizko Biodantza Eskolako irakasle Carlos Orellana eta Rakel Ampudia arduratuko dira esandako saioa gidatzeaz; bi orduko iraupena izango du horrek, 10:30etik 12:30era bitartean. Izena eman edo horren gainera argibide gehiago nahi dutenek 943 71 65 75 telefono zenbakira deitu behar dute; tailerraren prezioa 10 euro da.

Bergarako Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik dago

Urritik ekainera izango dira eskolak, astean hirutan, 10:00etatik 13:00etara

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Esperientzia eskolan ere hastekoa da ikasturte berria –urriaren 20an– eta izenematea zabaldik dago. Ekainera arte izango da eta astean hirutan izango dira eskolak, martitzen, eguazten eta egue-netan, 10:00etatik 13:00etara, Bergarako Miguel Altuna institutuan edo Irizar jauregian –izena ematean jakinaraziko dute lekua.

Izen-ematea urriaren 14ra arte egin daiteke, Miguel Altuna institutuko Bizikasi zerbitzuan –Ibargarai kalea 1– eta 943 76 93 94 zenbakian (Miren Errasti). Matrikularen prezioari dagokionez, 230 euro da.

50 urtetik gorakoendako

Mugabe elkarteak eta Matia Inno-vak Bizikasiren eta Bergarako Udalaren laguntzarekin antolatuta, 50 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago Esperientzia Eskola eta ez da alde aurretiko titulaziorik behar parte hartzeko. Besteak beste, hauek dira eskola horren helburuak: adin horretatik gorako bizi kalitatea hobetzea, belaunaldien arteko harremanak indartzea eta pertsonen

formazio kultural eta informazio aukerak sustatzea.

Helburu horiek gauzatzeko askotariko edukiak lantzen dira Esperientzia Eskolan: osasunaren mantentze eta sustatzea, giza erlazioak eta komunikazio gaitasunak, literatura, zuzenbidea, filosofia, psikologia, bioetika, artearen historia... Horrez gain,

bisita kulturak, ibilaldiak... ere egiten dira. Gainera, ikastaroa egiten duten guztiek diploma jasoko dute.

Iaz Esperientzia Eskola Bergaran eta Arrasaten egon bazen ere, aurtun Bergaran bakarrik egongo da. Arrasaten, berriz, horri jarraipena emateko Goienagusiren eskolak egingo dira.

"Zahartzen goaz, baina ikasten segitu nahi dugu"

"Oso esperientzia ona". Hala definitu dute Maite Barrena eta Elisa Ugarte bergarrek Esperientzia Eskolan iaz egindako ikasturtea. Garbi dute: "Zahartzen goaz, baina ikasten jarraitu nahi dugu. Azken baten, gizartearen parte gara, parte aktiboa".

50 urtetik gorako debagoiendarrak Bergarako Esperientzia Eskolara animatu nahi dituzte. Horren harira, gurean herri arteko distantziak "oso txikiak" direla aipatu dute.



Maite Barrena eta Elisa Ugarte, Miguel Altuna institutuan. | MONIKA BELASTEGI

Goienagusi, Arrasaten

Goienagusi elkarteak da Esperientzia Eskolaren hurrengo urratsa. Esperientzia Eskolatik abiatutako gizon-emakume taldeak bultzatuta, debagoiendarren artean formazio iraunkorra eta garapen pertsonala bultzatzea du helburu, eta Esperientzia Eskolak irauten duen urtebetean jasotako formazioari jarraipena emateko sortu dute.

Aurtun egingo dute lehen ikasturtea, Arrasateko Etxaluze erai-kineko lehen solairuan. Urriaren 3an hasiko da eta interesa dutenek goienagusi@gmail.com helbidera idatz dezakete –ezinbestekoa da Esperientzia Eskolako ikasturtea eginda izatea.



Iñaki Urkixo. | BASERRI BIZIA

Iñaki Urkixo
EHNE Bizkaiko
exekutibako kidea

"Aspaldiko partez lortu dugu baserritarren bizirautea"

M.B. | ARRASATE

Euskal Herri osotik etorritako kontsumo taldeek topaketa egingo dute Aramaion gaur eta bihar. Bizkaiko Nekasare kontsumo talde sareak bultzatuta egingo da topaketa.

Nekasare taldeak gurean Baserrri izenarekin ezagutzen diren taldeen antzekoak dira.

Bai. Gure bereizgarriak dira plangintza baten gainean egiten dugula lan; urtebeteko konpromisoa dago. Eta batik bat erabili izan dugula Nekasarea instalatzen ari diren nekazari gazteei laguntzeko edo irteera bat emateko.

Nortzuk batuko zarete Aramaio-ko topaketetan?

Nekasare sarean dihardugun 25 taldeak, Iruñeko talde bat, Gasteizko hainbat baserritarrek sortutako taldeetako ordezkariak eta uste dut Debagoienekoren bat ere etorriko dela.

Zein da topaketen helburua?

Azken boladan gero eta jende gehiago etortzen da gugana informazio eske. Ez dakigu gure eredu guztiz zuzena den, baina uste dugu eredu polita asmatu dugula eta nahi-ko genuke informazio eske datorren jendeari modu ordenatu eta eraginkorrean ematea informazioa. Bestetik, indar eta ahulgunez jardutearekin batera, epe motzean landu beharreko ardatzak ere markatuko ditugu.

Eredu horren onurak zein dira?

Baserritarrendako bizimodua dela. Aspaldiko partez lortu dugu komunikazio kanala kontsumitzaileekin bermatzen duena baserritarren bizirautea. Eta beste bide bat da bertoko elikagai osasuntsuak lortzeko, eta jakinda, gainera, ordaintzen den kopuruak lanpostu duin bat mantentzeko balio duela.

Zergatik topaketak Aramaion?

Zabaltzearen, Euskal Herriko talde asko etortzen direlako gugana informazio eske.

Oñatiko artzain -txakurren sariketa domekan izango da

Bailarako ordezkari bat egongo da: Jesus Mari Plazaola arrasatearra, 'Gure' txakurrarekin

M.B. | BERGARA

Oñatin urtero jotzen den nazioarteko artzain-txakurren txapelketa etzi, domeka, izango da, Santa Lutzia zelaian, 10:30ean hasita.

Euskal Herriko, Kataluniako, Mallorcako, Castelloko eta Biarnoko 13 artzain eta beste horrenbeste txakurrek hartuko dute parte. Bailarako ordezkari bat ere

egongo da, Jesus Mari Plazaola arrasatearra, *Gure* txakurrarekin; Euskadiko txapelketan sailkatu zen lehiaketa honetarako.

Bezperan aurkezpena

Txakurrek bi lan egin beharko dituzte artzainaren aginduei kasu eginda: lehenengoan, artaldea zelaian egongo da eta txakurrak hara joan beharko du banderekin egindako bide batetik pasata. Gero, ardiak hartu eta eskortaren eta artzainaren artean dagoen lau

metroko pasabidetik pasarazi beharko ditu ardiak, eta ondoren artzainarengana eroan. Bigarren, hamar bat banderatzorekin egindako tartetik pasa eta gero, txakurrak artaldea hartu eta eskortan sartu beharko du.

Txapelketa bezperan, zapatuan, lehian arituko diren artzain-txakurren aurkezpena egingo dute Oñatiko plazan, 20:15 aldera. Aurkezpenarekin batera elkarrizketak egingo zaizkie artzainei.



AMAJA TXINTXURRETA

Bateraguneren sententzia salatu dute

Bateraguneren sententzia salatzen eta auziperatuei babesa erakusteko elkarretaratzea egin zuten astelehenen eguerdian Arrasateko plazan, gehiengo sindikalak deituta, *Epai politikorik ez, eskubide guztiak guztiontzat!*

lelopean. Era berean, Gobernuaren jarrera ere salatu zuten, "beti bezala errepresioaren bidetik" jarraitzen duelako. Hala, bide hori utzi eta "benetan prozesu demokratiko baten sartzeko" eskatu zuten.

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
http://goiena.net/iritzia/



Euskalakarion hitza!

Euskaldunon hitza sakratua izan da, mendez mende; eskua elkarri ematea nahikoa zen hitza beteko zela jakiteko. Are gehiago, emandako hitza ez betetzea desohore galanta zen, demasa.

Askotan ematen dugu hitza gure bizitzan; hau egingo dut, edo beste hori ez dut inoiz egingo; baina, gero, hitzekoak al gara?

Udaberrian milaka euskaldunek eman genuen hitza, publikoki; *euskalakari* ginela edota izango ginela handik aurrera. Korrikaren mezuari jarraituta –*euskalakari* izanda– euskara maitatu, ikasi eta erabiliko genuela esan genuen.

Eta iritsi da udazkena, eta ikasturte berria, eta sasoi honetan egiten ditugun promes horiei begiratzeko garaia. Promes berrie-kin hasi aurretik, baina, aurrez agindutakoei erreparatu behar-ko genieke eta, haien artean, jakina, Euskarari eman genion hitzari.

Maitatu, erabili eta ikasiko genuela esan genuen; bakoitzak behar duen neurrian hobetuko genuela, beraz, eguneroko jar-
duna.

Zelan hobetu behar dugu, baina? Maitatuz, egunero gogoan hartuz; zertan jardun dezakegun hausnartzeko momentutxo bat emanda. Arituz, gure ingurukoekin zer aldatu behar dugun hausnartuz; hau da, norekin erabil dezakegun gehiago edo gehia-
gotan, euskararendako esparruak eta ohiturak irabazteko. Ikasiz, geure ezagutza aztertuz; zertan hobetu behar dugun ondo pen-
tsatuta; euskaraz bizitzeko ikasteko duguna, lantzeko zehaztuz.

Euskaraz bizi nahi dut leloari jarraitzeko ordua da eta euskaraz arlo guztietan aritzeko laguntza behar badugu, ikasi behar badugu, oraintxe da garaia. Bakoitzak ikusi behar luke zertan, zein mailatan eta zenbat denbora emanez.

AEKn horretarako behar duzuen laguntza hori izango duzue-
la ziurtatzen dizuegu; euskara ikasiko duzue eta erabiltzeko erraztasuna lortuko duzue; gure hitza ematen dizuegu, euskala-
karion hitza!

"Euskara maitatu,
erabili eta ikasi
egingo genuela
esan genuen"

USTEAK USTE


IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com

Euskarazkoa eta tokikoa

Ez da gauza bera talde politiko jakin bati lotuago dagoen editoriala ipar duen kazetaritza egitea, edo, justu, arerio den talde politikoari lotutako hedabiderako idaztea. Ez litzateke gauza bera izan behar, ezta ere, euskarazko tokiko hedabide bateko kazetaria izatea, zerbaitegatik baita "tokiko" eta zerbaitegatik "euskarazko". Gure txikian menpeko-
tasun apalagoa dugu nazioarteko agentzia, merkatu eta komu-
nikazio taldeena eta horregatik dagokigu gure analisia kritiko-
goa izatea tendentzia politiko edo sindikaletatik libre. Berme
ona da kazetaritza egiteko modu orekatu, kontrastatu, inpartzial
eta ulergarria. Saiatzen gara.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Esparruak eta lehentasunak nahaspilatzeko zalekeria

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

Zaleak erraz poztu, berotu eta haserretu ohi dira, baina edozein lanbidetako profesionalen lehen helburua zer gerta ere "koloreak" aldezea dela uste duen zale txoriburuak bere gangarra atzipetu besterik ez du egiten.

Griezmannnek astebate luzeak daramatza barkamena eskatzen. Nonbait abuztuan zehar lar sumatu zitzaion beste talde "handiagoren" batean jokatzeko gertu legokeela eta larrutik ordaindu behar izan du zaleen amorrua.

Zalea aldakorra da, eta ankerra. Hemengoa zein hangoa. Bixente Lizarazu lapurtarrak Athletica utzi zuenean Bayern Munich taldera joateko traidoretzat jo zuten San Mamesen eta txanponak jaurti zizkioten Lezaman, diru hutsaren truke arima saltzeko gertu legokeen aingeru ustela bailitzan. Behar besteko euskaltzaletasuna ere

ukatu zitzaion ETaren mehatxupean bizi zen gizajoari.

Xabier Eskurzari ere ez zioten barkatu Bartzelonara hobe beharrez joan izana, eta seguru asko bere burua profesional handitzat zuen ETBko teknikariak, erdipurdikoak ere inoiz egin behar ez lukeena egin zion.

Gertatu 1994an gertatu zen. Bartzelonak Eskurza fitxatu zuenean Athletic-en hainbat jarraitzaile sutsuri ez zitzaion nonbait gustatu eta ETBren kirol-erredakzioak jokalaria elkarriketatu zuen, trapagarandarrak bere iritzia eman zezan.

Eskurzak ez du elkarriketa hura sekula santan ahaztuko. Galdera-erantzunak kamera aurrean ziren bitartean, kontroleko talaian ziharduen audio-teknikaria belarrondokoan aritu zitzaion futbolariari eten gabeko leloaz: "Traidore, traidore, traidore, traidore...".

Auskalo zein izan ote zen Eskurza Bilbotik Bartzelonara eraman zuen zera eta ez diogu ezein teknikariri beroarenik ukatuko baina, zalantzarik ez gero, iseka egiteko bere lanpostuaz baliatu zen zaleak bazterrak, esparruak eta lehentasunak nahaspilatu baino ez zituela egin.

Mapan

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Atxagak New York-en: "Bada esamolde bat *mapan jarri* dioena. Zerbait mapan jartzen denean, ikusgarri egiten da ikusten ez zena. Esan nahi da ez dela nahikoa existitzea, beharrezkoa dela errepresentazioa ere, eta lana egin beharra dagoela zerbait mapan egon dadin".

Euskara mapan jartzeko ahaleginaren metaforak burura ekarri dit mapa latineko *mappa*-tik datorrela, eta baita hitzak hasieran esan nahi zuena ere: musuzapia. Mapek musuzapi baten neurria eta forma baitzuten, hortik batak bestea ekarri izana. Eta bitxia da: etxetik urruti gabiltzala ezagunen bat topatzen badugu, "mundua musuzapi bat da!" ateratzen zaigu.

Mundua musuzapi eta mapa, munduaren handia musuzapien neurriko mapa apal batean marraztua. Mundua eskura, beraz: munduratu, munduko plazan elkartu, etxea langarik gabeko mundu eta mundua langarik gabeko etxe bihurtu.

Eta Atxagari zer, esker ona baino, ikusten ez zena mapan kokatzeko ahaleginagatik?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Itsaso Bereizibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa.


EGOTITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A
ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

MMAren aurka, elikadura subirautzaren alde

Kelo eta Ainara Sarasketa
(Uztaro Kooperatibako kideak)
Beizama

2003ko irailaren 10ean Lee Kiung Hae baserritar xumeak bere buruaz beste egin zuen Munduko Merkataritza Antolakundeak (OMC) Cancunen (Mexiko) egin zuen goi bilkuraren aurrean protesta egiteko. Horrela, erakunde horrek bere lurraldean zeraman politika salatu nahi izan zuen. Orduz geroztik, data hori MMAren aurkako nazioarteko egun bilakatu da. Milaka dira kapitalismoaren aurkako borrokan bizia galdu duten eta oraindik ere galtzen ari diren baserritarrak, politika kapitalisten erruz zuzenean hiltzen diren milioika baserritarrez gainera. Horietaz oroitzean atzera begiratu eta 15 urteotako esperientzia duen gizarte mugimenduaren errealitatea ikusten dugu, gaur egun jasaten dugun eraso neoliberalaren aurrean tinko eusten eta borroka zuzena egiten jarraituz. Baita sistema kapitalistak eragiten dituen hondamendiei aurre egiten ere. Sistema kapitalistak gosea pasatzera behartzen ditu mundu osoko nekazari-herrialdeak, beraien jarduera eta kultura desagerrarazi, eta ingurumena suntsitu. Urte askotako borroka eta erresistentzia MMA erakundearen laguntzaz Banku Mundialak eta FMIk ezartzen dituzten politiken aurrean. MMAk horiek mundu mailako merkataritza finantza-botereen eta multinazionalen interesen arabera kontrolatzen ditu, eta familia mailako nekazaritza desagerraraztearen erantzule da. Baita nekazaritza modu hori babesten duten nekazari herrialde edota herrialde indigenen desagerraraztearena ere. MMAk *dumping*-a eta esportaziorako dirulaguntzak

babesten ditu lehenengo munduan. Bestalde, euren nekazaritzatik bizirik irauteko gai diren herrialdeetan merkataritza-harreman bidegabeak ezarri eta inportaziora derrigortzen ditu. Are gehiago, nekazaritza propioa sustatzen duten elkarte publikoen pribatizazioa, azpiegitura erraldoien eraikuntza, hango ekonomiaren liberalizazioa, oligopolioen hedapena, ondasun naturalen pribatizazioa... babesten ditu. Biopirateria eta transgenikoak ere babesten ditu; badakigu transgenikoek biodibertsitatea hondatzen dutela, baita antzinatik jaso dugun nekazaritzako ondare genetikoa eta herrialdeen osasuna ere. Erakunde hau tokiko eta familia mailako nekazaritzaren suntsitzailea da, herrientzako janari osasuntsua ekoiztea bultzatu beharrean bio-erregaien ekoizpena eta beste ekoizpen-industrial batzuk sustatuz. Elikadura subirautzaren aldeko mugimendua egoera honen aurrean sortzen da, MMAren sorreraren aurrean nazioarteko borroka bat sortuz, indartuz doan politika neoliberalen aurka. Gai hau jorratuko da Usurbilen irailaren 30etik urriaren 2ra eginen diren Auzolan Topaketetan. Elikadura subirautzaren alde egiteko interesa duen oro topaketen baitan antolatu dugun batzar irekian parte hartzera gonbidatzen dugu. Informazio gehiago eta izen-ematea, *www.auzolan.info* webgunean.

Eskerrik asko, Chiapastik

Francisco Hernandez Cruz
Ocosingo (Chiapas)

Eskoriatzako adiskide maiteok, gutun hau idazten dizuet eskerrak emateko eskaini diguzuen laguntzarengatik.

Hain zuzen ere, Yurren adiskideari erosi dizkiozuelako Chiapasko hainbat komunitate indigena zapatistaren artisau-produktuak. Izan ere, batutako diruarekin, Yurren adiskideak 28.000 dolarreko entzumen-aparailua erosi zion nire semeari. Ez du %100 entzuten, %10 bakarrik. Baina nire adiskidearen eta zuon guztion laguntzarekin, nire semeak hobeto entzuten du orain. Hala ere, ez naiz laguntza horretaz bakarrik berba egiten ari; izan ere, nire adiskideak eta zuek guztiok laguntza ematen diezue Ocosingoko (Chiapas) komunitate indigena zapatistei. Eskerrik asko, zuei, eta Yurren adiskideari, Nichim Antzetik (Emakumeen Lorea) kolektiboko adiskideak oso pozik daude-eta, eurek egiten dituzten artisau-produktuak erosi dizkiezue-eta. Beste komunitate batzuetako adiskideak ere oso pozik daude Yurren adiskidearekin; izan ere, hark, besteak beste, botikak bidaltzen dizkie komunitateei. Horregatik guztiagatik, eskerrik asko, guztioi! Borrokak aurrera segitzen du!

Kukutza gaztetxeari, arima errebeldeei...

Idoia Azkarate
Antzuola

Esnatu bezain pronto, lehen notizia izan da, Kukutza gaztetxea desalojatzen ari dira. Goizeko 5etan hasi omen dira eta oraindik ez dute lortu. Arima errebeldeak bizirik, nonbait, ezkutatuta. Duela pare bat urte egon nintzen bertan, malabarren topaketa baten, umeekin joan ginen. Ikaragarria zen hango mugimendua, hango antolaketa. Urte luze hauetan, auzoan sortu duten alternatiba horizontal, sortzaile eta dinamizatzaile hau miresgarria dela deritzot. Arima pila txiki askok sortu

dute Kukutza, gazte eta ez hain gazte, momentu gogorrak gaindituz, eztabaidatuz, elkarrekin hasiz, aldatuz. Tailer pila bat zeuden bertan: mekanika, okintza, liburutegia, antzerkia, malabarrak, trapezioa, ekilibrioak, hizkuntzak, musika... Egunero, bazkaltzen ematen zuten, oso prezio eskuragarrian. Bigarren eskuko arropak zeuden bertan, behar zituenak hartzeko. Espazio aske bat, non ez daukazu zergatik kontsumitu, non dirua ez den xedea, non ametsak gauzatu, non ideiak moldeatu, non sistema kuestionatu, non kapitalismoak ez zuen lekurik, non sistema patriarkala hautsi... Eta orain zer? Ba, arima errebeldeek beste habia bat aurkituko dute eta sorkuntzak jarraituko du, beste leku baten, Kukutzan sortu den haziak fruitu ederrak eman dituelako. Gazte eta ez hain gazte, eutsi goiari, ametsak ez dizkigute-eta zapuztuko. Indarrak bidali nahi dizkizuegu, mendi puntatik, gu ere duela urte asko, ordu hauetan, gaztetxe bat defendatzen ari ginelako eta oraindik arima errebelde zantzu txiki bat daukagulako barnean.

Zorionak eta esker mila, Bergara!

Leire Iruin
(Bergarako Udalaren izenean)
Bergara

Larunbatean *Monzon* pastoralak ikusteko aukera ezin hobea izan genuen Bergaran. Oso pastoral ikusgarria eta parte hartzailea izan zen bertaratu zirenen aldetik. Batek baino gehiagok holaxe zioen: "Zuberoan eguraldiak eta bertako zelaia pastoralak jantzi zuten bezalaxe, Bergaran, herritarrok eskaini diguzuen berotasuna izango dugu gogoan. Gustura hartu ditugu *jeikialdi* guziak eta lau orduak di-dau batean pasatu dira". Gertutik

ikusitako larraindarrek egin duten lana pastoralak prestatzen. 220 biztanleko herri batek urtebetean zehar egindako entseguek fruitu hauxe eman dute. Zelako poza guretzat! Baina bada Bergarako pastoralako lantaldeak azpimarratu nahi duen alderdi bat, ikusten ez dena eta horrelako ekitaldietan ezkutuan geratzen dena. Bergarar askok egin duzuen ahalegina azpiegitura osatzen, loreak josten, etxeak eskaintzen, muntaketa lanak egiten, omeletak egiten, ardiak eta astoa ekartzen... Zuek izan ez bazinate, ezingo litzateke pastoralak Bergarara ekarri. Plazera izan da zuekin guztiokin lana egitea. Edozein lan, erraz bihurtu duzue eta honexek eragin du, asteburu honetan, larraindarren eta bergararren artean sortu den harremana. Ez alferrik zuberotarrek ekarri duten festa gogoa! Pastoralak amaitu bai, afaria ere bai, baina parrandarako girorik ez zen falta izan. Igande eguerdia ondo pasata zegoen eta zenbaitzuk kalean gora, kalean behera zebiltzan, "besta untsa! Besta untsa!" esan eta esan. Denok ondo pasa dugu eta giro polita jarri duzue. Lantalde honen ametsa litzateke ekitaldi honekin hasi den harremanak denboran irautea eta Iparraldea, orokorrean, eta Zuberoa, bereziki, ezagutzeko grina piztea. Zuen esku lagatzen dugu, badakigu horretan ere sakonduko duzuela-eta. Zuberoan urtero egiten dituzte pastoralak eta nahiz eta ezingo diren askotan Bergarara ekarri, aukera polita eskaintzen dute iparraldea zein Zuberoa gertutik ezagutzeko. Gure eskerrik beroena, aldi berean, Olaso Fundazioari, Kutxari eta urte osoan zehar pastoralaren inguruan lanean aritu den taldeari. Lantaldearen partetik eskerrik beroenak eta huntsa izan. Bihotzez, mila esker, eskaini diguzuen laguntzagatik.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

MONZONEN PASTORALA

GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA

IRAILAK 24, 19:00 | IRAILAK 25, 15:00 | IRAILAK 26, 15:15

BABESLEA: ARKAUZ ALTZARIAK





Dani Maeztu, oraingo astean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Dani Maeztu | Aralarko exekutibako kidea eta legebiltzarkidea Gasteizen

"Bildukoekin goaz, gure helburua ezker abertzale bakarria osatzea da-eta"

► Maeztuk dio maiatzaren 22ko hauteskundeetan jendeak esan zuela "indar metaketa beharrezkoa" dela ezkerreko eta abertzaleen artean

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Dani Maeztu (Durango, 37 urte) Aralarrek Eusko Legebiltzarrean dituen hiru ordezkarietako bat da; exekutibako kide ere bada, eta baita zinegotzi Durangon ere. Aralarren bosgarren kongresuaz eta egungo politikaz dihardugu harekin.

Aralarrek V. kongresua egin du asteburuan. Zer moduz?

Aurretik beste batzar bat egin genuen, kongresuan eztabaidatuko ziren hainbat gai aurreratzeko, bereziki azaroaren 20ko hauteskundeetako lotuak. Eztabaida politiko sakona izan da eta pozik gaude emaitzarekin.

Patxi Zabaleta aukeratu duzue Aralarko koordinatzaile, beste behin...

Ezohiko kongresua izan da eta beste bi urtez Patxi Zabaleta izendatu dugu koordinatzaile nagusi. Hegoaldeko exekutiba berritu eta koordinatzailea berritzea zen kongresuaren egitekoetako bat. **Asko berritu duzue zuzendaritza?**

Bai, erdia-edo, gutxi gorabehera. Aurpegi berriak daude.

Datozen bi urteotan, "etorkizuneko ezker abertzale zibil eta zabala eraikitzearen alde" egingo duzue-la diozue.

Alderdi politikoa sortu baino lehen ere, ildo politiko moduan, Batasuna prozesuan, horixe defen-

datu zen, eta, gero, behin alderdia sortuta, hori izan da gure alderdiaren *leitmotiv*-a azkeneko 10 urteotan. Horixe bera da gure helburua aurrera begira ere, bereziki kontuan izanda ezker abertzaleko beste sentsibiltatean aldaketak egon direla.

Erabaki garrantzitsua hartu duzue, Bilduko alderdiekin batera aurkeztea Espainiako Kongresuko hauteskundeetara. Zergatik erabaki duzue hori?

Maiatzeko hauteskundeetan ikusi zen jendarteak ze pentsatzen duen. Jendeak argi esan zuen indar metaketa beharrezkoa dela ezkerreko eta abertzale direnen artean. Eta unea zela, baldintzak ematen zirela hori egiteko. Bilduk jaso zuen herriarren babesaren zati handi bat. Gainera, ezker abertzaleko beste sentsibiltateak egindako urratsak egokiak izan direla iruditzen zaigu. Hala ikusi du jendarteak ere. Une honetan, baldintza egokiak ematen dira indar metaketa hori egiteko, ikusita, gainera, Espainiako hauteskundeak direla.

Erabaki horrek alderdikideen %70etik gorako babesa jaso du, baina kritiko agertu direnak ere asko izan dira...

Normala denez, eta eskerrak, ahots kritikoak izan dira. Hartu dugun erabakia inportantea da.

Baina kontuan izan behar da hasieratik dela Aralarren helburua ezker abertzale bakarria sortzea. Lehenengo aldiz konfuentzia batera goaz ezker abertzaleko bi sentsibiltate nagusiak. Bestalde, Nafarroa ere eztabaidagunean izan da. Normala da eztabaida sutsuen ondoren hartzea erabakia.

Gasteizko Legebiltzarrerakoetan ere formula errepikatzearen aldeko zarete?

Ikusi beharko da. Baina gure helburua bada ezker abertzale bakarria osatzea, bada, horrek bere formula izango du, eta, baldintza egokiak ematen badira, horren alde egingo du Aralarrek.

Koalizio berria EAJren nagusitasuna hausteko moduan ikusten duzu?

Esaten badugu ezker abertzale zibil eta zabalak benetako alternatiba izan behar duela, esaten dugu pentsatzen dugulako herri hau ezkerrekoa dela hauteskundeek islatzen dutena baino, baita Bizkaian ere. Uste dut, bestalde, EAJk aukera bat pasatzen utzi duela abertzaletasunak ahots bakarria izateko Espainiako Kongresuan.

Nafarroan, bereziki, hautsak harrotu ditu Bilduko kideekin batera aurkezteko erabakiak. Ze gertatuko da Nafarroa Bairekin?

Gure asmoa zen abertzale guztiak batera aurkeztea Nafarroan, eta hori jakinarazi genien Zabaltzeni eta EAJri. Bildu eta NaBairen baturarekin beste koalizio bat osatzea. Ezetza jaso genuen. Hortaz, nor bere aldetik joango da: gu Bildukoekin eta Zabaltzen eta EAJ batera. Argi daukat, edozein ere, ez aukera bat eta ez beste ez direla NaBai.

Nafarroa Bairen beste kideek, Zabaltzenek eta EAJkoek, aurreratu dute Uxue Barkos izango dela hautagaia eta Nafarroa Bai izenarekin aurkeztuko direla.

Gehiegizkoa iruditzen zait EAJk eta Uxue Barkosen talde independenteak bakarrik ordezkatu nahi izatea NaBai. Ez da zuzena. Nafarroako jendarteak jakingo

"EAJk aukera bat pasatzen utzi du, Espainiako Kongresurako"

"Nafarroako jendarteak jakingo du ezberdintzen aukera ezberdinak"

du ezberdintzen aukera ezberdinak.

"ETAren garai armatua gaindituta" dagoela esan berri du Pello Urizar EAKo idazkari nagusiak. Hala dela uste duzu?

Ez nintzateke ausartuko hori esatera, besteak beste, ETAK behin betiko su-eten edo armak uztea ez duelako iragarri. Hala ere, oraingo egoera ezberdina da, ezker abertzaleak hausnarketa sakona egin eta bide politiko eta baketsuen aldeko estrategia soilik aukeratu duelako. Bide onean gaude. Jendarteak maiatzaren 22an bidalitako mezua argia da eta mezu horri bizkarra ematea sekulako akatsa izango litzateke.

Zelan baloratzen duzu Otegi, Diez Usabiaga, Zabaleta eta abarren aurkako epaia?

Atzera egitea da. Baina aurrerapausoa ere bada. Ematen du beste garai bateko epai baten aurrean gaudela. Irizpide eta argumentu politikoak bakarrik ditu epai honek. Ezin ulertzekoa da. Bestetik, ezker abertzaleak berretsi egin du hartutako estrategia. Hori da alde positiboa.

Epai horrek baldintzatu egiten du Sorturen legeztatzearen inguruan Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hartu beharreko erabakia?

Ez dut uste, nahiz eta zaila den jakitea zer egingo duten Espainiako auzitegiek. Epaitegi Konstituzionalak beste era bateko jurisprudentzia eman du. Gainera, Europan ere badira beste epaitegi batzuk eta kontuz ibili beharko dute. Arlo juridikotik begiratuta, uste dut Sortu legeztatuko dutela, edo beharko luke-tela, baina...

Bateragune delako horretan zigortuetako bat Miren Zabaleta Patxi Zabaleta zuen koordinatzailearen alaba da. Zelan dago Patxi Zabaleta?

Txarto. Bere alaba da zigortu dutena. Hainbat urte egon da politikan eta ezker abertzalean, eta halako egoera zailak gertu-gertutik bizi izan ditu, baina ez lehen pertsonan, orain bezala.

Bake prozesua gelditu dagoela dirudi, ez atzera eta ez aurrera...

Bake prozesua den bitartean, gaitz erdi. Ez dut inoiz bizi halako su-eten luzerik. Gatazka politiko baten aurrean gaude. Presoak daude, biktimak daude, lege kanporatzeak... Tentu eta sentsibiltate handiz jokatu behar da. Eta behin betiko su-eten ere etorri beharko litzateke. Horretaz gain, Estatuak ere urratsak egin beharko litzuke, euskal jendarteak horixe eskatzen diolako.

"Arlo juridikotik begiratuta, Sortu legeztatu beharko lukete, baina..."

"Estatuak urratsak egin behar ditu; euskal jendarteak hori eskatzen dio"

Ingelesa, alemana, frantsesa...



Aktiba zaitez MONDRAGON LINGUArekin

Eskola malguenak aktiba itzazu, ordutegien, helburuen, trebetasunen... arabera.

Eskola eraginkorrenak aktiba itzazu, tutore pertsonalizatuarekin eta banan-banako planifikazioarekin.

Berrikuntza aktiba ezazu, teknologia aurreratuenarekin, baita norberaren ordenagailutik eroso egonda ere.

Zure ikasketa aktiba ezazu, gazteenentzako bideojoko didaktikoekin.



**Adin guztiak
Maila guztiak**

%80ek gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak

Urriaren 7a baino lehen matrikulatzen diren ikasle helduek **e-book** edo **iPad2** zoragarria jasoko dute opari.



www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4 Tel. 943 71 20 55

ONATI
Motxon kalea Tel. 943 71 60 00

DUELA 10 URTE

2001-09-24

Komun publiko radarduna

Frantziatik ekarritako radardun komuna ipini zuten Arrasateko Seber Altube plazan. Gaur egun bezala, inguru hartan joan-eto-rrian herritar ugari ibiltzen zela-eta erabaki zuen Udalak komuna han jartzea.

Komunaren berezitasuna: barruan jenderik baden jakiteko radarra edukitzea eta inor egon ezean garbiketa automatikoki egitea. Gutxituendako egokitutako zerbitzua zen, gainera, jarri berri zutena.



Komun publikoa jartzen. | UBANE MADERA

2001-09-24

Kataibiako proiektua, onartuta

Bergaran Kataibiako plaza eta inguruak urbanizatzeko proiektuari onarpena eman zioten. Erabaki zuten lehenengo epean Santa Marina eliza osteko plaza urbanizatzea, 47 milioi pezetako aurrekontuarekin.

Andoni Sistiaga arkitektoaren proiektuak jasotzen zuen eliza osteko zabalgunean oinezkoendako plaza eraikitzea, Santa Marinako zubia zaharberritzea eta eliza eta Usondoko parkea elkartzea.

DUELA 5 URTE

2006-09-28

Ospitale berria martxan

Debagoieneko ospitale berriaren proiektua aurkeztu zuen Gabriel Inclan Osasun sailburuak.

Ospitaleak 74 ohekoa izatetik 120koa izatera pasa behar zuela iragarri zuten arduradunek, baita espezialitate berriak hartuko zituela ere. Etxeko ospitale zerbitzua sortuko zela ere eman zuten aditzera.

ARAMAIO

Nikolas Gardoki la 50 urte egin zituen lantegi berean lanean, baina ogibidea afizioarekin partekatzen zuen beti, loaren kaltetan izanda ere. Oraindik ibiltzen da soinuarekin. | JULEN IRIONDO

"Goizaldera saioa amaitu eta zuzenean joaten nintzen lanera Zerrajerara"

Eguzki taldea bazter ugari alaitutakoa da, Aramaion, inguruko herrietan, baina baita kanpoan ere. Batzuekin eta besteekin jotzen ibilitakoa, lagun zituena uzen joan arren Nikolasek hor jarraitzen du.

Soinua izan duzu afizio gogorrena, oker ez banago.

Bai. Baina egia da txistuarekin hasi nintzela mutikotan. Ardiak ere bagenituen baserrian, eta, haiek zaintzen nituen bitartean, txistua jotzen nuen bazter batean. Zazpi zulodun txistua nuen, hezurrezkoa. Baina behin, Eguzkie-rripako jaietan *Angiozarko itsua*-k, Felix Arantzabalek, esan zidan soinua jo beharko nukeela. Nik esan nion baserritarra nintzela eta ezingo nuela ikasi, eta hark baietz, baserritarrak zirela onenak.

Eta horrela hasi zinen ikasten, Felix Arantzabalekin...

Angiozarko itsua-k ondo jotzen zuen, beldurgarri. Domeketan, bizikleta hartu eta Eguzkie-rripatik bizikletan joaten nintzen Arrasatera. Tren geltoki inguruan uzten nuen bizikleta eta trenetara Eibarrera joaten nintzen. Pare bat orduan ibiltzen ginen eta gero kalera irteten ginen biok; itsua nola zen, lagun egiten nion haren adiskideak topatu arte. Gero,

trena hartu, eta Arrasatera eta handik bizikletaz etxera.

Ahalegin handia egin behar izaten zenuen, hortaz, ikastera joateko...

Beharko egin. Esaten zidan: "Pieza hau ikasi egin behar duzu datorren asterako". Eta ikasi egin behar! Haserre ez zidan egiten, baina ikasten ez banuen bi ordu beharrean hiru orduko eskolak egiten genituen hurrengoan. Mendekua moduan hartzen zuen, baina onerako zen gero. Eta beste gauza bat: itsua izan arren igerri egiten zigun paperari begira ez bageunden: "Nora begira hago?!", esaten zigun.

Eta behin ikasita, kilometro asko egin dituzu soinuarekin?

Bai. Garai batean ikusi egin behar zen gure agenda, egunero izaten genituen saioak batzutan. Kanpora ere joaten ginen, Deriora, Lezamara, Larrabetzura... Auzo batera joaten ginen, eta gero beste denetan jo behar izaten genuen. Eta gero handik zuzen lanera joaten nintzen Zerrajerara. Goizeko 04:00etan irten eta zuzen lanera.

Eta zortzi ordu lanean? Gogorra izango zen ba...

Gogorra? Horixe! Neuk bakarrik dakit hori. Besteak baino ordu-bete lehenago joaten nintzen gainera, mantenuan lan egiten



Nikolas Gardoki, soinua jotzen etxean. | JULEN IRIONDO

"Bizikletaz joaten nintzen Arrasatera, eta trenetara Eibarrera soinua ikastera"

"Hasi txistuarekin hasi nintzen: ardiak zaindu bitartean jotzen nuen"

nuelako eta lankideak etortzerako labeak martxan jarri behar nituelako. Eta arratsaldean, agian, beste norabait berrirori, ezkontza-aren batera edo...

Zeintzuk zinen taldean?

Illoekin ibili nintzen asko. Oso gustura. Sekula ez genuen arazorik izan. Seme bezala nituen, kasu egiten zidaten denean, eta nik ere bai haiei.

Eta orain, jotzen duzu?

Bai, baina urrutira ez naiz joaten. Gauz ibiltzeko-eta ditugun erre-flexuekin! Lagun artean bai, jotzen dut, eta erromerian edo ezkontzetan. Entseatu ere astean hiruz-palau aldiz egiten dut, bestela gogortu egiten dira hatzaparrak.

Ehiza omen duzu beste afizio bat...

Askok ez naiz ibiltzen. Uso denboran bakarrik. Kurtzeta ingurura-eta gustatzen zait joatea, noizean behin usoren bat ekarri

eta... Onena izaten da ogitartekoa, satoa eta goiza pasatzea lagun artean.

Elkarte baten fundatzaileen artean ere bazaude...

Bai, Kazatxo. Txabola zahar bat zegoen, eta geuk egin genuen. Orain 25 bazkide gara eta oso gustura ibiltzen dira. Mendi inguruan dago, eta uste dut jana ere goxoagoa egoten dela. Askotan juntatzen gara han, hamarretakoa egiten.

Eta sukaldean, zeuk egiten duzu?

Bai, zortzi-bat laguni neuk gertatzen diet. Eurek ardiekin menditik buelta egiten duten bitartean prestatzen dizkiet txorizo, arrautza, urdaiazpiko eta halakoak. Honez gain, beste koadrila batzuei ere prestatzen dizkiet bildotsa, bakailoa edo dena delakoa. Generoa erostera Arrasateko azokara joaten naiz, eguazten eta egubakoitz, niretzako eta beste batzuentzat ekartzera.

NIRE HERRIAN

BARAJUENGO ARGITERIA

Orain arte ia argirik gabe egon gara gure auzoan, Barajuenen. Baina jarri dute argiteria, eta oso ondo dagoela esango nuke. Orain arte, genituen argi apurkak itzalita egoten ziren sarri. Farolak itzali egiten ziren, eta akabo! Alde horretatik hobera egin dugu Barajuengo auzoan, eta eskertzekoa da, hobeto gaude-eta orain.

APARKALEKURIK EZ BARAJUENEN

Auzoan faltan sumatzen dut, eta diote autoa aparkatzeko gune bat egin behar dutela eliza inguruan. Hileta dagoenean-eta ez da lekuri egoten autoa uzteko, batzuek Azkoagaraino joan behar izaten dute. Ea, bada, esandakoa bete eta berehala egiten dituzten aparkalekuok.

HERRIAK

ARETXABALETA

Zazpi urteren ostean, etxeak bukatu barik, lanak geldi eta erantzunik ez

- Txarapea ibildideko 1. eta 2. blokeetako etxeen jabeak oso kezkatuta eta gogaituta daude
- Elkarretaratzea egin dute, asteon, egoera salatzeke; beste ekimen batzuk ere egingo dituzte

MIRRIALTUBE | ARETXABALETA

Gure etxeak nahi ditugu! lelopean, Txarapea ibilbideko 1. eta 2. etxe blokeetako lanen egoera salatu eta lehenbailehen bukatzeke eskatu zuten hainbat herritarrek eguaztenean.

Deba ibaiaren beste aldean, sasoi baten ortu emankorrak eta zelai berdeak zeuden mendi magalean, etxe mordoa egin dituzte azken zazpi urteotan. Eguzkienea promozioa izendatu zuen Bruesa Taldeak lanak hasi zituenean, eta 420 etxe inguru daude Txarapea ibilbide horretan. Horietatik 100 bat babes ofizialekoak dira; erdiak hilabete honetan bertan banatuko dituzte eta gainerakoak, datorren martxo inguruan.

Gainerako 320 etxeak hamar bloketan banatuta daude; 40 inguru libreak dira eta besteak, 280, etxe tasatuak. Euskal Autonomia Erkidegoan Udalak bultzatutako lehenengoetako etxe tasatuak zirela iragarri zuten bere garaian. Etxe tasatu horien zozketa 2004ko abenduaren 22an egin zuten, eta, ia zazpi urte pasatu badira ere, oraindik bukatu barik daude bloke guztiak. "Bukatu barik, lanak geldi eta ezer garbirik ez dakigula", diote 1. eta 2. zenbakidun blokeetan etxeak dituztenek.

Lanak geldi ekaina ezker

Ekaina ezker lanak geldi daude kiroldegia atzeko partean dauden 1. eta 2. blokeotan; bizilagunen esanetan, "Bruesak egin beharreko ordainketak ez dituelako egin". Uztailean Kutxa eta administratzaile konkurtsala akordioa iritsi zirela zabaldu zuten komunikabideek, eta abuztuan akordio hori sinatu eta irailaren 1ean hasiko zituztela berriro lanak. Akordio horrek, baina, irailaren 2an jaso zuen Kutxako estamentu gorenaren oniritzia, eta oraindik sinatu barik dago; eta bien bitartean, lanak geldi: "Epaile baten sinaduraren zain daudela aurrera egiteko da esan diguten azkena, baina jakin ez", diote.

Hori horrela, bi bloke horietako bizilagunak kezkatuta, gogaituta eta asko etsita daude etxeen bukaerarik ez dutelako ikusten: "Zazpi urte pasatu dira, zazpi! Bizilagunok denetarik egoerak bizi izan ditugu. Etxebizitzaren erdia ordaindu behar izan dugu, eta,



Txarapea ibilbideko 1. eta 2. blokeetako bizilagunak euren etxeen aurrean elkartuta, eguazten arratsaldean. | M.A.

ESANAK

"Bizilagunok salatzen dugu zain egon beharra eta informaziorik ez"

AMAIA ARROYO | BIZILAGUNA

"Epaile baten sinaduraren zain daudela diote, baina jakin ez"

AMAIA ARROYO | BIZILAGUNA

beteko luzapena gehitu, badaezpada. Burukominak, baina, iaz hasi ziren, ekainean lanok eten egin zituztenean eta ondoren, azaroan, Bruesa Construcccion lege konkurtsalean sartu zenean. Kutxak bere gain hartu zituen, gero, gremioei egin beharreko ordainketak, eta abenduan lanei ekin zieten berriro. Martxoan, baina, beste geldialdi bat etorri zen, astebeteko hura, eta azkena ekainean.

Bizilagunek, kezkatuta lanen nondik norakoekin, gertutik egin diete jarraipena azken urtean, nahiz eta oso argibide gutxi jaso: "Bizilagunok salatzen dugu urte hauek guztiak zain egotearekin batera izan dugun informazio falta. Eta gaur egun mesfidantza handiz hartzen ditugu iristen zaizkigun berriak", diote. Pazientzia eta borondate ona soberan izan dituztela zazpi urteotan gaineratu dute, baina dagoeneko "nekatu" dira eta "gure etxeak nahi ditugu" diote.

Udalaren erantzukizuna

Bestalde, Aretxabaletako Udalari "inplikazio handiagoa" eskatu gura izan diote, "euren erantzukizuna ere badelako". "Batetik, herritar mordoa gaudelako etsipen egoera honetan, eta bestetik, udal etxe tasatuak direlako; hau da, Udalak sustatutako etxeak".

Astelehenean, hain zuzen, Aretxabaletako udaletxean izan ziren eskatzeko osoko bilkura baten gaia azter zezala udalbatzak. "Udaleko ordezkari guztiek gure kezka eta egoera ezagut dezaten nahi dugu;

baina jakin dugu ez dutela gure eskaera onartu", zioten elkarretaratzea baino lehen, eta ez zeuden batere gustura erabaki horrekin.

Eguaztenean, elkarretaratzean bertan, Ana Bolinaga alkatea agertu zen azalpenak emateko gertu: "Udalak ez dauka zeresanik kontu honetan. Erabakia epaile baten eskuetan dago eta udalbatzak ezin du inolako erabakirik hartu horren aurrean". Eta gaineratu zuen Udalaren eskuetan dagoen guztia egiten saiatu izan direla beti, "etikoki" hala dagokiola uste duelako: "Uler-

tzen dut haserrea, baina administratzaileari deitu diogu, Kutxari ere bai, eta guk ezin dugu gehiago egin".

Ekimen gehiago aurrerago

Elkarretaratzea "haserrealdia publikoki erakusteko lehenengo pausoa" izan dela adierazi dute, eta aurrerantzean ekimen gehiago egingo dituztela iragarri.

Bestalde, Bruesa eta Kutxako ordezkariekin berba egin eta iritzia jasotzen saiatu da GOIENA, baina ez du lortu.

Etxeen gainerako kronologia

2004.12 Etxebizitza tasatuen zozketa kiroldegian.

2005.06 Etxe aukeraketa eta lehen ordainketa.

2007.12 Obra baimena lortzea 1. eta 2. blokeak egiteko.

2008.02 Salerosketa kontratua sinatzea.

2008.07 "Soka botatzea" edo lanak hastea; etxeak bukatzeke epea, 2 urte.

2010.06 Lanak geratuta.

2010.07 Bruesa Construcccion lege aurrekonkurtsalean sartuta.

2010.11 Bruesa Construcccion lege konkurtsalean sartuta.

2010.12 Lanak martxan, Kutxak bere gain hartuta gremioen ordainketak.

2011.03 Egunetako geldialdia.

2011.05 Bruesa Inmobiliaria lege konkurtsalean sartuta.

2011.06 Lanak geratuta.

2011.07 Kutxaren eta administratzaile konkurtsalaren arteko akordioa.

2011.09 Kutxak oniritzia eman akordioari, baina lanak oraindik geldi.

"Elkartasun uholdea itzela izan da, eskerrik asko!"

Kukutzan izandako lau arrasatearrak, egun berean aske

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2011ko irailaren 21a ez dago ulertzerik Kukutzaren hustearen albiste barik. Bada, Bilboko Errekalde auzoko gaztetxe barruan erresistentzia aritu zirenen artean lau gazte arrasatear zeuden. Azkena 20:00etarako aske zegoen. Beste atxilotu batzuei ondasunen usurpatzea, autoritatearen aurkako atentatua eta erresistentzia egotzi badiete ere, arrasatearrei usurpatzea egotzi diete. Lauretako batek adierazi digunez, halakoetan leporatzen den minimoa da.

Egun luzearen ostean "ondo" zegoela esan zigun lauretako batek: "Aipagarriena da Kukutzaren aldeko elkartasun uholdea. Arrasaten ere mobilizazioak izan dira eta eskertzen da jendearen erantzuna. Itzela izan da, eskerrik asko!". Bizitakoen gainean honakoa dio: "Ertzainek jarrera oso oldarkorra izan dute uneoro. Kanpoan banatu dute egurra batez ere; gu mehatxatu bai, eta belarrondoren bat edo beste ere, baina jipoitu ez". Bertan zegoen Arrasateko gaztetxeko kide batek kanpoan bizitakoak kontatu dizkigu: "Plazara heldu eta minutu bat ere ez dugu egin. Korrika egin behar izan dugu, pilotakada eta porra-kolpeez ihesi. Gero, jarrialdia egin dugu eta horri ere oldarkor erantzun dio Ertzaintzak. Hainbat zauritu izan dira".



Eguaztenean egindako manifestazioa, Arbolapetara heltzen. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Kanpoan egurra banatu dute; gu mehatxatu bai, baina jipoitu ez"

GAZTE ARRASATEARRA | ATXILOTUA

Albiste, bolbora balitz bezala
Kukutza husteko asmoz 05:30 aldera heldu zen Ertzaintza eta bolbora balitz bezala zabaldu zen albiste. Adibide bat: 11:40rako

Espainia mailan *trending topic* zen gaia twitterren; hau da, *Rekalde* eguneko hitz-gako erabiliene-takoa izan zen sare sozialean. 11:00 aldera hustu zuten gaztetxea.

Manifestazioa, ahoz aho

Bilbon 5.000 lagun elkartu ziren eguazten arratsaldeko manifestazioan eta atzo ere izan ziren mobilizazioak. Bada, Arrasatera ere heldu zen protesta. Atxilotuak askatzeko eta Kukutzaren alde, 70 bat lagun elkartu ziren ahoz aho zabaldu zen manifestazioan. Ordu erdi eskas iraun zuen, alde zaharrean barrena.

Udala pozik Mugikortasun Asteak eman duenarekin

J.B. | ARRASATE

Udala pozik dago atzo amaitu zen Mugikortasun Astearekin. Aurten ere Birzikleta Azoka izan da ekitaldi arrakastatsuen: "Jende ugari gerturatu zen. Azoka hasi baino ordubete lehenago jende asko etorri zen zer zegoen ikusteko eta artikulua aukeratzeko. Urtez urte igartzen da azokak duen hedapena eta zein interes pizten duen herri-tarren artean. Inguruko herrietako jende ugari ere etorri zen", adierazi du Nerea Lazpiur Udaleko Garapen Iraunkorreko teknikariak.

Emisio txikiko ibilgailuei dagokienez, interesa piztu zutela dio Lazpiurrek: "Batez ere bizikleta elektrikoek eta auto elektrikoek. Probatzeko aukera egon zen eta herritarrek harrituta gelditu ziren bizikletek daukaten potentzial eta erabilgarritasunarekin eta baita autoen erosotasun eta kalitatearekin ere". Dimekako bizikleta biran ohi baino jende gutxiago egon zen, eguraldi eskasak eraginda.

Autoan elkarrekin joatea

Udalak datu zehatzik ez badu ere -datorren astean izango dituzte-, hiri autobusa gehiago erabili da aste horretan, "nabarmen". Eta autoan elkarrekin joateko ohitura irailean "asko" hazten dela dio: "Gabonetan ere bai, baina irailean batez ere".

Ibai-Artek jakinarazi du 100 erosketa-orgen irabazleak nortzuk diren

Ibai-Artek Merkataritza Berdearen aste barruan zozketatu dituen erosketa orgen -erosketa karroak- irabazleak jakinarazi ditu. Orgak bihar banatuko dira: Seber Altube plazan, Rural Kutxaren aurrean, 13:15ean. Asteko ekitaldi bat bertan behera utzi behar izan dute: merkataritza arlo profesionalei zuzendutako jardunaldia.

Autobus txartelak salgai, Bateragune auzia salatze

Bateragune auzia salatze Bilbu, Aralar, euskal sindikatuek eta beste eragile sozial batzuek zapaturako Bilbon deitu duten manifestaziora joateko autobus txartelak Irati tabernan jarri dituzte salgai, zortzi eurotan.

Autobusa Garibai geltokitik irtengo da, 16:00etan.

NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA



MendeBALDARrak eta HegoALDEAK

parraldea eta hegoaldea. Iparra non daukagun ez dakigun arren, mundua bereizten duen marra garbia da. Gure pentsamendu mendeBALDARrak ertz ugari ditu, hegokoALDEkoak arantzaz eta zauri asko, baina aukera ugari.

Iparraldean iparra galduta gabilta, eta hegoaldean hego berriak aurkituz ari dira, haien iparra Hegoan kokatuz. *Nuestro norte es el Sur*, aldarrikatzen dute askok.

Hegoaldeko herrien erri-mak iristen zaizkigu belarrietara, eta iraganeko harriak pilatzen zaizkigu gerrian.

Arrazoiak nork duen galdetzen dugu, ipar eta hegoaren arteko gerrei begira gauden, arrazoiak nork nori eman gaiten.

Ipar eta Hegoaren arteko marraz handitzen doaz, baina bietako jende masak nahastu doaz poliki-poliki, marren bi ertzetan, jende uholde berriak marraztuz.

Pentsamenduak nahastuz, batzuen miseriak, eta besteenak, marren bi aldeetako plazatan azaltzen hasi dira. Lana kentzera datozen etorkinak daude gure plazetan eta egiaren jabe diren adituak goaz haien plazetara, lan eta etorkizun oparoa eskaini guran, burukominak oparitzen.

Bitartean gehientsuenak marren gainean dihardugu, gutako batzuk urrutiko lurretan opor egunak erosiz eta haletako asko itsasarteetako itsasoetan, aireportuetako aduanetan edo gizakien trafikoko ezkutuetan bizitzak salduz.

"Iparraldean iparra galduta gabilta; hegoaldean, hego berriak aurkituz"



PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

URRIA - EKAINA, ASTELEHENETAN

Hiru maila

HASIERA: urriak 10

1. mailako ordutegia: 18.30 - 20.00

IZENA EMATEA epea: URRIAK 7

AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkarta.com

GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Antolatzailea

PORTALOI taldea
Herri kantu eta dantza

Laguntzaileak

aed arrasate euskaldun dezagun

gaztebulegoa.com

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOEN IRTEERA
Urriaren 22an irteera egingo dute 1949an jaiotako arrasatearrek. 09:00etan irtengo dira Garibai geltokitik, Zerainera joateko. Lore eta Zabaleta dendetan eman behar da izena; 30 euro ordaindu behar da.

MATRIKULAZIOA ZABALIK ETA LEHIAKETA EUSKALTEGIAN

Udal Euskaltegiak lehiaketa abiarazi du. 16 urtetik gorakoek

har dezakete parte; hilaren 26an hasiko da eta urriaren 14an amaitu. Informazio gehiago www.udaleuskaltegiak.net webgunean. Bestalde, ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dago.

ODOL EMATEAK

Irailaren 27, 28 eta 29an eta urriaren 4, 6, 7, 11 eta 13an odola emateko aukera. Osasun zentroan izango da, 16:30etik 20:00etara.

YOGA IKASTAROA

Yoga ikastaroa antolatu dute. Honako hau da helbidea: Bañez Doktorea kalearen lehen zenbakia, Txindoki dorrea. Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara (Maitegatik galdetu) eta martitzen eta eguenetan 14:30etik 16:00etara (Anagatik galdetu) izango dira klaseak.

Harremanetarako 635 710 616 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana) telefonora deitu behar da.

'MKJ kantue': Maritxu Kajoi eguna nola bizi dugun azaltzeko abestia

Jaiak 35 urte beteko dituela-eta abesti berria atera du Komisiñuek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gero eta hurbilago dago urriaren 7a, hileko lehen egubakoitza. Eta, beraz, Arrasateko Ama Birjina kutunenaren jaia: Maritxu Kajoi. 35 urte beteko ditu aurten jaiak, eta, horregatik, Komisiñuek zerbait berezia egin nahi izan du.

Zer? Bada, kantu berria atera dute. Honela azaldu digu Eneko Barberenak, Komisiñueko kideak: "Maritxu nora zoaz herri

kantua badago, Euskal Herri osoan ezaguna dena. Bada, aurten jaiak 35 urte betetzen ditue- nez, arrasatearrok egun Maritxu Kajoi nola bizi dugun islatu gura genuen. Hau da, jai herrikoia dela, arrasatearrok bereziki ulertzen duguna".

Ez du betikoa ordezkatzuko

Arrasatearrek sortua, Arrasaten grabatua -Shot! estudioan- eta bereziki arrasatearrendako izan arren, jaiarekin bat egingo duten ororendako egin dute abesti berria. Nobenaixuen -irailak 30- aurkeztuko dute jendaurrean. Kantu berriak, baina, ez du betikoa ordezkatzuko -ondoko koa-

droan, QR irakurgailu batekin, abestia entzun daiteke-: "Noski, betiko herri kantua abesten

jarraituko dugu", dio Barberenak. Kantua auzolanean sortu da. Komisiñueko Eneko Barberena, Jokin Labaien eta Iraitx Agirrek egin dituzte hitzak eta hitzok Never Surrender taldeak Dragoi Alde txarangakoekin batera musikatu ditu.

Kolaboraziorik, noski, ez da falta izan: Ines Osinaga (Gose), Arkaitz Biain (Anger), Ainara Kortabarria (Ain_1), Iñaki Gurrutxaga *Harristi*, Amaia Arginzoniz (Los Cretinos) eta Olatz Urkiak (TransitBlues), besteak beste, euren ekarpena egin dute.



Never Surrender eta Dragoi Alde txarangakoak, dotore-dotore. | KOLDO CARRILLO

Nobenaixuen aurkeztuko dute

"Betikoa baino kantu parrandazaleagoa da; pozik geratu gara, jaiari beste ekarpen bat da. %100 arrasatearra da. Oso esker onekoak gara abestian parte hartu duten guztiekin", dio Barberenak. Arra-

sateko Shot! estudioan grabatu dute Iñaki Bengoaren gidaritzapean eta Mamia estudioan masterizatu, Jonan Ordorikarekin. Bada, herri-tarren artean ahalik eta gehien zabaltu gura dute; Nobenaixuen aurkeztuko dute.



Diskoaren azala. | MARITXU KAJOI KOMISIÑOA



Udalekuetan bizitakoak gogoratzeko jai berezia gaur gazte txokoetan

J.B. | ARRASATE

Martitzenean ireki ziren Musakola, Erguin eta San Andresko gazte txokoak. Gaztetxokeroek eman diote hasiera ikasturte berriari, beraz. Bada, dagoeneko antolatuta dute ikasturte berriko lehen ekintza. Udako oporrak eta udalekuak atzean utzi arren, "egun ahaztezin" horietan bizitakoak gogoratu nahian, eta berriro udalekuetako giro ona berreskuratze-ko, udalekuetako jaiak antolatu dituzte egoitza bakoitzean.

Musakola eta Erguinen gaur

Lehen txandan joan zirenek Erguingo gazte txokoan izango dute hitzordua eta bigarren txandan joan zirenek, berriz, Musakolako gazte txokora jo behar dute, egun eta ordu berean.

Ikasturteari begira azken urteetako dinamikari eutsiko diotela dio Lander Juaristi arduradunak: "12 eta 17 urte arteko gazteek antolatuko dute gazte txoko bakoitzaren jarduna, eurek antolatuko dute euren aisialdia".



Orioko udalekuetan egon zirendako jaia egingo dute gaur. | TXATXILIPURDI

'Saperokerixak' komikiaren bigarren zenbakia atera du AEDk, euskalkia gazteengana hurbiltzeko helburuaz

Apirileko lehen zenbakiaren ostean, AEDk *Saperokerixak* komikiaren bigarren zenbakia kaleratu du. Webgunean eta sare sozialean zintzilikatzeaz gain, herriko ikastetxeetara ere bidali dute eta "berandu barik" kalean gazteei zuzenean banatzea da euren asmoa. Helburua da gazteei euren hizkuntza-jarreraren inguruan pentsaraztea -egunero-ko egoerak komiki bidez erakutsiz- eta gazteei Arrasateko euskalkia hurbiltzea. Urtea amaitu baino lehen beste bi zenbaki atera gura dituzte.

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

eman izena

PERFIL GUZTIAK | MINTZA TALDEAK | ALFABETATZE | AUTOIKASKUNTZA

DEBAGOIENAKO AEK EUSKALTEGIA
ARRASATE

aek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

Garibai 14, Arrasate
943 77 03 69 • arrasate@aek.org

MATRIKULA zabalik, 2011-9-30era arte
Goizez, 11:00etatik 13:00etara
Arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara

Bekak Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

Mondrak Lezaman hasiko du liga

Denboraldi berriari begira emakumezkoen bazkide txartela aterako du elkarteak 10 euroren truke

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Denboraldia hasteko partidu polit baina gogorra izango dute Arrasateko neskek; izan ere, ligako lehenengo jardunaldian Athletic B taldearen aurka jardungo dute moretxoek. Domekan izango da lehia, 10:00etan, Lezaman.

Maila berria estreinatuko du, gainera, Jon Zuloagak eta Andoni Ezkurak zuzentzen duten taldeak: Mondrako neskek emakumezkoen bigarren mailan jokatuko dute. Bada, denboraldia prestatzen abuztuaren 21ean hasi ziren arrasatearrak.

Ligako faboritoak

Ligako talde faboritoa izango da Athletic: "2. mailako talde indartsuena izango da, Abantorekin batera", azaldu du Jon Zuloaga Mondrako entrenatzaileak. Prestaketari dagokionez, Zuloagak esan du Bilboko taldeak eurek baino lehenago hasi zuela denboraldi-aurrea, eta, horregatik, hobeto iritsiko direla.

"Athleticek Bizkaiko jokalaria onenak ditu, gazteak dira, baina oso onak", azaldu du. Mondrak, ostera, igo berriak izanda, ahal den denboraldi

txukunena egitea izango du helburu.

"Gol aukera gutxi izango ditugu; horiek aprobetxatu egin behar ditugu", dio Zuloagak. Lerro guztiak indartu egingo dituzte Zuloagak eta Ezkurak domekako partiduari begira.

Lau jokalaria berri Mondran

Hiru jokalarik utzi dute taldea eta etorri, ostera, lau etorri dira. Eibarko, Bergarako eta Tolosako jokalaria bana ekarri dute; eta baita orain arte Gasteizen ibili den baina arrasatearra den Melani Concepcion.

Denboraldiari begira, erritmo bizkorreko lehiak izango direla aurreratu du Zuloagak; hala, ondo kokatuta irten beharko dute erritmoari eusteko eta lehia amaierara egoera onean iristeko. Bestalde, gogoratu du aurten "gol aukera gutxi" izango dituztela, eta horiek aprobetxatu beharko dituztela.

Bazkide txartela

Mondrako zuzendaritzak nesken bazkide txartela aterako du. 10 euroren truke denboraldi osoko partiduak ikusi ahal izango dira. Gainera, txartel bakoitzak zenbaki bat izango du, zozketetan parte hartzeko balioko duena.



Mondrako neskek igoera lortu zuten iaz. | GOIENA



Denboraldia hasiko duten mutilak. | ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Etxeko jokalariekin osatuko du taldea aurten Arrasatek

Bihar, zapatua, hasiko dute denboraldia Igor Isasiren mutilek; sekretua "lanean" dagoela dio

A.E. | ARRASATE

Igor Isasiren mutilek etxean hasiko dute denboraldia. Zapatuan Uni Bilbao taldearen aurka jokatuko dute Mojategin, 16:30ean.

Denboraldia sasoi onean hasteko gogor lan egin dute azken asteetan arrasatearrek; hala, taldeak hainbat partidu jokatu ditu; azkena joan den aste bukaeran Elorrioren aurkakoa izan zen.

Durangorekin hitzarmenik ez

Aurtengo denboraldia ezberdina izango da iazkoarekin alderatuta. Izan ere, Arrasate errugbi taldeak ez du hitzarmenik lortu Durangorekin. Iaz izandako hitzarmena bertan behe-uztea erabaki dute bi elkar-tee. Isasik herriko jokalariai bakarrik izango ditu bere aginduetara. Dena den, esan behar da arrasatearren erantzuna ezin hobeia izan dela. Denboraldi-aurrean 30 jokalaritik gora izan ditu bere aginduetara Igor Isasik. Horien guztien artean gazte taldeko jokalariai ere egon dira entrenamenduetan; izan ere, denboraldi berrian senior mailan jokatuko dute jokalaria horiek.

Azken partidua, galdu

Kanpanzar Arrasatek 7-12 galdu zuen Elorrioren aurka denboraldi-aurreko azken partidua, zapatuan, Mojategin.

Igor Isasi entrenatzailea gustura eta pozik geratu zen azken partiduan jokalariek egindako lanarekin. Azaldu du hasierako helburuak bete egin zituztela: talde sentsazio onak bilatzea, entrenamendutan landutakoa praktikan jartzea eta fisikoki dena ematea. Honela azaldu du Isasik taldeak egindako lana: "Hasieratik taldea oso erasotzaile ateratu zen, baloia-ekin aurrera eginez bai defentsan plakatze eraginkorrak eginez, eta baita ondo presionatuz ere. Ondorioz, aurkariei akatsak egitea eragin genien".

Partiduan zehar akatsak ere egin zituztela onartu du Isasik: "Baina denok oso baikor ateratu ginen aurtengo denboraldia oso polita izan daitekeelako", azaldu du. Emaizak onak lortzeko sekretua lana egitean dagoela dio Isasik. Horretarako, orain arte bezala entrenatzen jarraitu behar dutela dio, bai jokalariai kantitateari dagokionez, eta baita kalitateari dagokionez ere.

Ilusioz hasiko du Ford Mugarrik denboraldia

A.E. | ARRASATE

Ford Mugarrik La Bacaladera Hondarribiaren aurka hasiko du denboraldia bihar, zapatua, 18:00etan. Ane Herreroendako berria izango da dena: bai taldea, eta baita maila ere. Hala ere, pozik eta ilusioz dago arrasatearra.

Partidu zaila izango da

Biharko partiduen gainean Herrero dio lehia zaila izango dela. "Taldea irregularra da, partidu ona edo kaskarra egin dezakeen horietakoa; baina ziur gaudere guretaldea zaila izango dela", azaldu du Herrero Hondarri-

biaren gainean. Denboraldia etxean hasia abantaila izango dela ere esan du Ford Mugarriko entrenatzaileak.

Denboraldi-aurrean egin duten lanarekin gustura dago Herrero: "Baditugu hobetu beharreko hainbat gauza, baina esango nuke defentsan, adibidez, ondo ibili garela eta baita korrika egiten ere". Iazko taldearekin alderatuta bost jokalaria berriekin hasiko du denboraldia etxeko taldeak.

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa

•

Tapizatu lanak

•

Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

•

Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65

639 01 69 69

PUB HAIZEA

arrasate

Aukeratu bizi izateko espazio libre bat

biodantza

Rakel Ampudia

Euskal Herriko biodantzako profesionalen prestakuntza eskolaren zuzendaria

Asteazkenero

19:30etik 21:30era

Arrasate Yoga Elkartearen (Altamira)

Ate irekiak: Irailaren 28an,

19:30etik 21:30era

Arrasate Yoga Elkartearen (Altamira)

Biodantzako profesionalen prestakuntza eskola

Hasiera urriaren 22-23an

1. Modulua: BIODANTZAREN MODULU TEORIKOA

Irailak 25ean Biodantza Tailerra Arantzazu (Oñati) 10:00-12:00

Informazioa:

679 44 12 29

biodanzavitoria@gmail.com

www.biodanzavitoria.com

150 lagunek eman dute izena pintura eskoletan

I.G. | ARRASATE

Aurten ere izugarritzko arrakasta izan dute Amaia Bengoak eskaintzen dituen pintura eskolek: guztira, 150 pertsonak eman dute izena ikastaroetan. Hala ere, Bengoak berak azaldu digu oraindik zabalik dagoela izen-ematea. Izan ere, hainbat taldetan tokia dago oraindik eta taldeak osatu arte aukera izango da izena emateko.Helduen kasuan, beteta daude plaza guztiak, baina haurrentzako badago tokia. Interesatuta dauden umeek honako egun hauetan dituzte plazak libre: astelehena, eguna, egubakoitza eta zapatua. Eskolak hartu nahi dituztenek Kulturatera joan edo deitu besterik ez dute.

Egunero ematen ditu ikastaroak Bengoak, honako ordutegietan: 17:00etatik 18:20ak arte hurrei eta 18:30etik 20:00etara helduei; zapatuan ematen dituen eskolak, bestalde, umeendako bakarrik izaten dira, 11:00etatik 13:00etara. Eskolak Kulturaten eskaintzen dira; hurrek astean behin hartzen dituzte eta helduek, birritan.

'Un cuento chino' eta 'Cars 2' filmak Amaia antzokian asteburuan

Domekan 17:00etan eskainiko da *Cars 2* filma. Haur eta helduek barre pixka bat egiteko aukera ezin hobe da pelikula. Rayo McQueen-ek eta Mate garabiek abenturaz betetako istorioa dakarte. Gainera, oraingoan, auto koadrilara pertsonaia berriak gehitzen dira: adibidez, Aston Martin DB5 eder bat.

Un cuento chino ikusteko aukera izango da, bestalde, domekan 19:30ean eta astelehenean 20:30ean. Pelikula horrek ere barreak eragingo ditu. Ricardo Darin eta Huang Sheng Huang dira komedia horretako protagonistak.



Al Andalus elkarteko kideak kantuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Euskadiko andaluziarren 22. topaketak egingo dituzte

Gaurtik domekara bitartean takoi hotsak, jana eta edana ez dira faltako

IRATI GOITIA | ARRASATE

Euskadiko andaluziarren 22. topaketak egingo dituzte gaurtik domekara bitartean eta egitarau zabala antolatu dute ospakizunerako: musika emanaldiak, dantza ikuskizunak eta afaria, besteak beste. Inor ez aspertze-

ko moduko programa osatu dute topaketetarako.

Laubiden izugarritzko karpa

Ospakizunetarako 1.000 metro koadroko karpa jarriko dute Laubide plazan. Bertan egingo dituzte ekitaldi guztiak, domekako

meza izan ezik. Hori San Franzisko elizan izango da.

Ekitaldi jendetsuak

Euskadiko andaluziarren elkar-teen federazioa da topaketen antolatzailea, eta, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko hamahi-

ru elkartetatik etorriko da jendea. Hala, zapatuan egingo duten afarian, adibidez, 500 pertsona elkartzea espero dute. Hala ere, domekakoa izango da egun jendetsuena. Hain zuzen, egun horretan egingo diete agintariei harrera, besteak beste: Arrasateko alkatea, elkarteak dituzten beste herri batzuetako alkateak, Kordobako Montilla herriko alkateordea eta Patxi Lopez lehendakaria espero dituzte.

Herri gonbidatua: Montilla

Jardunaldi hauetara Andaluziako herri bat gonbidatu ohi dute eta aurten Kordobako Montilla da herri gonbidatua. Montillak erakusmahaia izango du Laubiden jarriko den karpan eta herriko produktu tipikoak (ardoa eta pastelak) eta turismo eskaintza izango dituzte. Horretaz gain, kupel bat nola egiten den ikusteko aukera ere izango da, herri- tik etorriko den upeltegi baten eskutik: Toneleria del Sur.

Musikari entzutetsuak

Gaur ekingo diote festari andaluziarrek, topaketen irekiera ekitaldiarekin, 19:30ean, eta, behin jai giroan sartuta, ez da gelditzeko aitzakiarik izango domekara arte: 19:30ean izango da itxiera ekitaldia. Tartean, hainbat emanaldi entzutetsu izango dituzte; esaterako, Maria de la Colina ezagunaren kontzertua domekan, 18:00etan. Gaur, Una noche sin Sabina taldearen emanaldia egingo da.

Karmelo Alberdi: "Gustura gaude jasotako erantzunaz"

Irailean egin den 'Kulturate akustikoak' egitasmoaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

I.G. | Arrasate

Irailean egin da *Kulturate akustikoak* egitasmoaren hirugarren edizioa eta antolatzaileak gustura gelditu dira jaso duten erantzunarekin.

Maila handiko taldeak

Karmelo Alberdi Kultura teknikariak adierazi du kalitate oneko kontzertuak izan direla eskainitakoak, eta askotariko estiloetakoak. Gaineratu du jendea oso gustura gelditu dela taldeen eman- kizunekin eta arreta ere piztu duela talde batek edo bestek. Adibidez, Mammy Wata talde afrikarrak ikuskizunera joanda-

koen interesa piztu zuela azaldu du, eta, kontzertua amaitu ostean, euren instrumentuak ikustera eta ukitzera jende asko gertatu zitzaIELA esan du.

Bigarren asteburua, hobia

Alberdik gaineratu du bigarren asteburuan izan ziren kontzertuek (Mamy Wata, Manett eta Keu Agirretxea) harrera hobia izan

zutela lehenengo asteburuan izan zirenek baino (Napoka Iria eta Litoral). Hala, Alberdik adierazi du Litoral taldea ikustera jende gehiago joango zela espero zutela, taldekideak oso ezagunak direlako; 60 lagun inguru joan ziren kontzertu hartara.

Jende gehien erakarri zuen kontzertua, bestalde, Keu Agirretxearena izan zela gaineratu digu, 100 pertsona inguru joan ziren bakarlariaren emanaldia ikustera.

Alberdik esan du gehien harritu dituen kontzertuetara joan direnen adina izan dela, 60 urte inguruko jendea joan da-eta.

ESANAK

"Gehien harritu gaituena izan da etorri den jendearen adina"

"Jende gehiago izan zen bigarren asteburuko kontzertuetan"

KARMELO ALBERDI | KULTURA TEKNIKARIA

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

MONTE TABERNA

edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2

Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10

Tel.: 943 79 52 50

Lilura

OIHALAK

Egin zure jantzia.

Konpromisorik gabeko aurrekontua.

Poltsak, eskularruak eta galtzerdiak bezalako osagarriak eskaintzen ditugu.

Zerkaosteta 5, behea.

ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



Udalbatza osatzen duten alderdi guztiak daude gonbidatuta politikariei zuzendutako batzarrera, oraingo asteburuan. | GOIENA

Plan Estrategikoa betetzen hasi nahi du Udal Gobernuak

Herritarrei zuzendutako hiru batzar izango dira, data zehazteke dagoen arren

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurreko agintalditik jasotako Plan Estrategikoa gauzatzen hasi nahi du Udal Gobernuak. Teoria praktikara eramaten hasi nahi du, azken batean, eta, horretarako, plangintza urte amaierarako prest izan nahi dute. Gero, plangintza hori izango da Udal Gobernuak erabiliko duen lan tresna agintaldian barrena.

Hiru batzar sorta

Plangintza zehazten joateko, hiru batzar sorta antolatu dituzte, irailetik azarora bitartean: bata, udal politikariendako; beste bat, udal teknikariendako; eta hirugarren

sorta, herritarrendako. Prozesuan Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango dute, plan estrategikoa diseinatzen lagundu zuen aholkularitza bera.

Lehenengo sortan Udaleko politikariak hartuko dute parte, eta, Udal Gobernuak kideez gain, oposizioko taldeei ere egin diete gonbita. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, egun osoz jardungo dute Elosuan.

Batzarron helburu orokorra da herritarren parte-hartzean sakontzen jarraitzeko oinarriak lantzea. Helburu zehatzagoei errepikatuz gero, hiru azpimarra daitezke: politikariak trebatzea, euren

lan-moduan parte hartzeko kultura txertatzeko eta herritarrekin parte hartzeko prozesuak diseinatu eta bideratu ahal izateko; datozen lau urteotan herritarrekin elkarlanean jorratuko diren lan-ildoak identifikatzea eta horiek garatzeko antolaketa zein funtzionamendua zehaztea udal barrukoa nahiz herri-mailakoa; eta agintaldi honetan Udalean lanean ari-tuko den taldearen kohesioa lantzea.

Herritarrendako batzarren kasuan, hiru egingo dituzte, baina data oraindik zehazteko dago. Teknikariendako jardunaldiak urriaren 3an eta 4an izango dira.

San Juango ortuen produktu dastaketa domekan, eguerditik

Barazkien platertxoak eta edaria lau eurotan jarriko dituzte salgai; musika ere izango da

E.M. | BERGARA

San Juan auzoan ortuen lehiaketa egin zuten joan den ekainaren 27an, eta orain, ortuok emandako produktuak dastatzeko ordua iritsi da. Horrela, domekan, eguerditik aurrera barazkien erakusketa eta salmenta egingo dute ermita ondoko plazatxoan. Era berean, orri-mami beteak prestatuko dituzte; piperrak eta piperminak dastatzeko aukera izango da baita ere: eta parrillan kalabazinak, berenjenak, tomateak

eta kipulak gertatuko dituzte antolatzaileek. Barazkien platertxoak eta edaria (ardoa edo sagardoa) lau eurotan jarriko dituzte salgai.

Hamaika ortu lehiaketan

Ekaineko lehiaketan auzoko 11 ortu aurkeztu ziren lehiaketara. Besteak beste, produktuen barietatea, hazkunde ekologikorako tratamendua eta aurkezpena hartu zituen kontuan epaimahaiak. Aurelio Ot eza-guna izan zen irabazlea.



Ekaineko ortu lehiaketan 11 ekoizle izan ziren lehian. | JEXUS AGIRRE



MOISES AZPIAZU dantza taldea
BERGARA

2011-2012 DANTZA IKASTURTEA



BATZAR INFORMATIBOA

(Aurreko ikasturtetik matrikulatuak dauden guraso guztiei zuzendua)

Eguna: Irailak 29, osteguna.

Ordua: 19:30ean

Lekua: Irizar Jauregiko 3. pisuan

Etor zaitez!

San Lorentzo auzokoen afaria urriaren 1ean

E.M. | BERGARA

San Lorentzoko auzotarrek afaria egingo dute urriaren 1ean Agorrosin kirolguneko tabernan, 21:30ean. Afariaren aurretik taldeko argazkia aterako dute eta, era berean, hildako auzotarren aldeko meza izango da. Afalosteko dantzaldia Javishowk alaituko du.

Izen-ematea, domeka arte

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, Madurako betiko koadrilak eta auzotarrak daude gonbidatuta. Ahalik eta jende gehien batzea da helburua eta gomendatu dute izena lehenbailehen ematea, plaza mugatuak izan daitezke-eta. 20 euro aurreratu behar dira eta izen-ematea Zapelaitzen, Arkupen, Ganbaran eta Agorrosingo tabernan bertan egin daiteke, domekara arte, irailaren 25era arte.

OHARRAK

1941EKO BERGARARRAK

1941ean jaiotako emakume eta gizon bergararrek bazkaria egingo dute urriaren 15ean Tartufon, 14:30ean. Ordu erdi lehenago, 14:00etan, Santa Marina aurreko bus geltokian elkartuko dira autobusez igotzeko San Juanera. Mahaiaren bueltan eseri aurretik, argazkia aterako dute. Lazkano oinetako dendan eman behar da izena, 20 euro ordainduta, urriaren 11 baino lehen.

1942AN JAIOTAKOAK

Urriaren 1ean bazkaria Azpeitxi jatetxean, 14:30ean. Aurretik argazkia aterako dute. Izena emateko azken eguna irailaren 26a da, Azpeitxi jatetxean, 20 euro aurreratuta.

1944AN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an, Zumelagan. 13:00etarako egin dute hitzordua Irala kalean. Izena emateko azken eguna: urriaren 15a. 943 76 21 86 (Ana Mari), 943 76 23 70 (Sanchez ile-apaindegia) edo 943 76 10 32 (Florita).

'Sentitzen animaliek bezala' erakusketa Zabalotegiko pilotalekuan

Fauna eta naturarekiko kontzientziazioa piztea da helburua; Debagoiengan, Bergaran bakarrik ikusgai

EDU MENDIBIL | BERGARA
Sentitzen animaliek bezala izenburuko erakusketa ibiltaria ikusgai dago Zabalotegiko pilotalekuan irailaren 28ra arte. Jesus Elortza alkatearekin batera Justina Elexpuru eta Juanje Amasorrain zinegotziak egon ziren irekitze ekitaldian, eguaztenean. Iñaki Irizar Seminarioko museoko langilearen laguntzaz egin zuten bisita erakusketan zehar.

Hiru haima jarri dituzte Zabalotegiko pilotalekuan, eta, hain zuzen ere, erakusketak betetzen duen espazioa dela eta, Zabalotegin jarri dute erakusketa. Basa Fauna Sendatzeko Ilundaingo Zentroaren erakusketa ibiltaria da, Faureco europar proiektuaren barruan egindakoa. Besteak beste, Europako Batasunak eta Nafarroako Gobernuak hartzen dute parte. Debagoiengan, Bergaran bakarrik ikusi ahal izango da erakusketa.

Bizitzarekiko errespetua
Antolatzaileek azpimarratu zuteenez, fauna sendatzeko zentroen izateko arrazioa bizitzarekiko errespetua da. Basanimalien gorputzean barrena dagoen bizi-funtza gizakiok dugun berdina da. Horregatik, animalien bizitzaren alde lan egitea gizakien bizitzaren alde egitea ere bada. Zabalotegiko erakusketa irizpide horietan oinarritzen da.

Erakusketaren hiru guneetan bisitariak fauna eta haren problematika gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Hain zuzen



Ikasle talde bat eta atzean Irizar, Elexpuru, Elortza eta Amasorrain. | E.M.

ere, naturarekiko kontzientziazioa piztea da erakusketaren helburuetako bat.

Iñaki Irizar biologoak esandakoaren arabera, animaliekin urteetan izandako esplotazio harremana aldatzen ari da, eta, hain zuzen ere, Zabalotegiko guneetako baten, fauna suspertzeko zentroetan eta bereziki Gipuzkoako Arrano Etxean egiten den lana erakusten da. "Azken urteotan 7.000 basabere inguru eraman ditugu Arrano Etxera eta horietatik kopuru handi bat, %65 inguru, milaka animalia beraz, sendatzea eta naturara itzultzea lortu da. Horrelako zentroetan gaur egun egiten den lana ezinbestekoa da. Fauna eta naturarekin interesatutako guztiak erakusketara etortzera gonbidatu nahi ditugu", dio Irizarrek.

Eguaztenera arte zabalik
Erakusketa, esan bezala, eguaztenera arte dago zabalik, aste barruan 09:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Asteburuan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara. Ikasleendako bisita gidatuak antolatuko dituzte. Josu Goñi bergarar gazteak gidatuko ditu bisitok.

Herriko merkataritza indartzeko plana abian

Kontsumitzaileen erosketa ohiturak aztertuko dituzte hurrengo astetik aurrera

E.M. | BERGARA
Bergarako Udalak, Eusko Jaur-laritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin eta herriko dendarien elkartearekin batera (Bedelkar), Merkataritza Indartzeko Plana martxan jarri du. Plan horren egitasmoak, ekintza desberdinen bidez hiriko merkataritza egituraren oreka bilatzeaz gain, modernizazio prozesuan lagundu nahi du.

Zuzendaritza teknikoa Iker-talde aholkularitzak eramango du, eta, hain zuzen ere, datorren astean bertan inkestak egiten hasiko dira, telefonoz eta aurrez aurre hainbat kasutan. Ainhoa Mitxelena Ikertaldeko ordezkariak azaldu digunez: "Hiruzpalau aste emango ditugu inkestak egiten, eta, ahal dela, kolaborazioa eskatu nahi diegu

herritarrei". Besteak beste, merkataritza eskaria eta eskaintza eta herriko kontsumitzaileen erosketa ohiturak aztertuko dituzte.

Diagnosia eta ekintza plana
Horrekin batera, herri mailako jarduerak, enpresa jarduerak eta merkataritza jarduerak izango dira aztergai datozen asteotan. Ainhoa Mitxelenak esandakoaren arabera, hortik diagnostikoa etorriko da, eta, orduan, ekintza plana zehazteko ordua izango da.

Esan bezala, Bergarako merkataritza indartzea da helburua, beste herri askotan gertatu bezala beherakada izan delako azken urteotan. Bedelkar elkartearen barruan 80 bazkide inguru dira gaur egun. 1994an sortu zuten elkarte.

DJ Amaia zapatu arratsaldean Zabalotegiko aretoan, herriko gaztetxoei zuzendutako festan

Zapatuan hasiko da, berriro ere, Zabalotegiko disko festa. Bihar (hilak 24) hasi eta Gabonak arte zapatu baten bai eta bestean ez, DJ Jaialdiak izango dira Zabalotegin. 18:30etik 21:30era. Oraingoan, Amaia Txintxurreta DJ Amaiarekin. 12-14 urteko gaztetxoei zuzenduta. Azkeneko urteotan arrakasta handiz antolatzen du Udalak disko jaia Zabalotegin herriko gaztetxoendako.

Ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea, azaroaren 10era arte zabalik

Herritar guztiei jakinarazten zaie 2011ko ekonomia jardueren gaineko zergaren errezeiboak ordaintzeko epea urriaren 1ean zabalduko dutela. Azaroaren 10era arte izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errenergiaz kobratuko dute. Erreziboan ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei, banketxe horren bidez bidali eta kobratuko zaie. Besteek etxean jasoko dute ordainketa egiteko agiria urriaren 31 baino lehen.

Ikasturte berrirako matrikula epea zabalik dago Bergarako Udal Euskaltegian, Irizar jauregian

2011-12 ikasturteko matrikula zabalik dago Bergarako Udal Euskaltegian. Maila guztiak eskaintzen dituzte: hasiera-maila, EGA eta HABEren 1., 2., 3. eta 4.a. Orduetegi aldetik aukera zabala dago, eta baita dirulaguntzak eskuratzeko aukera ere. Argibideak Udal Euskaltegian, Irizar jauregiko lehen solairuan edota 943 76 44 53 telefono zenbakian.

Zabalotegiko Txiki Txokoa, zabalik

Ikasturte berriari ekin dio dagoeneko Txiki Txokoak. Iaz irailean zabaldu zuen Udalak, Zabalotegiko eskola zaharrean. 0 eta 5 urte arteko umeendako aisialdigunea da eta bi ikasgela ditu: bata, oinez dabiltzan umeendako da; eta bestea, katamarka dabiltzan hurrei zuzenduta. Egunero zabalduko dute, 16:30etik 20:00era.



E.M.



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Urriaren 2an egingo dute Bergarako bizikleta martxa

- Izena aurrez Internetez emanez gero askoz ere merkeagoa izango da
- Izen-emate bakoitzetik euro bat Aspanogi elkartera bideratuko dute

XABIER URTZELAI | BERGARA

Iazko ibilbidearen antza izango du urriaren 2an Debagoieneko MTB zirkuituaren barruan egingo duten Bergarako Aspanogi martxak. Iazkoarekin jendea oso gustura geratu zen, eta antolatzaileek helmugan jasotako proposamenak aintzat hartu dituzte aurtengoa prestatzeko orduan; besteak beste, ibilbide luzea apur bat luzeagoa egingo dute, eta gogortasuna handitu. Hala, tramu motzak 28 kilometro izango ditu –bizikletan apur bat ibiltzen direnendako egiteko modukoa– eta 750 metroko desnibel positiboa. Eta luzeak iaz baino zortzi kilometro gehiago (37 km) eta 1.100 kilometroko desnibel positiboa; Wikiloc webgunean duzue ibilbideko track-a zintzilik, eta www.biciprecisionigartua.com helbidean informazio gehiago.

Hala, ibilbideari dagokionez, iazko bazter ederretatik igaroko dira aurten ere mendiko bizikletazaleak: Asentzioko aintziratik, Intxortako inguruetatik, Elgetatik, Aixolako urtegitik, Azkonabietatik eta Basalgoko jaitsieratik. Irteera puntua Agorrosinen egingo dute, 09:00etan, eta proba amaitezakoan hainbat opari



Iaz, ezustekoa sortu zen, goizean pinu bat ibilbidean aurkitu zutelako; berehala konpondu zuten arazoa. | JOSETXO ARANTZABAL

banatuko dituzte –luncha egongo da bertan, eta baita bizikletak garbitzeko mangerak–, eta baita Orbea Orca baten zozketako txartelak ere.

Izen-ematea aurrez, hobeto

Urriaren 2an Bergarako irteera puntuan egon nahi duenak hobe du izena Internetez eman –irailaren 30a da izena aurrez emateko azken eguna–, askoz ere gutxiago ordaindu beharko du-eta –200 lagunendako tokia izango da–. Hala, izena Internetez emanez gero, federatutakoek 8 euro baino ez dituzte ordainduko (kirol-probak.com webgunean) eta federatuta ez daudenek, 10 euro. Egunean bertan egiten duenak, berriz, federatuak 15 euro ordaindu beharko ditu eta federatuta ez dagoenak, 19 euro.

Aspanogirekin elkarlanean

Bergarako mendi bizikleta martxako antolatzaileek Aspanogirekin elkarlanean antolatuko dute hitzordua; Gipuzkoan minbizia duten haurren guraso elkarteak da Aspanogi, eta izen-emate bakoitzeko euro bat elkarte horretara bideratuko dute.

Ez da elkarlanean antolatzen duten lehen kirol jarduna, mendiko bizikleta martxarekin batera Lokatzako lagunek antolatzen dute-eta Bergarako zikloturisten irteera, eta orduan ere Aspanogikoekin batera eskutik joan ziren.

Soraluce BKEk Usurbilen kontra hasiko du liga bihar, etxean

Euskadiko txapelketari eustea izango da erronka

X.U. | BERGARA

Agorrosinen jokatu du Josetxo Muniategiren taldeak liga lehen jardunaldia bihar (18:00). Eta, iaz bezala, Soraluce BKEk kategoriari eusteko helburuarekin ekingo dio ikasartuari.

Ez da erronka makala, Bergarako jokalariek aldetik justu samar hasiko du-eta denboraldia: "Baja askotxo izan ditugu, lan kontuak

tarteko edo jendea kanpora joan delako ikastera", adierazi du Muniategik; eta egoera horri aurre egiteko, gazte mailatik bi jokalariek igo dituzte: "Gazte horiek seguruenik minutu asko jokatu dituzte, eta maila ona emango dutela espero dugu". Ligan hamalau talde izango dira eta horietako sei izango dira gipuzkoarrak; tartean, Bergara eta Arrasate.



Pulporen kontra jokatu duen partiduan, penalti jaurtiketa. | JOSETXO ARANTZABAL



JUAN MARI SASIGAIN

Frantziako laku ederretatik itzulia eginda

Abuztutik bueltan Pol-Poleko lagunek modu ezin hobean egin diote aurre opor osteko depresioari. Joan den asteburuan Pirinioetan izan ziren, Portaletetik gertu, baina Frantzia aldean. Mendi zeharkaldi zirkularra egin zuten zapatuan, Lac du Fabregas, Lac Artouste eta Socques inguruetan ibili ziren. 30 lagun elkartu ziren bidaian eta Panticosan egin zuten zapatu gaua. Domekan, berriz, lasaiago ibili ziren, hiru orduko osteratxo egin zuten-eta Hoz de Jaca eta Biescas arteko zatia eginda.

'Caos y otras esperanzas' antzezlana Zabalotegin

Venezuelako Teatro Altosf taldearen lan sinple baina sakona ikusteko aukera dago gaur, 22:00etan

I.G. / T.M. | BERGARA
Caos y otras esperanzas antzezlana eskainiko du Venezuelako Teatro Altosf taldeak gaur gaueko hamarretan Zabalotegi aretoan. Sarrera bost euro da.

Mezu potoloak, modu sinplean
Bi dira antzezlaneko protagonistak: aita bat eta haren alaba, bizitza errealean ere hala diren Juan Carlos de Petre eta Luz de Petre.

Bi aktoreek gai potoloak lantzen dituzte emanaldian, modu oso sinplean, eszenografia askorik gabe –bi banku eta maleta bat soilik–. Jorratzen duten gaietako bat presa da; uneoro asti barik dabilen alaba eta gauzak patxadaz hartzeko aholkatzen dion aita kontrajartzen dira emanaldian. Ikasteari buruz ere mintzo da lana, eta bizitzak ematen dizkigun ikaskizunez ere egiten dute berba bi protagonistek. Antzezlanak beste mezu bat ere uzten du: bizitza kaosa da.



Juan Carlos de Petre eta Luz de Petre antzezlaneko aktoreak. | TEATRO ALTOSF



Emon taldeko kideak kontzertua eskaintzen. | EMON

Emon taldeak Italian eskainiko ditu kontzertuak asteburuan

IRATI GOITIA | BERGARA
Italian barrena ibiliko dira aste bukaera honetan Emon taldeko kideak. Izan ere, gaur, egubakoitza, Erroman eskaini behar dute kontzertua eta bihar, berriz, Erromatik 30 kilometrora dagoen Frascati herrian izango dira euren lehen diskoa *-Piztu herria-* aurkezten.

Italiako ACE euskal etxearen laguntzarekin antolatu dituzte kontzertuok. Gainera, Erroman eskainiko dutena bertako irrati baten alde eginitako emanaldia izango da, leku benetan ezagunean: CSOA Strike okupa-gunean. Zapatukoa Farenight aretoan izango da.

Emon taldeko Aritz Alustitza bergararra oso pozik eta

gogotsu azaldu da emanaldi horiekin, eta gaineratu digu taldekideak irrikaz daudela italiarrak euren doinuekin gozarazteko.

Italiatik bueltan Durangoko jaietan eskainiko dute hurrengo kontzertua, Landankon, urriaren 14an.

Disko berria datorren urtean
Piztu herria diskoaren aurkezpen kontzertuei amaiera emango diete Emon taldekoek emanaldi horiekin, eta ez nolanahiko amaiera, gainera. Horren ostean, buru-belarri hasiko dira lan berria prestatzen taldekideak; izan ere, Alustitzak adierazi digu euren asmoa datorren urtean grabazio lanak hastea dela.

Etzi, tortura ardatz, antzerkia eta mahai ingurua gaztetxean

Napoka Iria eta Mara musikariak kartzelan sartuko dira kontzertuak eskaintzeko gaur, 22:00etan

I.G. | BERGARA
Torturari buruzko antzerkia eta mahai inguru irekia egingo dira domekan, 18:00etan, gaztetxean. Maria Mendikutek idatzitako *Ensayo sobre la tortura* lana antzeztuko dute Pablo eta Luis Cotarelo aktoreek. Antzezlanak jendearen kontzientzian eragitea du helburu, eta, horretarako, torturatu baten bizipenak taularatzen dituzte. Zehazki, poliziak ezbarra ekiditeko torturatzea erabaki duen aktibista baten istorioa kontatzen da.

Napoka Iria eta Mara
Gaur, bestalde, kontzertuak izango dira gaztetxean, *Egubakoitzak kartzelan* egitasmoaren barruan: Napoka Iria eta Mara.

Lehena Eibartik datorren bikote akustikoa da, eta, hain zuzen, Bergaran bertan –Zabalotegin– grabatutako zuzeneko diskoa aurkeztuko du kartzela zaharrean. Miren Narbaitzak eta

Ander Muxikak osatzen duten bikotea benetan indartsua da eta melodia bakoitzak izugarritzko sentimendua transmititzen du. Ikuslea lehen unetik erakartzen dute bi kideen gitarra hotsek eta Narbaitzaren ahots ederrak.

Mara izenaren atzean, berriz, Audiokoko Igor Artzuaga dago; ibilbide luzea duen musikaria da Artzuaga. Piano-jotzaile benetan trebea da laudiotarra eta doinu klasikoak letra bereziekin uztartzen ditu. Nahasketa benetan interesgarria egiten du. Ahots sarkorra eta sendoa du musikariak eta hasiera-hasieratik erakartzen du entzulearen arreta.

Giro goxoa sortzeko luxuzko gonbidatuak dira gaurko bi taldeak eta gaztetxera joaten direnek gustura entzungo dituzte musikarien abesti berezi eta indartsuak. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira eta sarrera hiru euro da; prezio bera du domekako antzezlanak ere.

Zabalik dago Bergarako aire zabaleko XVIII. pintura lehiaketako lanen erakusketa

I.G. | BERGARA
San Martin jaien egitarauaren barruan Bergarako aire zabaleko XVIII. pintura lehiaketa egin zuten joan den domekan, eta dagoeneko ikusgai daude bertan parte hartu zuten margolarien lanak udaletxeko osoko bilkuren aretoko pasilloan.

Urriaren 2ra arte egongo da lanok ikusteko aukera, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara; eta asteburuetan, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 18:00etatik 21:00etara.



Aire zabaleko pintura lehiaketako lanak. | IRATI GOITIA

Txapelketan 32 artista
Txapelketan 32 artistak hartu zuten parte: hiru nafarrek, zortzi bizkaitarrek, lau arabarrek eta hamazazpi gipuzkoarrek; horietatik bederatzi, bergararrak.

Txapelketako lehen saria Raimundo Argos bilbotarrarentzat izan zen (1.000 euro). Bigarren saria ere Bilbora joan zen, Carlos Espigarentzako izan zen (410 euro). Lehenen eta bigarren bergararrentzat ere izan ziren sariak, hurrenez urren: Jose Luis Azkarate (210 euro) eta Maite Azkargorta (180 euro).

Kutxu Otamendiren lana domekara arte egongo da ikusgai

Kutxu Otamendi zarauztarraren obra ezagutzeko azken egunak dira hauek; izan ere, domeka honetan itxiko ditu ateak haren omenez Beart elkartekoek antolatutako erakusketak. Artistaten 15 pieza inguru daude ikusgai Aroztegi aretoan. Otamendiren bi sasoi islatzen dira lanetan: etapa sinbolikoa eta abstrakziora jo zuen garaia. Zapatuan goiz eta arratsaldez izango da erakusketa ikusteko aukera eta domekan, goizez bakarrrik.

Telesforo Monzonen omenezko erakusketa urriaren 2ra arte

Telesforo Monzonen gaineko erakusketa udaletxeko osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai urriaren 2ra arte. *Telesforo Monzon (1904-1981): Bergararra, Kultura gizona, Politikaria* da erakusketaren izenburua eta bertan, bergarar ospetsu horren ibilbidea erakusten da aipatutako hiru aspektu horietan oinarrituta. Hiru panel handi eta sei bat bitrina daude erakusketan: Monzonen idatziak, diskoak eta hainbat objektu original, hain zuzen ere.

"Egitarau parte hartzailea eta zabala"

Kultura Sailak 186.000 euro pasa gastatuko ditu San Migel eta Errosaixo jaietan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

"Berriak gara, baina saiatu gara jai egitarau ahalik eta parte-hartzaileena egiten. Horretarako, batzarra egin genuen uztaillean, herriarren ekarpen eta ideiak jasotzeko. Orduko ideia batzuk sartu ditugu egitarauan. Adibidez, jaiguneak deszentralizatu egingo ditugu eta txosnagune bat egongo da Atzeko kalean". Hitz horiekin aurkeztu zuen Mikel Biain alkateak 2011ko jai egitaraua.

Iritzi berekoa zen Manu Egaña Kultura zinegotzia. "Hurrengo urteko egitaraua udaberrian garatzen hasiko gara. Askoz parte-hartzaileagoa izango da. Jai batzorde sendoa osatuko dugu", esan zuen.

Jai egitarauko aurrekontua 186.000 euro pasatxo da.

Berrikuntza

Dagoeneko etxeetara banatu duten egitarauan hainbat berrikuntza daude.

Azpimarragarriena da txosnetako egitaraua egitarau ofizialean txertatuta ikustea. "Ahalegindu gara bi egitarauak bateragarri egiten. Txosnetako ekitaldia bukatzen denean, plazan beste bat hasiko da. Hori horrela, jaiak

di erraldoien antzera, hainbat gune egongo dira, baina ekitaldiek ordutegi ezberdina izango dute", esan zuen Egaña.

Egitarau "zabala" dela esan dute udal arduradunek, eta askotariko musika estiloak "ukitzen" dituen: funka, rocka, soula, bluesa, mariatxiak... Ekitaldiak ere askotarikoak dira.

Oharrak

Jaietan kontuan hartzeko hainbat ohar eman zituzten aurkezpenean. Alde batetik, zezenetan 16 urtetik beherakoek ezin dute la parte hartu gogorarazi zuten. Era berean, esan zuten txikien dako ez direla poney eta zezen txoak egongo. Beste alde batetik, Errosaixo egunean egingo duten ikuskizun piroteknikorako markatuko den perimetrea errespetatzea eskatu dute. "Iaz arazoak egon ziren. 30 metroko perimetrea ipiniko dugu, eta ezin daiteke pasa. Plazako edozein lekutatik ikusi ahal izango da ikuskizuna", esan zuten.

Zapiak eta bazkaria

Bestalde, gogoratu zuten jaietako zapiak salgai daudela herriko hainbat taberna eta dendatan,



Manu Egaña, Amaia Kerexeta, German Meabe eta Mikel Biain, jaietako zapiarekin. | MIREIA BIKUÑA

Jai parekideen alde lanean

Berdintasun batzordeak, indarkeria sexistari aurre egiteko bitarteko gisa, eraso sexistak atenditzeko zerbitzua jarriko du martxan. Jaietan 24 orduz telefonoa martxan egongo da eta indarkeria jasan dutenek aukera izango dute deitu eta artatuak izateko. Laguntza juridiko eta psikologikoa eskainiko dute. Aholkularitza eman eta zalantzak argitzeko ere balioko du.

Jaigunean informazio puntua ipiniko dute eta telefonoa eskuratzeko aukera egongo da.

150 bat ume danborradan

Bihar 18:00etan abiatuko da 29. hurren danborrada. 150 bat neska-mutikok parte hartuko dute danbor-jotzaile, sukaldari, gastadore, barrilari, elkarreetako banderadun eta iñude paperak egiten. Gogor entseatu dute azken asteotan.

Guztien aurretik zaldunak joango dira. Ikastetxea aldatzen dute urtero, eta bihar Txantxiku ikastolakoak izango dira: Asier Igartuak eta Leire Barrenak gidatuko dituzte ume guztiak kalerik kale.

Jaietako III. mus txapelketa

Hirugarren urtez egingo dute mus txapelketa San Migeletan. Bihar, zapatua, 15:30ean elkartuko dira Iturritxo tabernaren aurreko plazatxoan. Txapelketa bikoteka jokatu dute, eta izena ematen duen kopuruaren arabera antolatuko dute.

Txapelketa bera 16:30ean hasiko dute, baina interesa dutenek ordu bete lehenagotik eman ahal izango dute izena Iturritxo tabernaren aurrean. Han egongo dira antolatzaileak.

eta baita kultura etxean ere, euro baten.

Herri Eguneako bazkarirako txartelak salgai daude, hilaren 27ra arte, Anton, Izarraritz, Olakua, Arrano eta Otamendi tabernetan, 19 eurotan. Azkenik,

urriaren 2an jokatu dute profesional mailako pilota partidurako sarrerak leihatilan bertan salduko dituztela aurreratu zuten. Errosaixo egunean Goñi III.ak eta Martinez de Eulatek Eugiren eta Goñi II.aren kon-

tra jokatu dute partidua ikusteko txartelak bost eurotan salduko dituzte. Aurretik pilota sailak antolatutako San Migel txapelketako finalak jokatu dituzte, gazte eta afizionatu mailatan.

ASTE BUKAERAKO KIROAK

GOLFA

Gaur eta bihar Goietan IX. San Migel saria Irelor golf zelaian.

PILOTA

Bihar 16:30ean gazte eta afizionatu mailako bigarren finalerdiak Zubikoan.

BOLAJOKUA

Etzi 16:00etan Kurtzebaltz elkartek antolatuta txapelketa egingo dute San Martinen. Ondoren arku-tiroketa saioa egingo dute Txantxiku Arkulariak taldekoek.

Edalontzi berrerabilgarriak euro baten txosnetan

Txosna batzordeko kideek eguaztenean aurkeztu zuten euren egitaraua. Egitarau ofizialean txertatu dute aurrean, eta askotariko ekitaldiak iragarri dituzte.

Txosna bakarra ipini dute karpazpian, eta sukaldeak kanpoan. Sei taldek kudeatuko dute txosna: Oñatiko Gazte Independentistak, Oñati Zero Zabor taldeak, Talde Feministak, AHTrick ez! taldeak, OGAK eta Askatasunak.

Berrikuntzak ere badituzte, eta batez ere bi azpimarratu gura izan zituzten: alde batetik, Errosaixo Bixamonean egingo duten paella-jana indartzeko asmoz, mahaia eta aulkiak ipiniko dituztela esan zuten. Txartelak zortzi eurotan salduko dituzte, Bogan, Onan eta Arranon.



Txosna batzordekoak eguaztenean aurkaezpenean. | IRATI GOITIA

guztiekin argazki erraldoia egitea hilaren 29an, 08:30ean. Izen propioa duen beste eguna San Migel eguna da. Txosna batzordekoek Egun More izendatu dute: bazkari feminista, olinpiada moreak eta transmaribollo kalejira egingo dituzte, besteak beste. Egun Morea hasteko tailerrak egingo dituzte.

Beste alde batetik, edalontzi berrerabilgarriak erabiliko dituzte. Euro baten truke salduko dituzte. Edalontzia itzultzen dutenek euroa jasoko dute. "Zabor kopurua txikitzea da gure helburua. Plastikozko edalontziekin zabor asko sortuko dugu. Dena den, gura duenak etxetik ekar dezake edalontzia", esan zuten txosna batzordekoek. Hilaren 28a Gaupasa Eguna izendatu dute, eta euren asmoa da *gaupasero*

Ganbara Txiki abesbatzak diskoa grabatuko du bihar

Prestatzen diharduten material didaktikoaren zati garrantzitsuetako bat da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ganbara Txiki abesbatza grabazio estudioan sartuko da bihar. Hain justu ere, diskoa grabatuko dute Donostian, Easo Abesbatza-ren auditoriumean. Egun osoko grabazioa egingo dute, eta material didaktikorako irudiak grabatu eta argazkiak egiteko denbora izango dute. "Gogotsu gaudede. Hainbat musikal egin eta gero, beste urrats bat egitea erabaki dugu. Haur eta gazteen aisialdirako ipuin bilduma kale-ratuko dugu", esan digu Aitor Biainek.

Bada, material didaktiko horren zatietako bat bihar grabatuko dituzten abestiak dira.

Donostian Ganbara Txikik hainbat kantu grabatuko ditu, Eli Mendiaratz piano-jotzailearen eta Marije Arratibelen zeharkako xirularen laguntzarekin. Domekan, CDan agertuko diren narra-



Ganbara Txiki abesbatzako kideak. | GOIENA

zioak grabatuko dituzte Miel Guridirekin.

3-9 urte arteko materiala

Ganbara Txiki eta Ganbara Txi-

kitxoak abesbatzek hainbat ipuin musikatu dituzte azken urteotan, eta horietako bi jasoko dituzte liburuan eta CDan: Elberdinen *Jostailugilea* eta Ugaldereen *Eskolopendra*. Ipuin bakoitzak liburua

eta CDa izango ditu. Liburuan, ipuin musikatuan kontatutako istorioa jasoko da ilustrazioen bidez. Liburua osatzeko, denbora-pasak eta ipuinekin zerikusia duten beste hainbat ekintza izango dira: hizki-zopak, logika lantzeko ariketak, eskulanak, jokoak...

Bilduma osatuko duten ipuinak musikatuak izanik, argumentuak bat egingo du musikarekin. Hori horrela, ipuinen narrazioak eta abestiak CD baten jasoko dituzte. "Ipuinak irakurriaz bat, narrazioak eta abestiak entzun ahal izango dira", esan digu Biainek.

Gainera, bigarren bertsio baten musikaren *playback*-a jasoko dute, haurrek ipuinak antzetzu eta abesteko aukera izan dezaten.

Bi edo hiru urtean

Ganbarakoek esku artean duten materiala 3 eta 9 urte arteko umeendako da. "Ekintza guztiak jolas moduan planteatuko ditugu, alde pedagogikoa baztertu gabe", dio Biainek.

Proiektua orain hasi dute, eta bi edo hiru urte barru bukatzea espero dute. Abenduan egingo dute lehen bi ipuinen aurkezpen ekitaldia.

Kiroldegiko parkinga doan eta plazakoa itxita

M.B. | OÑATI

Barrakak asteon heldu dira Oñatira eta horrek eragina izan du plazako aparkalekuan. Urtero moduan, han ipini dituzte barrakak eta autoek ezin dute aparkatu. Aparkalekua itxita egongo da urriaren 4ra arte. Tarte horretan, kiroldegi azpiko parkinga doan izango da. Osasun etxeko eta Olaiturriko aparkalekuak ere erabil daitezke.

Bestalde, barrakak martxan egongo dira gaurtik aurrera. Jaiegunetarako prezioa zehaztu dute eta bonuak ere ipiniko dituzte herritarren eskura. Aurten ere, bi egunean, txartelak merkeago salduko dituzte: gaur (hilak 23) eta astelehenean (hilak 26) euro baten salduko dituzte txartelak.

Masterreko ikasleei ongietorria egingo diete martitzenean

Friendship programan parte hartuko duten herritarrekin bilduko dira Antia jauregian

M.B. | OÑATI

Lege Soziologia Institutura masterra egitera doazen ikasleak heldzen ari dira. Asteon heldu dira Vietnam, AEB, Kolonbia, Portugal, Estonia eta Argentina-ko ikasleak eta aste bukaeran eta hurrengo astean helduko dira gainerako guztiak.

Ongietorria egiteko, Friendship programaren koordinatzaileek harrera egingo diete martitzenean, hilaren 27an, 20:00etan, Antia jauregian. Deialdia egin diete masterreko ikasleei eta programan parte hartuko duten herritarrei: "Ikasleak Antia jauregian egongo dira apirilera arte. Friendship

programan parte hartuko duten herritar askok ez dute Antia barrutik ezagutzen. Etxea erakutsiko diegu, eta ikasleak aurkeztuko dizkiegu. Euren arteko lehen hartu-emana izango da".

Inoizko erantzun onena

Hirugarren urtea da Lege Soziologiakoek herritarren artean deialdia egiten dutena. Erantzuna bikaina da. "Inoizko erantzun onena izan dugu. Askok errepikatu egiten dute, baina gehienak berriak dira. Ahoz aho edo hedabideen bidez jakin dute. Facebook bidez ere ezagutu gaituzte", esan digute arduradunek.

Informazio gehiago gura duenak 943 71 88 85 telefonora dei dezake (Susana Arrese), edo susana@iisj.es helbidera idatzi.

Bi helburu nagusi

Programa horrek bi helburu ditu: alde batetik, datozen atzerriko bisitariei –batez ere ikasleak, baina baita irakasleak eta ikertzaileak ere– Oñatiko eguneroko bizitzan integrazioa bideratzea eta erraztea; eta beste alde batetik, programan parte hartzen duten herritarrei kultura berri bat ezagutu edota atzerriko hizkuntza bat praktikatzeko aukera ematea. Elkar ezagutzen dutenean, euren artean antolatuko dituzte ekintzak, irteerak eta bestelakoak. Apirilerarte arte askotariko ekintzak egingo dituzte Oñatin, Debagoienean eta hemendik kanpo.

Bestalde, iaz hasitako bideari jarraituz, herriko ikastetxeekin hainbat ekintza egingo dituzte. "Iaz hainbat ekintza egin genituen ikasleekin, eta eurekin dugun programa indartzea erabaki dugu. Ikastetxeak gurekin hartu-emanetan ipini dira, eta elkarrekin ekintzak antolatzeko interesa erakutsi digute", diote.

Ulmako langile eta erretiratuek herri bazkaria egingo dute

M.B. | OÑATI

Ulmako langileek, bazkideek eta erretiratuek bazkaria egingo dute bihar kooperatibaren 50. urteurrena ospatzeko. Hori izango da urteurrenaren azken ekitaldia. Herri bazkaria egingo dute kiroldegiko kantxan. Ulmako langileek eta erretiratuek gutun bidez jaso zuten biharko deialdia. "Asmoa da elkarrekin bizi izandako uneak gogora ekartzea", diote.

Musika Oihan Vegarekin

Herri bazkariko antolatzailleek "une berezia eta hunkigarria" izatea espero dute. Hori horre-

la, bazkaria hasteko bideo bat ipiniko dute. Irudi eta argazkien bidez Ulmak 50 urteotan egingdako ibilbidea gogora ekarriko dute. Gainera, gizarte, enpresa eta kooperatiba esparruetako hainbat pertsonak zorion agurrak bidaliko dituzte.

Bazkalondorengo giroa animatzeko musika izango da nagusi. Hain justu ere, musika jarri eta bazkarian daudenak dantzan ipintzeko ardura Oihan Vega bergararrak izango du. Ekitaldia bukatzeko, enpresa laguntzaile batzuek emandako opariak zozketatuko dituzte bazkarian dauden artean.

OHARRAK

ERAKUSKETA

Nabarralderen biltzarraren barruan, Nafarroaren konkistaren gaineko erakusketa dago ikusgai kultura etxean. Gaur da azken eguna, 18:00etatik 20:00etara arte.

HERRI EGUNA

Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude Izarraitz, Arrano, Antton, Umerez eta Olakua tabernetan. 19 euroren truke eros daitezke. Zubikoa kiroldegiko kantxan egingo duten bazkariko menua izango da: patatak errioxar erara, arku-mea txilindron erara, hostopil tarta piñarekin, kafea eta kopa. Urriaren 1ean egingo dute bazkaria, 14:30ean. Musika egongo da giroa alaitzeko.

PLASTIKO BILKETA

Baserrietako plastikak batuko dituzte hilaren 27an. Plastikozuria eta beltza batuko dituzte, besteak beste. Oñatin lau lekutan utz daitezke: Murgian, Asentzio ermitaren ondoan; Zañartun, Zuazolan; Olabarrietako autobus geltokian; eta ETEO atzealdean.

ZENBAKI SARITUAK

San Lorentzoko jaietako ordeko zenbakiak daude indarrean martitzena ezker: lehen saria 2.419 eta bigarren saria 1.044. Bestalde, Urrexolako jaietako zenbakiak dira: lehena 2.973, bigarrena 1.378, hirugarrena 2.282 eta laugarrena 2.428. Sari-dunak jai batzordekoekin jar daitezke hartu-emanetan.



Iazko Friendship programako kideak, Loiolara egindako bisitan. | SUSANA ARRESE

Hasi dira garaiko barazkiz betetako otzarak banatzen

Maria Jesus Revuelta aretxabaletarrak 13 lagunendako ekarri zituen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Apirilean sortu ziren Biolurrek sustatutako kontsumo taldeak gurean, eta astean jaso dituzte, lehenengoz, barazkiz betetako otzarak. Eta aurrerantzean martitzen guztietan jasoko dituzte garaiko produkturik onenak bertatik zuzenean ekarriak.

Aramaioako Pedro Lizarraldekin lau lagunendako otzarak ekarri zituen, eta gainerakoak, Aretxabaletako Maria Jesus Revueltak; zazpi handi eta sei txiki. Guztira 17 herritarrek jaso zituzten.

Ortua Eraña auzoan

Maria Jesus Revuelta ez da baserritarra, baina Derioko nekazari eskolan ikastaro bat egin zuen eta bost urteren ondoren lehenengo uzta jaso du ortuan: "Zarbak, piperrak, porruak, letxugak berenjenak... ekarri ditut oraingoan, eta datorren asterako tomateak eta lekak izan gurako nituzke", dio.

Eskoriatzako Eraña auzoan dauka ortua, 7.000 metro karratu inguru, baina horietatik 3.000 ditu landatuta eta beste 2.000 inguru kiwi zuhaitzekin. Bi negutegi ditu, gainera, 40 bat metro



Kontsumo taldeko kideak barazkiak jasotzen, martitzenean. | MIRARI ALTUBE

luze eta 5 metro zabal dituztenak: "Batean lekak eta tomateak ditut gehienbat, eta bestea hutsik dago. Dagoeneko lurra gertatuta daukat hor eta orain hasiko naiz espina-lanak landatzen".

Kontu honekin hasia ez zela samurra izan du gogoan: "Hastea kosta egin zaigu, baina laguntza izan dugu. Jaurlaritzak, nekaza-

ri bulegoak eta Biolurrek asko lagundu digute, batetik aholkularitza eta bestetik laguntzak emanda". Eta produktu ekologikoen izendapena lortu du.

Bezeroekin zuzenean

Joan den astean ortua erakutsi zien bezero dituenei eta bere asmoen berri eman: "Esan diet hasten gabiltzala eta barietate handia ez dugula orain. Baina gero eta produktu gehiago landatzen gabiltza, eta euren iritzia jakinda hobetzen joango gara. Nire asmoa astero otzara ezberdinak eskaintzea da".

Aurrera begira dituen asmoen artean daude astero 20 otzara handi gertatzea eta fruitu arbola gehiago landatzea: "Sagarrondoak, esaterako; eta ea kiwiak datorren urtean jasotzen ditugun".



Maria Jesus Revuelta Erañaiko ortuan. | M.A.

ESANAK

"Nire asmoa astero otzara ezberdinak eskaintzea da"

M.J. REVUELTA | BARAZKI EKOIZLEA

Ogia, gazta eta arrautzak ere bai

Martitzenetan (19:00), parroikia parean, dute hitzordua ekoizle eta bezeroek. Garaiko barazki eta fruituekin betetako otzarekin batera beste produktu batzuk eskuratzeko aukera ere badute kontsumo taldekoek. Etkezuri baserrikoek (Galartza) osoko ogia eta gazta eroaten dituzte eta Mendibitzu baserrikoek (Arkarazo), arrautzak. Mendibitzukoek okela ere eskaintzen dute eurekin harremanetan jarri gero.

Mokadutxoa eta dantzaldia Erretiratuen Eguna ospatzeko

M.A. | ARETXABALETA

Gaur, irailak 23, Erretiratuen Eguna ospatuko dute Basotxo erretiratuen egoitzan. Udarak herriko erretiratuei eskaintzen dien omenaldi ekitaldia izango da, hain zuzen, azken urteotan San Migel jaien hasieran egiten duen ospakizuna.

Ekitaldia Basotxon

Mokadutxoa izango dute lehenengo (18:00), eguraldi onarekin egoitza kanpoan eta bestela barruan, eta ondoren, dantzan egiteko aukera izango dute guztiek. Basotxo erretiratuen egoitzako tabernaren ardura duen Txukunberri enpresak hartu du bere gain ekitaldiaren anto-

lakuntza, eta bai jatekoa, bai dantzaldia hark gertatuko dizkie.

Erretiratu guztiendako

Kiroldegia itxi zutenetik ezin izan dute bazkaririk egin Erretiratuen Egunean, baina bai ekitaldi apalagoa. Izan ere, Udarak gogoan izan ditu beti 65 urtetik gorako herritarrek. Hala, bada, erretiratu guztiak omentzea da antolatzaileen asmoa eta gogorarazi dute guztiek dutela gaurko ekitaldirako gonbidapena. Eta udal ordezkari batzuk ere joango dira ospakizunera, tartean Maider Aizkorbe Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia.



M.A.

Pintxo poteoa berrikuntzekin

Denboraldi berriarekin batera berrikuntzak egin gura izan dizkiote eguaztenetako pintxo poteoari herriko ostalariek, eta herenegun jarri zuten abian. Ardo aldatu egin dute, eta Errioxako Marques de Mundaiz ardo ondua eskaintzen hasi dira mokadutxoarekin batera. Eta jai giroa bultzatzeko trikitilariak izango dituzte lagun aurrerantzean.

Pintxo poteoa eguaztenetan egiten dute gurean (18:00-21:00) iazko martxoa ezker, zazpi tabernatan: Orly, Artano, Paulaner, Taberna Berri, Gurea, losu eta Txakoli.

Gaztelekuak atea zabaltu ditu eta merienda dute gaur

Arkupen dagoen Atxagazte gaztelekuak atzo, eguna, eman zion hasiera ikasturteari. Lehenengo egunean ongietorria egin zieten arduradunek gazteei, bereziki 12 urtekoei, lehenengoz zihoazelako, eta batzarra izan zuten gero.

Gaur, egubakoitza, jokoak egingo dituzte eta merienda izango dute ondoren. Eta bihar itxita egongo da, San Migel jaiak direlako. Eta domekarako, hilak 25, txapelketak antolatuko dituzte: ping-pong eta mahai-futbol txapelketak.

Urriko egitarauaren berri hurrengo egunetan emango dute Gazteria Zerbitzuko kideek.

Yoga ikasturtea hasiko du Aredhana yoga psikoterapia taldeak

Aredhana yoga psikoterapia taldeak hasi du yoga eskolen ikasturtea, eta irailean zabalik dago izen-emate epea. Martitzen eta eguaztenetako eskolen ordutegia honakoa da: 10:00, 17:30 eta 20:00. Txandakatzeko aukera ere bada goela iragarri dute.

Argibide gehiagorako deitu honako telefono zenbakira: 616 96 57 95 (Encarna).

Aredhana taldeko kideen esanetan, pentsamendua argitu eta oreka lortzeko bidea da yoga: "Gure ekintzak eta berbak justuagoak izango dira. Kontzienteago egiten gaitu eta beste irekiago egoteko aukera eskaini".



**Auto aseguruetan
%15eko
deskontuak!**

Errekararren 3 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

Emakumeak protagonista diren argazkien bila

Azaroaren erdira arte jasoko dituzte Arkupen eta erakusketa gertatuko dute Martxoaren 8rako

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA
Udaleko Kultura eta Berdintasun Sailak ekainean egin zuen argazkiak batzeko lehen deialdia; jaso dituzte banaka batzuk, baina ez

behar beste, eta bigarrenez egin dute eskaera orain.

Emakumea "ikusezina" izan delako urtetan, andrazkoak protagonista diren argazkiak batu

eta erakutsi gura dituzte: herriko emakumeen lanak, ardurak, asmakizunak, kultur ekarpenak, zereginak, bizipenak, interesak... erakusten dituztenak. Aspaldikoak ez ezik, hain zaharrak ez diren irudiak ere jasoko dituzte.

Arkupen

Gisa horretakoren bat etxean topatu eta ekimena aurrera ateratzen lagundu gura duten herri-tarrek Arkupe kultura etxeo bigarren solairura jo behar dute; goizean argazki artxiboak duen

bulegora eta arratsaldean Kultura sailaren bulegora. Argazki guztiak eskaneatu egingo dituzte, haren gaineko argibideak jaso, eta ondoren itzuli. Argazkiok modu digitalean ere itzuliko dizkiete jabeei. Azaro erdialdean amaituko da argazkiak Udalaren eskuetan uzteko epea.

Martxoak 8

Udaleko Berdintasun eta Kultura Sailak datorren urtera begira antolatutako ekimena da erakusketa. 2012ko Martxoaren 8rako

–Emakumeen Nazioarteko Eguna– gertatu gura dute erakusketan, egun horretan proiektua jendaurrean aurkeztu eta erakusketa zabaltzeko.

Badira hiru bat urte emakumeari eskainitako hilabetea egiten dutela. Film emanaldiak, antzerki saioak, mahai-inguruak... antolatutako orain arte eta datorren urterako –lehen aldiz– andrazkoak protagonista diren argazki erakusketa prestatuko dute, udal artxiboan daudenekin eta herri-tarrek eramandakoekin.

Areantzarren bigarrena ere Youtuben dago ikusgai

Aurtengo Andramaixetan grabatu dute 70 bat lagunek *Martin Kabarrixaren kantue*. Kabarrixa baserrian bizi izandako azkena izan zen Martin –duela 100 bat urte– eta Arantzazu Loidik hari zuzenduta idatzitako bertsoak kantatu zituzten auzotarrek, txistu, pandero eta txalaparta doinuek lagunduta. Eguerdi-pasa polita!



JULEN ABASOLO

Jaiki elkartearen udazkenerako eskaintza gertu dago

Bi ikastaro antolatu dituzte: gorputza eta erritmoa pizteko dantza tailerra da horietako bat –funka, jazza, afroa, bollywooda...– eta Magdalena Mila-nok emango du. Urriaren 11tik Gabonak arte izango da, martitzenetan, 18:30etik 20:00etara, kuarter zaharrean. Langileek 45 euro ordaindu beharko dituzte hiru hilabeteengatik eta gainontzekoek, 38.

Beste ikastaroa dantza eta jolasak familian lantzeko izango da, zapatuetan, 11:30-12:45, Arkupen, urriaren 8an hasita. Hiruhilabeteko prezioa: 40 edo 35. Izen-ematea: jaikielkatea@yahoo.es edo 943 53 43 96.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

25
urteurrena



Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

**Ondo pasa
jaiak!**





Elizateetako alkate berrien izendapena egin zuten eguazteneko osoko bilkuran. | ARRITXU BARRUSO

Elizateetako alkateak eta Iparragirre, osoko bilkuran

Beñat Herce alkatearen dedikazioa %80koa izango da hemendik aurrera

M.B. | ESKORIATZA

Elizateetako eta Lete auzoko alkateekin hasi zen eguazten arratsaldean egindako osoko bilkura; haien izendapena egin zuten han. Honakoak dira alkate berriak: Apotzagan, Juan Mari Lezeta;

Bolibar-Ugazun, Mikel Gotzon Ortueta; Gellaon, Ana Rosa Iregi; Marinen, Alberto Letona; Mazmelan, Iban Diaz; Zarimutzen, Ane Gaztañaga; Mendiolan, Ane Miren Arrese; eta Leten, Monika Madinabeitia.

Horretaz gainera, Beñat Herce alkatearen dedikazio portzentajea aldatzea aho batez onartu zuten udalbatzarrean. Dedikazio osoa izan beharrean %80ean egongo da hemendik aurrera alkatea. Astelehenetik eguenera

bitartean Udalean jardungo du eta egubakoitzean, bere lehengo lanean; hain justu, Oñatiko Enpresagintza Fakultatean. Haren orde, Leire Urtzelai (Bildu) zinegotzia izango da egun horretan.

Aurretik txanda eskatu

Horren harira, alkatearekin harremanetan jartzeko asmoa duten herritarrek jakin behar dute kome-ni dela aurretik eskatzea txanda, udaletxera zuzenean joanda edo 943 71 44 07ra deituta.

Bestalde, Marixol Iparragirre preso eskoriatzarraren alde Eskoriatzako presoan aldeko taldeak aurkeztutako mozioa onartu egin zuten osoko bilkura berean: Bilduren zinegotzien aldeko botoa, Elizatekoen abstentzioa eta PSE-EEren kontrakoa. EAJ eta EB-Berdeak taldeetako zinegotziak ez ziren osoko bilkuran izan.

Moizo horretan, Iparraregiren egoerarengatik "ardura" agerian utzi eta haren oinarritzko eskubideak errespetatuak izan daitezen eskatzen da. Bada, mozioaren edukia, besteak beste, preso dagoen Lyon Corbas espetxeko zuzendaritzari eta Espainiako Barne eta Justizia Ministeriora bidaltzea onartu zen.

DBHko lehenengo mailakoei ongietorria herriko gaztelekuan

Ikasturte berriari ekingo diote gaur, egubakoitza, herriko gaztelekuan. DBHko lehenengo mailako neska-mutilei ongi-etorria egingo diete. Ekintzak ez dira hor amaituko: bihar, zapatua, jokoak eta merienda izango dituzte guztiek; eta domekan, oster, mahai futbol txapelketa egiteko asmoa azaldu dute gazteek.

Erretiratuendako omenaldian 200 lagun inguru espero dituzte

Urtero moduan, 65 urtetik gorako eskoriatzarrei omenalditxoa egingo diete etzi, domeka. Egitaraua ere urterokoa da: salda (11:00-12:30), meza (12:30) eta bazkaria (14:00). Udal Pilotalekuan egingo duten bazkari horretan 200 lagun inguru batuko dira. Bazkalostean, herriko zaharrenek oparitxoa jasoko dute.



Zapatu goizetan izango dira eskolak. | GOIENA

Patinaje ikastaroak daude ume eta nagusiendako urrian

M.B. | ESKORIATZA

Kultura etxeak gertatuta, bi patinaje ikastaro izango dira urriko zapatuetan. Umeei zuzendutakoa 10:00etatik 11:30era egingo dute eta helduena 11:30etik 13:00etara. Prezioa 20 euro da.

Interesa dutenak kultura etxera zuzenean joan daitezke, edo 943 71 46 88 zenbaki telefo-

nora deitu edo kultura@eskoriatza.net e-postan izena eman. Ordainketa kultura etxean egin daiteke edo dirua honako kontu korranteetan sartu: 2101 0038 56 0000089201 edo 3035 0044 85 0440900025. Ohartarazi dute ordainketa egin arte matrikulak ez duela baliorik izango eta plazak mugatuak direla.

Deba ibaia garbitzen ibiliko dira gaur Almen guneko 70 neska-mutiko inguru

Unibertsitate eta Santa Marina plaza arteko zaborra jasoko dute

M.B. | ESKORIATZA

Mugikortasun Astearen harira, Erreka Eguna egingo dute gaur Eskoriatzan. Aurten Almen guneko 70 ikasle inguruk hartuko dute parte. Deba ibaian ibiliko dira zaborra batzen, Huheziko unibertsitatetik Santa Marina plazaraino doan tartean.

Iaz ere Erreka Eguna Mugikortasun Astearen barruan egiteko asmoa zuten, baina, eguraldia zela-eta, irteera atzeratu egin behar izan zuten, eta, hortaz, aste hartatik kanpo geratu zen. Aurten, berriz, ematen du eguraldia lagun izango dutela.

Irteera horretan 5. mailako umeek hartuko dute parte, 11 eta 12 urte bitartekoek. Herriko Plazan egin dute hitzordua, 10:00etan. Bost taldetan banatuko dituzte haurrak eta jarraian, zuzenean jaitisiko dira ibaira. Hain justu,



Joan den urtean egindako irteera. | ESKORIATZAKO UDALA

Deba ibaian sartuko dira aurten, unibertsitate eta Santa Marina plaza arteko ingurunean.

Batzuk ibaian dauden bitartean, bosgarren talde bat kanpoan geratuko da, jasotzen joaten diren

zaborrak jasotzen eta antolatzen.

Bestalde, hilaren 30ean, egubakoitza, patin gaua egingo dute. 22:00etarako egin dute hitzordua, plazan.



Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna



**Ondo ibili
jaixetan!**

- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.



Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51



Erregional preferente taldeko kideak AKEko presidentearekin batera. | MARI PAZ UGALDE

Hiru talde izango ditu aurten AKEk

USOA AGIRRE | ANTZUOLA
Antzuola Kirol Elkarteak gizonen hiru talderekin ekin dio denboraldi berriari: erregional preferentekoa, lehen mailako kadetea eta infantil mailakoa. Alebin eta benjamin mailetakoa ere badaude, baina horiek eskola kirolean sartzen dira; ez dira federatuak.

Iaz nesken taldean aritu zirenek kadeteetan jokatu behar zuten aurten, adinagatik, eta maila horretan zortziko futboleko txapelketarik ez dagoenez talde barik geratu dira. Izan ere, 13k bakarrik eman dute izena.

Erregional preferente mailako taldearen entrenatzailea Juanina Garai da; kadeteen entrenatzaileak, Igor Larrea, Ibon Urtzelai eta Ibai Zabalo; eta infantilenak, Mikel Asensio eta Mikel Gartzia.

Partidu bat aste bukaeran
Preferenteko taldeak Oriokoren zelaian jokatuko du hirugarren jardunaldia zapatuan, 16:30ean. Kadeteek atsedenaldia dute bigarren jardunaldian.

ERREGIONAL PREFERENTEA

- Jon Iturbe
- Unai Ormaetxea
- Josu Asensio
- Ekaitz Olalde
- Jabier Berraondo
- Asier Longares
- Aitzol Iturbe
- Julian Ramirez de Okariz
- Josu Zubikarai
- Iñaki Agirre
- Aitor Godoy
- Kepa Etxaniz
- Carlos Fente
- Julen Losada
- Jon Linazisoro
- Mikel Fernandez
- Iker Cabrera
- Jon Gurutz Godoy
- Ibai Zabalo
- Nicolas Jimenez
- Ismael Navas
- Jon Pagaldai
- Mikel Jimenez
- Entrenatzailea: Juanina Garai

INFANTILAK - ZORTZIKO FUTBOLA

- Jon Mata
- Xabier Iparragirre
- Jon Etxezarreta
- Facundo Jimenez
- Beñat Kortabarria
- Unai Larrea
- Toheed Tariq
- Aritz Etxabe
- Aiert Kerejeta
- Kepa Altube
- Jon Cotillas

LEHEN MAILAKO KADETEAK


- Iker Altube
- Josu Aiausti
- Ander Aranburu
- Dean Arbulu
- Iker Gardoki
- Ander Fernandez
- Unai Kortabarria
- Izortz Arozena
- Endika Cabo
- Paulo Garitano
- Julen Gorosabel
- Aitor Gorosabel
- Julen Urresti
- Rui Miguel Rodrigues
- Jesus Mari Prado

Antzuolarrek egin dute Gpuntua lehiaketako sintoniaren letra

U.A. | ANTZUOLA
Aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sintonia egin du Elkano Browning Cream taldeak eta doinu horren letra Antzuolako Sasibertsolaixak Bertso Eskolakoek idatzitakoa da. Abestia ardatz hartuta letra berriak sortzeko lehiaketa egin zuten Gipuzkoako Bertso Eskolen artean, eta Antzuolakoena aukeratu zuten. Gari abeslariak jarri dio ahotsa kantuari. Bideo-klipa egin dute eta antzuolarrak

dira protagonistetako batzuk bertan. www.gpuntua.com web-gunean dago.

Bertsotarako lagun taldea
2009an herrian egin zen bertso-ikastaroan eman zuten izena eta Iñaki Gurrutxaga Orioko bertsolaria irakasle zutela ekin zioten bertsolaritzarekiko zale-tasuna lantzeari. Ikastaroa amaitu zuten, baina bertsotarako lagun talde moduan aritzen dira gaur egun.



Bertso eskolako bost kide; zazpi lagun aritzen dira normalean. | USOA AGIRRE

Gazte txokorako hezitzaileak behar dituzte eta urriaren 5a da izena emateko azken eguna

Gazte txokoa azaroan zabalduko da eta kurtso berrirako hezitzaileak behar dituzte. Hauek dira baldintzak: euskaraz jakitea; 18 urtetik gora izatea; antzuolarra izan edo bertan bizi izatea; eta begirale titulua izatea eta lan-esperientzia baloratuko dira. Hona bidali behar dira curriculumak urriaren 5erako, datu guztiekin batera (esperientzia, izena, adina...): gazteantzuola@hotmail.es.

Eskulanetan izena emateko epea luzatu egin dute; irailaren 30era arte egongo da aukera

Eskulanak egiteko bi talde egongo dira: eguenetan, 14:30etik 16:30era (dagoeneko beteta dago talde hau); eta astelehenetan, 14:30etik 16:30era edo 18:00etatik 20:00etara. Astelehenean aukera bi horiek jarri dira, eta jende gehienak aukeratzen duen orduan izango da. Ikastaro hasiera urriaren 3an izango da, astelehena. Edurne Uribealgo izango da irakaslea eta hileko kuota 24 euro izango da.

Kontsumo astea egingo dute erretiratuen elkartean urriaren 3tik 7ra bitartean

Urriaren 3an, argindarrari eta gasari buruzko hitzaldia izango da eta hurrengo egunean, urriaren 4an, horren gaineko tailerra. Urriaren 5ean, berriz, produktuen bermea eta laguntza tekniko-ko zerbitzuak izango dira hizpide; 6an, horren gaineko tailerra egingo da. 17:00etan hasiko dira guztiak. Bukatzeko, urriaren 7an, Donostiako Kristina Enea parkera irteera egingo dute.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Oier Kortabarria | Orixol mendi elkarteko presidentea

"Kanpotik jende asko etortzen da martxara; hori oso polita da"

- Duela 15 urte Perun hildako Aitor Aranaren omenezko mendi martxa bihar
- 07:30ean eman behar da izena, bihar bertan; zortzi euro ordaindu behar da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Bost urte daramatza Oier Kortabarria (Aramaio, 1983) Orixol mendizale elkarteko presidente lanetan. Zapatuan egingo den Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia urteko hitzordu garrantzitsuen eta arrakastatsuen da euren artean. Egun bereziaren gainera berba egiteko egon gara harekin.

15 urte beteko ditu aurtur mendi ibilaldiak. Nola sortu zen?

6.646 metroko Peruko Huascaran mendian hil zen Aitor Arana mendizale aramaiarra gogoratzeko martxa da. Hil zenetik urtero egiten dugu, irail amaieran. Aldaketa txikiekin bada ere, ibilbidea urtero aldatzen dugu. Aramaioko eta inguruko tontor garrantzitsuenetatik pasatzen gara.


Zein izango da aurtengo ibilbidea?
Ibarratik irtengo gara, kiroldegitik: Barajuen, Asensiomendi, Jarindo, Marixeka, Orixol eta Zabalaunditik pasa ostean buelta egingo dugu kiroldegira. 30 eta 40 kilometro artean izango

dira guztira eta erritmo normalan zazpi orduan egiteko da, gutxi gorabehera. Izan ere, nork bere erritmora joateko aukera izango du. Ibilbide osoan zehar jatekoa eta edatekoa egongo da hiru puntutan: Kurtzetan lehen, Marixekan bigarrena –eta pot-

loena– eta Zabalaundin azkena. Postu horietako bakoitzean jarriko diogu zigilua mendizale bakoitzari eta amaieran diploma bat banatuko zaie.


Nolako harrera izan ohi du mendi ibilaldiak?

Eguraldiaren arabera da,



Oier Kortabarria, kartelarekin. | J.B.

ZAT MAPA PLANO



HIRU ATSEDENALDI
Jateko eta edateko hiru puntu, ordena horretan: Kurtzetan, Marixekan eta Zabalaundin.

ORIXOL ELKARTEA

Andoni Solupe: "Auzotarren gehiengoaren beharrak asetzeko lanak izan dira"

Uribarren familia ez dago ados Etxaguengo bide publikoen berritzeko Udalaren proiektuarekin

A.T. / J.B. | ARAMAIO

Etxaguen auzoko proiektuen artean dago gune bateko zorua berritzea. Proiektua gauzatzeko, Udalak sei familiaren lursailen eremu zati bat desjabetu du. Bada, bost familiarekin akordioa egin dute eta desjabetzeak sinatu dituzte, baina Uribarren familiarekin ez dute akordiorik egin. Uribarrenrendarrek diote auzoan bada goela errepede nagusi bat eta egokitu nahi duten bide hori bigarren mailakoa dela.

Kortak dituzte egokitu nahi duten errepedearen bi aldeetan eta uste dute lanok orain arteko ganadu eta baserri jarduera galaz egingo dietela. Hain zuzen, euren eskatzen dute lau metroko bidea egin beharrean hiru metro eta erdikoa egitea, horrela, gutxienez euren traktorearendako lekua izateko, besteak beste.

"Auzotarrek eskatu dute"

Bestalde, Hirigintza zinegotzi Andoni Solupek azaldu digu Udalak bere garaian hartu zuela erabakia auzoetako bide publi-

koetan errepedeek lau metroko zabalera izan behar dutela, autoek gurutzatzeko lekua izan dezaten: "Obra gauzatzeko dirulaguntza garrantzitsua jaso dugu eta laguntza horiek epe bat dute. Horregatik, behartuta ikusi dugu geure burua desjabetzeak egitera. Auzotarrek eskatu dute eta lanekin Etxaguengo auzotarren behar hori asetzeko da asmoa", gaineratu du.

Uribarren familiarekin akordiora iritsi ez izanaren arrazoi nagusia negoziazio prozesu luzea dela dio Solupek. Ia bi urte daramate kontu horrekin eta 800.000 euro inguruko dirulaguntza dute, baina laguntza hori jasotzeko epeak bete behar dituzte. Esan digute argi utzi nahi dutela desjabetze horiek ez dutela eraginik Uribarren familiakoen azpiegiturretan.

Oraingoz, beraz, auzotar gehien oniritzi egingo ditu lanak Aramaioko Udalak. Bestalde, jakinarazi du aurtur esleituko dituztela obrak eta epeetan sartuko direla 800.000 euroak egoki inbertitzeko.

Fiachras taldearen folkaz gozatzeko aukera egongo da gaur Sastiñan (20:00)

Iraileko egubakoitzak zuzeneko musikaz girotzeko apustuaren barruan dago kontzertua

J.B. | ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak iraileko antolatutako Sastiñako egubakoitzetako kontzertuak aurrera doaz. Gaur, Fiachras taldearen txanda da. Folk doinuak nagusi dituen taldeak Bergara du topaleku nagusi eta Aitor Aldanondo bergararrak eta Haritz Artola lazkaotarrak –Brigada Criminal talde ohiko kideak– gidatzen dute taldea. Musikari onak izateaz gain,

hitz landu eta ezberdinak egiteagatik egin dira ospetsu, besteak beste.

Datorren egubakoitzean, bestalde, Adunia taldeak eskainiko du kontzertua. Hauek ere folka egiten dute.

Eguraldia ona bada, kanpoan

Eguraldi ona egiten badu Sastiña kanpoan izango dira kontzertuak; ez badu laguntzen, berriz, barruan.



Fiachras-ek jende askotxo mugitzen du; ea gaurkoan ere hala den | GOIENA

neurri handi baten. Hala ere, guretako oso polita da ikustea kanpotik jende asko etortzen dela. Urteak egon dira ia 200 mendizale elkartu ditugula. Batzuk urtero etortzen dira, edozein eguraldi egiten duela. Paraje politikak dira eta ondo dago antolatuta; pentsatzen dut horrek erakarriko dituela. Iaz oso eguraldi txarra egin zigun, eta, hala ere, 50 bat elkartu ginen.

Zer egin behar da izena emateko?

Egunean bertan eman beharko da izena, irteera baino ordu erdi lehenago. Hau da, 07:30ean. Zortzi euro ordaindu beharko da.

Bide batez, aprobetxatuko dugu Orixol elkartearen gainera berba egiteko. Nola dago osasunez?

Mendizaletasuna eta Orixol elkartearen zuzendaritza taldea belaualdiz belaualdi transmititu da. Aurrekoan saiatu ginen elkarrekin noiz sortu zen asmatzen, nagusienei galdetuta. Bada, ez dakigu kopuru zehatza, baina 40 urtetik gora baditu.

Guk bost urte daramatzagu zuzendaritza taldean eta orain, tamalez, ez da errelebu argirik ikusten. Gustura gabiltza eta, oraingoz, guk jarraitu beharko dugu.

"Gustura gabiltza, baina tamalez ez dugu errelebu argirik ikusten"

Mikel Ruiz de Azua eta Ilia Etxebarria, postal lehiaketako irabazleak

Txirritola euskara elkarteak eman ditu aditzera posta lehiaketako irabazleak: Mikel Ruiz de Azua eta Ilia Etxebarria dira eta asteburu bat irabazi dute Nafarroako landetxe baten. Bestalde, Txirritola egunera joan zirenei eskerrak eman gura dizkiete antolatzaleek, izan ere, Aramaioko bertako jendeaz gain, kanpotik ere hurbildu zen jendea.

Eta noski, eguna aurrera ateratzeko lagundu zuten guztiei ere eskerrak eman gura dizkiete.

Irailaren 27ra arte eman daiteke izena euskara ikastaroetan

Udalak euskara ikastaroak antolatu gura ditu. Lehen, hastapen ikastaroa, azken hiru urteetan parte hartu dutenendako da batez ere. Bigarren ikastaroa da alfabetatze-maila lantzeko eta hiru garrena, azkenik, Mintzaleguna programa praktikan oinarritutako ikastaro bat da. Ikastaro guztiak udaletxean bertan ematea da asmoa. Interesatuak irailaren 27a baino lehen eman behar dute izena. Udaletxera bertara joanda edo telefonoz deituta (945 44 50 16) eman daiteke izena.

ELGETA

Urrian domekero egingo dute bisitaldi gidatua lubakietara

Udalak sei hilabeterako turismo teknikari lanpostua sortu du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Urriaren 4an 75 urte beteko dira Elgetako frontea ezarri zela. Urrian hasi eta apirilera arte gerra latza izan zen Intxortaren magaleko lubakietan. Bertan gertatutakoak ez ahazteko gune oso bat berreskuratu da eta antolatutako bisita gidatuek harrera ona izan dute. Abuztuan eta iraillean aurreikuspen guztiak bete dira eta antolatutako bina bisitaldi gidatueta jendea kanpoan geratu da. Izandako arrakasta ikusirik, Elgetako Udalak bisitaldi gidatuen maiztasuna handitzea erabaki du. Domekan, irailak 25, egingo dute iraileko azken bisitaldi gidatua eta urrian domekero egingo dituzte.

Maiatzean bete zen urtea Elgetako Udala, Intxorta 1937 kultura elkartearen eta Debagoieneko Mankomunitatearen babesarekin, ingurua atondu, zabaldu eta eza-



Pablo Beldarrainen omenezko oroitarria kaltetu dute, beste behin. | L.Z.

gutzero emateko bisitaldi gidatuak antolatzen hasi zela. Lubakiak, gotorleku bat eta *La Belga* izeneko gunea daude ikusgai. Bisita nork bere kabuz ere egin dezake; ibilbidea seinalizatuta dago

eta azalpenak eskaintzen dituzten panel informatiboak daude.

Bisitaldi gidatuei dagokienez, hiru bat orduko iraupena dute eta 10:00etan abiatzen dira Espaloia kafe antzokiko interpretazio

-gunetik. Taldeko 30 pertsona onartzen dituzte; horregatik, ezinbestekoa da aldeaz aurretik izena ematea 943 79 64 63 telefono zenbakian.

Oroitarria kaltetuta

Kaltetuta ageri da, berriz ere, Asentzioko bidegurutzean dagoen Pablo Beldarrainen omenezko oroitarria. Bertan, 1936ko urritik 1937ko apirilera bitarteko frontea gogoratzen da. Pinturarekin zikindu zuten duela astebete, eta ez da lehenengo aldia. Udaletik adierazi dute garbitu egingo dutela.

Turismo teknikari lanpostua

Udalak, bestalde, turismo teknikari lanpostua sortu du. Interesatuek urriaren 3rako bidali behar dituzte curriculumak. Elgetan edo Debagoienean errol-datuta egotea baloratuko da, baita bisitaldi gidatueta esperientzia izatea, gerran Elgetan gertatutakoaren gaineko ezagutza edukitzea eta hizkuntzak menderatzea. Lanaldi osoko sei hila-beterako kontratua eskaintzen da. Domeketan bisitaldi gidatuak egiteaz gainera, administrazio eta harrera lanak ere egin behar-ko dira.

Berrikuntza nabarmenekin dator 'Herrixa dantzan'

L.Z. | ELGETA
Gero eta jende gehiago batzen du Elgetan *Herrixa dantzan* ekimenak, eta domekan hasiko den ikasturterako proposamen berriak egiten dizkigute antolatzaileek. Ohiko ordutegia eta egutegia izango ditu ekimenak, baina bi atal ezberdinek osatuko dute: lehenengo zatian, taldeko dantzak erakusten jarraituko du Patxi Monterok. "Dantza berriak probatzen joango gara (...) Lehenengo saio honetan Waloniako kontradantza erraz eta politak", adierazi du.

Bigarren zatian, Adolfo Jainaga trikitilariak hartuko du lekukoa. "Bikotean dantzan egiteko piezak joko ditu; balsak, mexikarrak, pasodobleak, habanerak, mazurka...". Domekako hitzordua 19:00etan da, sarrera librearekin.

Sisters taldeak irabazi du aurten tortilla lehiaketa

L.Z. | ELGETA
Tortilla lehiaketa jendetsua izan da aurten ere Elgetan. Irabazleak Sisters taldekoak izan dira. Epaimahaikoen iritziz, zapore hoberena zuen tortilla egin zuten. Hori bakarrik ez, itxura onena ere haien tortillak zuen.

Goizean, berriz, baserritarrek urteroko azoka egin zuten plazan. Hamabi postu egon ziren, iaz baino bat gehiago. Eguraldia ez zuten lagun izan, baina apurka-apurka salmentak egiten joan ziren. Azulako artzainak, esaterako, azokara eramandako 35 gaztak saldu zituen eta jendea gehiago erosteko gogoz geratu zen. Eta domekan gustura ibili ziren motorzaleak, festa egun polita egin zuten.

SAILKAPENA

	TALDEAK	ZAPOR/ITXURA
01	Sisters	23 24
02	Alaior	20 18
03	Arrimauak	20 16
04	Faka faka	18 20
05	Bikote ona	18 18
06	El eKipo A	17 21
07	Txirikil gazte lekua	17 17
08	Zartainkada	16 23
09	90.210	16 17
10	Pintx-e-roak	16 12
11	Millonarixuak	15 19
12	The Ibarlu's	15 16
13	Intxortako lehoiak	15 12
14	Latza	14 20
15	Bildu	14 20
16	Buelta ta buelta	14 17
17	2-B	14 14
18	Tsas-tsas	13 16
19	Elgetako gaztetxia	13 15
20	Sistemak	11 15

ITURRIA: ELGETAKO GAZTETXEA



L.Z.

Haurrek ere berrerabiltzen dute

Merkatu txikia egin du neska talde horrek asteon plazan. Aspaldian erabiltzen ez dituzten jolasak zakarrontzira bota beharrean plazan salgai ipintzea pentsatu zuten, baita egin ere. Gustura agertu ziren. "Jendea etorri da eta zenbait gauza saldu ditugu. Gauza txikiak dira, baina besteren batek erabil ditzake". Ez ziren aberastu, baina akaso beste jostailuren bat erosteko aukera emango die batutako diruak.

LEINTZ GATZAGA

Urriaren 3an zabalduko dituzte ateak ludotekak eta liburutegiak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Gurel guraso elkartearen ardurapean dauden ludotekak eta liburutegiak urrian hasiko dute ikasturtea. Garro jauregian dute egoitza biek eta urriaren 3an, astelehena, zabalduko dituzte ateak. Ohiko zerbitzua eskainiko dute; ikasturte hasierarako ez dute iragarri berrikuntzarik.

Aurreko ikasturtean legez bi orduz egongo dira zabalik aste egunetan (17:00-19:00), eta 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoek izango dute lekua bertan. Gatzagan, baina, guztiek ezagutzen dute elkar eta interesa duen edonor onartzeko gertu daude.

Begirale lanetan Garazi Oro-bengoak jarraituko du, eta ikas-

turtea aurrera doan heinean beste baten laguntza behar duen edo ez hausnartuko dute.

Gaztetxoendako ekimenak

Umeendako ez ezik gaztetxoendako ere antolatu gura dituzte ekimenak Gureleko kideek, nahiz eta datak zehaztu barik izan oraingoz. Batetik, mendiko orientazioaren gaineko ikastaroa dago –atzeratu egin dutena–, mendian zelan ibili ikas dezaten. Eta bestetik, paintballean jokatzera joateko asmoa dute.

Atzeratu egin dute mendiko orientazio ikastaroa

Mendian zelan orientatu ikasteko saioak ziren egitekoak aste bukaeran, bihar eta etzi, Gurel guraso elkarteak antolatuta, baina, hainbat arrazoiengatik, bertan behera utzi dute.

Aurrerago egingo dutela iragarri dute antolatzaileek, baina datarik ez dute zehaztu, oraingoz.

Astelehen arratsaldean dinamizatzailea izango da KZgunean

Astelehenean, hilak 26, etorriko da Aitor Madrid dinamizatzailea Gatzagako KZgunean (16:00-20:00). Hainbat ikastaro egiteko aukera eskainiko du, gehienak bi ordukoak: sare sozialak, Google-ek eskaintzen dituen tresnak... Horrez gain, zalantzak argituko ditu eta Interneten ibili ahal izango dute herritarrek.

SASKIBALOIA

Lagun Aro GBCK atzetik aurrera egin zuen Manuel Muñozen oroimenezkoan

Kiroldegiko harmailetan jende asko batu zen Gipuzkoako talde nagusiko jokalaria ikusteko

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA
Manuel Muñozek beste behin lortu zuten saskibaloia onena Eskoriatzara ekarri eta kiroldegiko harmailak betetzea, baina, oraingoan, klubeko ordezkarien lanari esker. Eskoriatzako presidente zenak lagun handiak zituen Donostian, eta, hain zuzen, eskoriatzarrek Gipuzkoako hiri-burutik jaso zuten Manuel Muñozen omenez denboraldi-aurreko partidu hori jokatzeko proposamena. Eta Javi Corvalek aitortu moduan, eurak pozarren: "Goza-

mena da horrelako partidu bat antolatzeko lan egitea. Ez gara zorrotz kontatzen ibili, baina 300-400 sarrera salduko genituen, kostuei aurre egiteko adina".

Kantxan liga aurreko partidu ohi bat ikusi zuten zaleek: erritmo falta, fisikoki oraindik landu gabe eta tarteka, tarteka bakarrik, saskibaloia ona.

Bakarkako jokaldietan

Gipuzkoa GBCK laugarren laurdenean egin zuen erreakzioa, ordura arte jokalaria noraiezen

ibili ziren-eta, Valladoliden menpe: defentsan adostasunik ez, eta erasoan motel. Makal hasi ziren Sito Ponsen mutilak (10-27). Bigarren laurdenean ere kanpotarrak gehiago izan ziren; gipuzkoarrak hirugarrenean hasi ziren esnatzen, batez ere Panko, eta laugarrenean lortu zuten arratsaldea zuzentzea (58-52). Ikuskizuna ez zen partiduarekin amaitu, ondoren zaleek jokalariekin nahi beste erretratu atera zituzten-eta; Eskoriatzako taldeko neskek ondo aprobetxatu zuten aukera.



Andy Panko Valladolideko jokalaria gaingitu berri.



Lagun Aro GBCKo taldekideak bat eginda.



Manuel Muñoz kiroldegiko harmailak jendez bete ziren.



Uriz eta Panko partidu amaieran.



Lagun Aro GBC eta Valladolideko Blancos de Rueda taldeetako jokalaria, talde argazkian.



Javi Salgado gaztetxoei sinadurak egiten.



Sito Alonso aginduak ematen.



David Doblas —eta haren zapatilatarrak— zale eskoriatzarrekin.



Panko bizkarrez jokoa antolatzen, eta kontrarioa adi. | IMANOL SORIANO

FUTBOLA

Bergarak derbian lortutako puntua borobildu nahi du zapatuan Urola mendean hartuta, Agorrosinen

X.U. | ARRASATE
Debagoieneko ohorezko erre-gional mailako ordezkarietako batek ere ez du liga hasiera ikusgarriarik egin, baina Are-txabaleta azaldu da indartsuen. Juanan Cruzen taldea ondo indartu da, baina, joan den astean Bergararen kontra ihes egindako garaipenak eragotzi du hasiera bikaina.

Hain zuzen, Bergarak petro-lia lortu zuen derbiko 90. minu-tuan, eta etxetik kanpora lor-tutako puntua etxeko garaipen batekin osatu nahi dute aste-buruan. Mahoneroek Urola

izango dute aurrean zapatuan (17:30); zumarragakoez ere ez dute hasiera bikainik egin.

Gainontzekoak kanpoan
Hain zuzen, ligan oraindik pun-turik batu ez duen Elgoibarren kontra jokatuko dute aretxaba-letarrek (domekan, 16:00).

Mondra eta Aloña ere ez daute etxafuegoak botatzeko. Zuri-moreek Hondarribian joka-tuko dute domeka arratsaldean (16:30), eta Azkargortaren Pasaia izango dute kontrario bihar (16:30). Azken horiek bai hasi dute liga ondo, lider dira.



Cabanillas Tolosaren kontrako partiduan. | JULIO CALLEJA



Aurkezpenean Antxintxiketanez, ESAITeko, Hanka Labankako eta Oñatiko Udaleko ordezkariaz. | AMAIA TXINTXURRETA

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati proba berrikuntzekin dator

Korrikalariez gain, aurten lehen aldiz patinatzaileek ere esku hartu ahal izango dute lasterketan

XABIER URTZELAI | OÑATI
Antxintxiketan atletismo taldeko lagunek eguaztenean aurkeztu zuten urriaren 8an (17:00) egingo duten Arrasate-Oñati lasterketa. Antolatzaileek bultzada ederra eman nahi diote proba honi, eta

hasteko, aurten patinatzaileak ere gonbidatu dituzte. Hala, 125 dortsal gordeko dituzte patina-tzaileendako, eta erdiak dagoe-neko eman du izena. Korrikala-riei dagokienez, aurreko urtean 340 lagun animatu ziren eta aur-

ten ez dituzte gutxiago espero. Hala, izena aurrez ematea gomen-datzen dute, www.kirolprobak.com webgunean.

Autobusa egongo da
Antxintxiketanezko lagunek gogo-rarazi zuten irteera eta helmuga lekua herri desberdinetan dau-denez parte-hartzaileei gauzak errazte aldera, autobusa jarriko dutela Oñatitik Arrasatera; las-terketa hasi baino ordubate lehe-nago egongo da autobusa. Eta erabiltzen dutenek, 2 euro gehia-go ordaindu beharko dute.



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> **FORD FOCUS**
2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- **Ford Galaxy TDCI** 24.900 €
2010 | Diesela | Zilarra | 20.000 Km
- **Ford Mondeo 1.8 TDCI** 19.800 €
2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- **Ford Focus TDCI 115 ZP 6 abiadura** 17.500 €
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- **Peugeot 307 1.6 110 ZP** 9.800 €
2007 | Diesela | Zilarra | 35.000 Km.
- **VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP** 15.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- **Ford Focus TDCI 140 ZP** 19.800 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- **Ford Transit Nugget 2.0 TDCI** 41.500 €
KM 0 (Berria) | Diesela | Zilarra edo aukeran
- **Ford Focus TDCI 110 ZP** 10.500 € €
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- **Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP** 24.900 € €
2010 | Diesela | Beltza | 27.000 Km
- **Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP** 24.400 € €
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km



28.700 €

> **Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT**
2010 | Diesela | 29.649 Km



- **Audi A3 1.9 TDI E DPF ATTRACTION** 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- **Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP** 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- **Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65** 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- **Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC** 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- **Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPF** 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- **Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE** 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- **Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPF REFERENCE ST** 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- **Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE** 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- **Skoda Scout 2.0 TDI Quattro** 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- **Seat Leon 1.6 TDI 105** 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



16.000 €

> **Citroen DS3 HDi 90**
2011 | Diesela | granatia/beltza | 2050 Km



SAN ANDRES AUZOA 5.
ARRASATE
TEL.: 943 79 45 22.



Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- **Citroen Berlingo HDi 110 XTR** 15.500 €
2010 | Diesela | Gris argia | 45.725 km
- **Citroen Berlingo HDi 110 XTR** 15.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 51.060 km
- **Citroen Berlingo HDi 110 XTR** 15.800 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 46.800 km
- **Citroen C4 16 Vti 120 COOL** 9.500 €
2009 | Gasolina | Txuria | 33.150 km
- **Grand C4 Picasso MILLENIUM CMP 110** 22.000 €
2011 | Diesela | Gris Aluminium | 700 km
- **Citroen DS4 Style eHdi CMP 110** 24.250 €
2011 | Diesela | Hyckori | 4.000 km
- **Citroen C1 Audace Stop&Start 1.0** 6.500 €
2009 | Gasolina | Gorria | 33.600 km
- **Hyundai Getz 1.1** 2.500 €
2003 | Gasolina | Txuria | 71.250 km
- **Hyundai i30 16CDiRi 90** 12.500 €
2010 | Diesela | Txuria | 10.500 km



Jatetxe Gida



Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Egunekeo menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegi txokoa.

Egunero zabalik



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Sorluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Egunekeo menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza www.errekajatetxea.eu

- Egunekeo menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Egunekeo menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeretan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa, ... egur labeen enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independentea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Sorluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79

Eskaintza www.sorluzeostatua.es
info@sorluzeostatua.es

- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Egunekeo menuak.

Domeka gauean itxita



Unzueta sagardotegia

Zabola z/b / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataioak, jaunartze eta kintadak.

Egunero zabalik



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Egunekeo menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

KULTURA

Galderen bitartez hausnartu

- 'Uzten al du zientziak Jainkoarendako lekuri?' erakusketa Harresi aretoan dago ikusgai
- Luis Ledo Regal kazetariak egindako 40 panelez osatuta dago erakusketa

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Uzten al du zientziak Jainkoarendako lekuri? izeneko erakusketa ikusgai dago Arrasateko Harresi aretoan. Iniciativa Atea elkarteak dago erakusketaren atzean, eta Arrasateko Udalaren laguntza izan dute Arrasaten erakusketa antolatzeko.

Erakusketaren helburua da Elizak ezartzen duen pentsaeraz gain beste pentsatzeko modu batzuk eta beste ideia batzuk ere badaudela azaltzea.

40 irudi eta idatzi

Helburu hori lortzeko 40 panel jarri dituzte ikusgai Harresi aretoan. "Luis Ledo Regal kazetariaren idatziak dira, eta panelak osatzeko *El Jueves* aldizkariko Jose Luis Martinen irudiak erabili dira", azaldu du Ambrose Goikoetxea.

"Panelak dituzten idatzietan galderen bitartez hainbat gai lantzen dira: Eliza, Aita Santua, gizakiaren eboluzioa... umore puntuaz jorratzen ditugu gaiak", dio Goikoetxea.

Beste pentsaera eta ideia batzuk ere badaudela erakustez gain, Iniciativa Ateak uste du Elizaren eta Estatuaren artean banaketa egon beharko lukeela: "Gure ustez, erlijioak librea izan behar du eta horregatik garrantzitsua da Elizaren eta Estatuaren arteko banaketa". Gaineratu du Elizak eta haren dotrinak etxe barruko kontuak izan beharko luketela, eta "ez eskolan, unibertsitatean eta leku publikoetan" erakustekoak.

Horren harira, Goikoetxea dio Aita Santuak Madrilera egin zuen azken bisitan han izan zirela, beste hainbat elkartetako kideekin batera: "Aita Santuaren bisita Estatuak ordaindu izanaren aurka gaude; gura izanez gero, etor dadila, baina ez Estatuaren diruarekin".

Lehenengo aldiz Arrasaten

Luis Ledo Regal kazetariak osatutako erakusketa Santiagon inauguratu zuten lehenengo; eta ondoren Vilagarcia de Arousan jarri zuten. Gurera eta Euskal Herrira datorren lehenengo aldia izan da Arrasatekoa, eta antolatzailerik ez zekiten nolako harreara izango zuen. Egunero 15 bat lagun pasa direla Harresitik adierazi du Goikoetxea eta ikusleen eta antolatzailerik artean hartu-eman ona egon dela.



Ambrose Goikoetxea, Harresi erakusketa gelan. | A.E.



Erakusketan dagoen irudietako bat. | INICIATIVA ATEA

Iniciativa Atea elkarteak

1998an hainbat libre-pentsalariren artean sortutako harremanaren ondorioa da Iniciativa Atea elkarteak. Internazionala eta ateoak da eta elkarte moduan 2008an eratu zuten.

Sarean du lekua elkarteak eta han ideiak eta pentsaerak trukatzeko dituzte bazkideak. Gaur egun 7.867 erabiltzaile daude erregistratuta sarean.

Goikoetxea herritarrak animatu gura ditu erakusketa ikustera: "Etor daitezela gaur 18:00etatik 20:00etara. Hemen ikusten dutenaren gainean galderak egiteko aukera izango dute. Bestalde, edozein zalantza izanez gero idatz dezatela agoikoetxea1@telefonica.net helbidera, eta erantzungo diet". Aurrerantzean ere erakusketa gurera ekartzeko asmoa azaldu du Goikoetxea.

AMBROSE GOIKOETXEA | INICIATIVA ATEAKO KIDEA

"Jendeari erakutsi gura diogu badaudela beste pentsaera batzuk"

Ambrose Goikoetxea ingeniaria da, eta baita Iniciativa Atea elkartearen kidea ere. Erakusketa prestatzen ibili da Goikoetxea. Erakusketaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Zein izan da erakusketa antolatzearen helburua?

Helburu nagusia izan da jendeari adieraztea Iniciativa Atea elkartearen jasotzen ditugun ideiak. Elkarteak internazionala eta laikoak da, eta gura duguna da jendeari erakustea badaudela beste pentsaera eta ideia batzuk. Erlijioaz gain beste pentsatzeko modu batzuk daudela erakutsi gura dugu.

Nolako harrera izan du erakusketak?

Elizak azaltzen duenaz gain mundua hausnartzeko beste

modu bat ere badagoela azaldu gura dugu. Lehenengo aldia da horrelako erakusketa bat Euskal Herrian antolatzen dena eta ez genekien zer erantzun izango zuen. Egia da oso ondo erantzun dutela herritarrek. Egunero 15 bat lagun etorri dira, eta, erakusketa ikusteaz gain, galderak ere egin dizkigute.

Zelako galderak egiten dituzte herritarrek?

Galdera asko egiten dute: adibidez, ebanjelioak egon ziren edo ez galdetzen dute. Guk uste dugu ebanjelioak ez zituela idatzi inspirazio jainkotiarrek. Ebanjelioak Judean eta Palestinan bizi ziren herritarrek idatzi zituztela uste dugu. Herritarrak animatu gura ditugu erakusketa ikusi eta galderak egitera.

Beñat Ganboa eta Amets Ormaetxe | Trikitilariak

"Hernaniko txapelketakoa puntuala izan da, bakoitzak bikotekidearekin segituko du"

- Hernaniko trikitilari gazteen txapelketa irabazi dute
- Aurten hasi dira biok txapelketetan parte hartzen

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Beñat Ganboa aretxabaletarra eta Amets Ormaetxe arrasatearra –trikitilari bikote gazteak– txapelkun geratu ziren domekan jokaturako Hernaniko trikitilari gazteen txapelketan. Lehenengo aldia zen txapelketa batean bate-

ra aurkezten zirela, eta lehen saria ekarri zuten Debagoienara 14 urteko neska-mutiko bikoteak.

Zorionak! Zenbatek parte hartu zenuten domekako txapelketan? Amets Ormaetxe (A.O.): Sei bikotek hartu genuen parte; horieta-

ko hiru Hernanikoak. Horrez gainera, erdiak 12 urtetik gorakoak. Egia esan, ez genuen askorik entseatu eta ez genuen uste lehenak geratuko ginenik; poztasunez hartu genuen saria. Txapel eta kopa bana eta 200 euro irabazi genituen.

Aurretik sarituak izan zarete?

A.O.: Aurten dagoeneko lau txapelketetan parte hartu dut. Lehenenean, hirugarren izan nintzen; bigarren, laugarren. Beñatendako lehen aldia da.

Noiztik txapelketetan?

B.G.: Aurten hasi gara biok. Abuztuan hasi nintzen ni, Azkoitian.

A.O.: Ni maiatza ezkeron nabil txapelketetara joaten.

Nolako piezak jotzen dituzue?

A.O.: Domekan, esaterako, sarre-ra, trikitia, porrusalda eta arin-arina jo genituen.

B.G.: Gainerako txapelketetan, normalean, trikitia, porrusalda, fandangoa eta arin-arina eskatzen dituzte. Domekakoan, azken bi horien artean bat aukeratu behar genuen eta guk arin-arina hartu genuen.

A.O.: Parte hartu dudana beste hainbat txapelketetan, *potpourria* moduan ezagutzen dena jo izan dut; hain justu, askotariko abesti zatiak jarraian jo.

Lehenengo aldia da bikote moduan jardun duzuela txapelketa baten, ezta?

A.O.: Hala da. Nork bere bikotekidea dauka. Ni Irati Gutierrez arrasatearrarekin ibiltzen naiz; ni baino urtebete gazteagoa da. Lehenengo hiru txapelketak harekin egin ditut.

B.G.: Nik eskatu nion Ametsi nirekin joateko Hernanira. Ni, normalean, Ainhoa Garro aretxabaletarrekin nabil. Hernaniko txapelketa 16 urtetik beharagoendako da, eta, Ainhoak 17 dituen, ezin zuen parte hartu. Nik, dena dela, izena eman nuen horretan, eta Ametsi eskatu nion pandero-jotzaile moduan nirekin joateko.

A.O.: Hernanikoa puntuala izan da, eta nork bere bikotekidearekin jarraitzeko asmoa du.

Noiz hasi zineten trikitia eta panderoa jotzen?

B.G.: 7 urte nituela hasi nintzen ni trikitia jotzen. Jo bai, baina, esan bezala, txapelketetan ez dut orain arte parte hartu.

A.O.: Orain dela bi urte ekin nion panderoa jotzeari. Ez zait zaila egiten. Trikitia zailagoa da, eta denbora luzeagoa behar du.

Zenbat entseatzeko duzue?

B.G.: Txapelketei begira gehiago entseatu behar izan dugu, baina, bestela, nik astero ordu erdi irauten duen eskola dut. Horretaz gainera, etxean ere entseatzeko dut.

A.O.: Ni uda osoan egon naiz Iratirekin entseatzeko. Bestela, astean ordubeteko saioak ditugu ikasturtean zehar.

Euskal Herriko trikiti txapelketa noizko?

B.G.: Nik parte hartu behar dut: Zaldibarren izango dut lehenengo kanporaketa.

Amaitu aurretik, agertoki gainean ala kalejiran ibiltzen zarete gusturago?

A.O.: Txapelketan urduriago zaudete, besteak beste, epailea duzula zuri begira.

B.G.: Guztiz ezberdinak dira. Kala lasaia zoz; txapelketari dagokionez, urte osoa ematen duzu horretarako entseatzeko eta urduri egoten zara.

"Gustiz ezberdinak dira txapelketak eta kalejirak; lasaia zoz kalean"

"Ez genuen askorik entseatu eta ez genuen uste irabaziko genuenik"



Ganboa eta Ormaetxe, domekan, Hernaniko parrokan. | GOIENA

Gizakion maniak aztertuko dituzte bihar Arrasaten

Organik taldearen 'Maniatic@s' lana ikusteko aukera izango da Amaia antzokian, 20:00etan

M.B. | ARRASATE

Pertsona guztiek dituzten manien gainean jardungo duen dantza ikuskizuna izango da bihar, zapatua, Arrasateko Amaia Udal Antzokian; hain justu ere, Organik taldekoek *Maniatic@s* izeneko emanaldia egingo dute, 20:00etan.

Ordubete inguruko iraupena duen lanean, esan bezala, maniak aztertuko dituzte. Alde batetik, gizakiok komunean ditugun maniak jorratuko dituzte, hala nola egunkariak atzetik aurrera sistematikoki irakurtzen dituztenak edo hozkailuan sartu aurretik produktu guztien ontziak garbitzen dituztenak. Horretaz gainera, paretan eskegita dagoen koadroa okertuta egoteak eragiten duen urduritasunaz ere jardungo dute; hain

justu, hasiera baten, ezer ez egitea erabakitzen bada ere, azkenean koadro horrengana gerturatu eta zuzen jartzeko joera dugu.

Gizarte hipokondriakoa

Horretaz gainera, mania pertsonalez gain, ondokoaz gogaitzen gaituena, eta azken finean, berezko mania bihurtzen dena ere aztertuko dute biharko ikuskizunean. Orain arte aipatutako mania guztiak gaur egungo gizarte hipokondriakoaren isla direla agerian utziko dute; tolerantziatik gero eta urrunago dagoen eta ondokoari begira etengabe dagoen gizarte da.

Natalia Mongek zuzendutako eta Pilar Andres, Eneko Balerdik eta Fernando Baradok taularatutako lana da hori.



Labayen, Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehen fasean. | GOIENA

Jokin Labayen lehiatuko da bihar Eibarko 'Gpuntu'

Gipuzkoako bertsolari txapelketako final-zortzirenak jokatu dira Coliseo antzokian, 17:30ean

M.B. | ARRASATE

Udako atsedenaldiaren ostean, abian da osteria ere Gipuzkoako bertsolari txapelketa, *Gpuntu* lemapean. Bihar, zapatua, Eibarraren izango den final-zortzirenean Jokin Labayen arrasatearrak

parte hartuko du. Kepa Isasi gai-emailea ondoan dutela, Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola, Nerea Elustondo, Felix Zubia eta Iker Osa bertsolariekin batera arituko da. Bertso-saioa 17:30ean hasiko da, Coliseo antzokian.

Animotsu topatu dugu Labayen: "Azken astea ez da samurra izaten ari, buruari bueltak ematen dizkiozulako. Baina bertsotan gustura nabil, txukun gabiltzala iruditzen zait, eta biharko saioari begira animotsu nago. Tokia, gainera, ona da". Lehiakideez arrasatearrak aipatu du "kanturako" oso bertsolari onak direla. Horren harira, hau esan du: "Elkarrekin lan egiteko onak dira".

Urko Egaña, urriaren 9an

Bestalde, urriaren 9an Irungo Amaia antzokian egingo duten saioan Urko Egaña oñatiarra lehiatuko da Iñaki Zelaia, Alaia Martin, Haritz Casabal, Manex Muxika eta Asier Sasietaren kontra. Egoitz Aizpuru oñatiarrak jardungo du gai-jartzaile moduan emanaldi horretan.

Eta Debagoienara ere iritsiko da *Gpuntu*: urriaren 22an final-laurdena egingo dute Oñatin eta azaroaren 26an, Arrasaten. Azken saio hori, hasiera baten, azaroaren 20an egitekoa zen, baina Espainiako hauteskundeak direnez, esandako egunera pasatzea erabaki du antolakuntzak.



Manu Egaña, Kepa Aranburu, Nekane Arrazola, Mikel Biain eta Juan Ramon Garai, omenaldiko kartelarekin. | M.B.

Oñatin faxisten errepresioa jasan zutenen oroimenez

36ko gerran hildakoak gogora ekarriko dituzte domekan Santa Anan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Gogoratu Guran Taldeak eta Oñatiko Udalak 1936ko gerran hildako guztiak omenduko dituzte domekan, hilaren 25ean, 19:00etan. Hildakoen senitartekoak gonbidatu dituzte Santa Anan egingo duten ekitaldira. Gainera, Kepa Aranburuk egindako *Gerra-*

ko garrak Oñatin ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute. "Ekitaldi xumea, pertsonala izango da", esan du omenaldiaren aurkezpenean Mikel Biain alkateak. "Oñati izan zen Gipuzkoan errepresio handiena jasan zuen herria: 737 oñatiar zigortu zituzten, haietatik 118 emakumeak.

Memoria historikoa errespetatzea ezinbestekoa da askatasunez bizi izateko, zauriak ixteko eta etorkizuna sendotzeko", esan zuen Biainek. Alkateak herritar guztiak gonbidatu zituen domekako ekitaldira: "Irekia da. Oñatiar guztiendako. Hunkigarria izango da, duda barik".

40 oñatiar elkarrizketatu
Omenaldiaren aurkezpen ekitaldian, Gogoratu Guran taldeko kide Nekane Arrazola eta Juan Ramon Garai ere egon ziren. "Gerra zibilak Oñatin izandako eragina liburu baten jasotzeko asmoa genuen, baina jasotako testigantza guztiekin ikus-entzunezkoa egiteko materiala zegoela ikusi genuen. Orain, dokumentala erakutsiko dugu. Liburua azaroaren 30ean aurkeztuko dugu", esan du Arrazolak. 40 oñatiar elkarrizketatu dituzte, artxibo eta hemeroteka asko aztertu ondoren.

Ordu eta erdiko dokumentala
Omenaldia aprobetxatuko dute Kepa Aranburuk zuzendutako *Gerrako Garrak Oñatin* delako ikus-entzunezkoa aurkezteko. "Ordu eta erdiko iraupena du eta teknikoki lan normala izan dela esango nuke. Pertsonalki, baina, oso aberasgarria izan da. Gerra zibila gertutik bizi izan ez dugunondako, gaia oso arrotza gertatzen zaigu", esan zuen.
Ikus-entzunezkoan, 1938an langile batailoietan preso zeuden Demetrio Iriarte oñatiarraren musika eta Evaristo Urtasun pasaiarraren hitzak erabili dituzte. "Egoitz Aizpuru, Lander Diaz de Gereñu eta Iñigo Ugarte txistulariek eta Ganbara Abesbatzak egokitu dute eta eman diete bizitza doinu eta hitz horiei", esan dute Gogoratu Guran taldekoek.
Liburua azaro bukaeran aurkeztuko dute.

Kañeria 13ren punk-rocka Oñatiko txosnetan

M.B. | OÑATI
San Migel jaietako txosnetako egitaraua aste bukaeran estreinatuko dute. Rock kontzertua egingo dute bihar, 22:00etan hasita. Lau taldek egingo dute zuzenekoak: Kañeria 13 arrasatearrek, Barakaldoko Los Carniceros del Norte, Inoren Ero Ni andoaindarrek eta Meido taldeak.
Rocka, hardcorea, musika gotikoa, punka. Doinu gogorak izango dira protagonista txosnetako jaiak hasteko.
Kañeria 13 arrasatearrek zale asko eroango dituzte Oñatira. Hardcorea, punka eta rocka euren estiloak direla erakutsiko dute. Musika bortitza egiten dute eta oholtaza gainean ondo moldatzen dira.
Bestalde, Los Carniceros del Norte bizkaitarrek geldialdia egingo dute Oñatin, Madrilgo Gruta 77 aretoan jo ondoren. Musika gotikoa eta punka dira haien oinarriak.
Azkenik, Inoren Ero Ni taldeak rocka eskainiko du eta Eskoziatik datorren Meido taldeak rocka eta zouk estiloak.

Azken adosatua salgai Aramaion

Azalera erabilgarria: 253 m2 (Garajea 90 m2)
Lursaila: 210 m2

Urte amaiera arte BEZa %4 bakarrik!
Aprobetxa ezazu!

PROMOCIONES ARAMAIXO

Informazio gehiago:
630 31 13 18 - Nardeaga kalea 26 - ARAMAIO



Gorka, airsoftean jokatzeko materialarekin.

Gorka Herranz | Airsoft jokalaria

"Aurkariaz fidatzen gara, kirol honetan inoiz tiro bat jasotzen duten jokalariai baztertzen ditugu"

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Gorka Herranzek (Arrasate, 1987) goi mailako informatikako heziketa zikloa egin zuen eta orain, ingeniari informatikora salto egin du. Aisialdian, besteak beste, airsoft izena duen joko batean aritzen da; hark azaldu digu zer den eta nola jokatzeko duten.

Zer da airsofta?

Estrategia joko bat da, eremu mugatu batean bi taldek aurkariaren bandera eskuratzean datza. Aurkaria kanporatzeko, pistolak, metrailetak eta errifleak erabiltzen ditugu. Jokalaria tiro bat jasotzen duenean, kanporatu egiten da.

Nola ezagutu zenuen airsofta?

Orain dela lau urte, airsoft partida batean parte hartzeko gon-

bidapena egin zidan lagun baten bitartez ezagutu nuen.

Paintballaren antzeko jokoa da. Zeintzuk dira airsoftaren eta paintballaren arteko diferentziak?

Paintballen pinturaz betetako pilotekin jarduten da eta airsoftean, berriz, PVCz egindako pilotekin jokatzeko dugu. Bestalde, airsoftean arma errealean erreplikak erabiltzen ditugu. **Paintballen pintura arrastoengatik jakiten da aurkaria jo duzun edo ez. Nola identifikatzen duzue aurkaria jo duzun edo ez?**

Aurkariaz fidatzen gara. Kirol honetan inoiz tiro bat jasotzen duten jokalariai baztertzen ditugu. Jokalari batek tiro bat jasotzen duenean hasierako puntura itzuli behar du, eta han

bi minutu igaro ondoren berriz ere partidara bueltatzen da.

Ez dago epailerik?

Txapelketetan epaileak izaten dira, baina lagun arteko partidetan inork ez du epaile izan nahi eta, normalean, epaile barik jokatzeko dugu.

Nola antolatzen dituzue airsoft partidak.

Elkarte bat dugu, UMA izenekoa, eta webgunearen bitartez antolatzen ditugu partidak. Normalean, Orozkon (Bizkaia) jokatzeko ditugu partidak.

Nongo kideak ditu UMA elkarteak?

Batez ere, Debagoieneko, Durangaldeko eta Gasteizko kideek osatzen dugu elkarteak, baina badira Gipuzkoako beste herri batzuetako kideak ere.

Zenbat pertsona behar dira airsoft partida bat jokatzeko?

Jokatzeko eremuaren arabera parte-hartzaile kopurua aldatu egiten da. Egokiena 20 eta 32 arteko kopurua da. Taldean jokatzeko den jokoa da eta estrategiak garatzeko talde handia behar da.

Zelako eremua behar da airsoftean aritzeko?

Normalean, mendian jokatzeko dugu, baina eraikin zaharretan ere jokatu izan dugu.

Jokatu ondoren, botatako pilota guztiak batzen dituzue?

Ez. Erabiltzen ditugun pilotak biodegradagarriak dira. Pilotak busti eta handik bi egunera desegin egiten dira; beraz, partida jokatu eta bi edo hiru egunera ez dago arrastorik.

Nolako armak erabiltzen dituzue?

Era guztietako armen erreplikak erabiltzen ditugu: pistolak, metrailetak eta errifleak. Pisto-

lek sistema elektrikoarekin edo gasarekin funtzionatzen dute eta piloten inpaktuek minik ez egiteko txalekoak eta betaurrekoak erabiltzen ditugu.

Joko hau edozeinek praktika dezake?

18 urte baino gehiago dituen edozeinek egin dezake.

Noiz asmatu zen airsofta?

60ko hamarkadan, Japonian, etxean armak edukitzea debekatu egin zuten eta pilotak jaurtitzen zituzten erreplikak saltzen hasi ziren. Pertsona batzuk gerra egoerak simulatzeko erabiltzen hasi ziren eta pixkanaka mundu osoan zabaltzen da.

Azken urteotan jokalariai kopuruak gora egin du?

Bai. Normalean, jendeak paintballen jokatu ostean ezagutzen du airsofta. Paintballen ez da estrategia lantzen, eta horrek erakarritasun hasten gara joko honetan.

PERTSONALA

Bizi izateko leku bat: Donostia.

Gustuko abesti bat: *The Trooper*.

Bisitatzeko leku bat: Irlanda.

Pelikula bat: *Transformers*.

Bisitatu nahi duzun leku bat:

Alemania eta Japonia.

Ikusi duzun azken pelikula: *Amigos*.

Musika talde bat: Ensiferum.

Irakurri duzun azken liburua:

David Anthony Durham-en *Acacia*.

ANDER MONEDERO

ASTEA GOIENAN



JOSETXO ARANTZABAL

Telesforo Monzonen pastorala ikusgai

Bergaran egin zen Telesforo Monzonen gaineko pastorala ikusi ahal izango duzue Goiena telebistan zapatu arratsaldean, 18:22an. Errepikapenak: domekan 15:03an eta astelehenean 15:13an.

'Monzon pastorala' Zapatua, 18:22



BERTSOA.COM

G Puntuak Azkoitian emandakoa

2011ko Gipuzkoako bertsolari txapelketa dagoeneko izan da Azkoitian eta bertan gertatutakoa jasoko dugu. Beraz, bertso-laritza saio eder batekin gozatzeko aukera izango duzue Goiena telebistan.

'Bertso saioa' Domeka, 10:53

GOIENA TELEBISTA						
EGUBAKOITZA, 23	ZAPATUA, 24	DOMEKA, 25	ASTELEHENA, 26	MARTITZENA, 27	EGUAZTENA, 28	EGUENA, 29
12:30 Magazinea	08:00 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	12:25 Magazinea	12:30 Magazinea	12:30 Magazinea	12:30 Magazinea
13:30 Marrazki bizidunak	09:30 Ipupomamua	09:00 Ipupomamua	13:25 Marrazki bizidunak	13:30 Marrazki bizidunak	13:30 Marrazki bizidunak	13:30 Marrazki bizidunak
13:50 Onein	10:00 Leku txiki bat	09:30 Kantari	13:45 Kantari	14:00 Onein	14:15 Onein	13:55 Bermeoko jaiak
14:18 Iruñekohotsak	10:30 Bermeoko jaiak	09:58 Marrazki bizidunak	14:13 Bertso saioa	14:20 Iruñekohotsak	14:45 Berriak	14:29 Berriak
14:46 Berriak	11:04 Kantari	10:28 Bizitegia	14:43 Berriak	14:48 Berriak	15:15 Gipuzkoa kultura	14:59 Onein
15:13 Baratzeko loreak	11:31 Herri kirolak	10:53 Bertso saioa	15:13 Monzon pastorala	15:18 Harmailatik	15:45 Iruñekohotsak	15:27 Iruñekohotsak
15:43 Marrazki bizidunak	12:56 Onein	11:21 Kantari	19:18 Marrazki bizidunak	15:58 Bermeoko jaiak	16:13 Leku txiki bat	15:55 Bizitegia
16:28 Leku txiki bat	13:20 Berriak	11:48 Magazinea	19:45 Magazinea	16:32 Berriak	16:33 Berriak	16:20 Kantari
16:43 Berriak	13:35 Magazinea	12:48 Onein	20:45 Harmailatik	17:02 Baratzeko loreak	17:04 Bizitegia	16:47 Berriak
17:16 Marrazki bizidunak	14:35 Gipuzkoa kultura	13:08 Gipuzkoa kultura	21:30 Magazinea	17:29 Bizitegia	17:31 Baratzeko loreak	17:17 Ur eta lur
17:46 Ipupomamua	15:05 Marrazki bizidunak	13:38 Herri kirolak	22:30 Harmailatik	17:59 Gipuzkoa kultura	18:21 Harmailatik	17:44 Bertso saioa
18:16 Leku txiki bat	15:40 Berriak	15:03 Monzon pastorala	23:15 Gipuzkoa kultura	18:29 Berriak	19:06 Berriak	18:12 Berriak
18:26 Berriak	15:55 Kantari	19:08 Marrazki bizidunak		18:59 Leku txiki bat	19:36 Leku txiki bat	18:42 Marrazki bizidunak
19:01 Marrazki bizidunak	16:22 Gipuzkoa kultura	19:53 Kantari		19:14 Marrazki bizidunak	19:46 Magazinea	19:12 Kantari
19:46 Magazinea	16:52 Bizitegia	20:21 Berriak		19:42 Magazinea	20:46 Bertso saioa	19:42 Magazinea
20:46 Gipuzkoa kultura	17:22 Magazinea	20:36 Bertso saioa		20:42 Baratzeko loreak	21:16 Magazinea	20:42 Bertso saioa
21:16 Magazinea	18:22 Monzon pastorala	21:04 Baratzeko loreak		21:32 Magazinea	22:16 Gipuzkoa kultura	21:12 Magazinea
22:16 Gernikako jaiak	22:27 Bertso saioa	21:54 Bizitegia		22:32 Bertso saioa	22:46 Herri kirolak	22:12 Gipuzkoa kultura
23:16 Magazinea	22:55 Bermeoko jaiak	22:24 Gipuzkoa kultura		23:00 Magazinea		22:42 Magazinea
	23:29 Magazinea	22:54 Berriak				
		23:09 Magazinea				

ARRASATE IRRATIA

'Pantaleon lagunekin doa' liburua zozketatuko dugu

Zozketan, besteak beste, *Pantaleon lagunekin* doa haurrentzako liburua izango dugu, Patxi Zubizarretak idatzi eta Jokin Mitxelenak egindako marrazkiekin. Hartu parte 943 25 05 05era deituta edo idatzi *irratia@goiena.com*-era.

Pello Zabalorekin tenpora eta kontratenporen berri

Udazkeneko eguraldi iragarpenen gainean, tenporak eta kontratenporak oinarri hartuta, Pello Zabalorekin izango gara 107.7ko uhinetan zehar hilaren 28an. Hori guztia eta gehiago, 10:30ean hasita, *Uda giroan* saioan.

GUARDIAKO FARMAZIAK				
ARRASATE				
Zapatua, 24	ALBERTO. AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15	
Domeka, 25	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99	
Astelehena, 26	ANA FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26	
Martitzena, 27	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39	
Eguaztena, 28	LOURDES AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74	
Eguena, 29	AURORA RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 18 65	
Egubakoitza, 30	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39	
BERGARA				
Zapatua, 24	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05	
Domeka, 25	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05	
Astelehena, 26	JAVIER ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63	
Martitzena, 27	L.ALVAREZ-M.MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15	
Eguaztena, 28	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74	
Eguena, 29	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87	
Egubakoitza, 30	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05	
OÑATI				
Zapatua, 24	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22	
Domeka, 25	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22	
Astelehena, 26	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58	
Martitzena, 27	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58	
Eguaztena, 28	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28	
Eguena, 29	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58	
Egubakoitza, 30	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58	
ARETXABALETA / ESKORATZA				
Zapatua, 24	JUAN FRILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99	
Domeka, 25	JUAN FRILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99	
Astelehena, 26	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza (Esko.)	943 71 48 28	
Martitzena, 27	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza (Esko.)	943 71 48 28	
Eguaztena, 28	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza (Esko.)	943 71 48 28	
Eguena, 29	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza (Esko.)	943 71 48 28	
Egubakoitza, 30	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza (Esko.)	943 71 48 28	
Farmazien eskuko telefonotarako 2011 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitia TICek kudeatuta (www.altitia.es).				

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Max. 25°
Min. 14°

Max. 27°
Min. 15°

EUSKAL HERRIA

Zapatuan trumoi zaparradaren bat egon litekeen arren, urdinguneak nagusituko dira.

GAZTE INFORMAZIOA

GAZTE IKASTAROKAK

Kaxoi flamenkoa. Arrasateko Udaleko Gazteria Saila. Urriaren 13an hasita, ostegunetan, 6etatik 8ak arte. Prezioa: 20 euro; 12 euro ikasle edo langabeentzat.

Kustomizazioa. Arrasateko Udaleko Gazteria Saila. Urriaren 19an hasita, asteazkenetan, 6etatik 8ak arte. Prezioa: 20 euro; 12 euro ikasle edo langabeentzat.

LANA

Cirque du Soleil. Aktoreen eta pailaoen aukeratze-prozesua Madril en egingo da urrian zehar (gonbidapena behar da): www.cirquedusoleil.com.

BEKAK

Beka orokorrak. Eusko Jaur-laritza. Unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak

batzuk 2011-2012 ikasturtean egiteko bekak (master ofizialak barne). Eskabidea Internet bidez soilik egin daiteke. Epea: irailaren 30a.

Beka orokorrak. Eusko Jaur-laritza. Unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko dirulaguntzak (HH, LH, DBH, batxilergoa, heziketa zikloak, hizkuntza eskolak). Epea: urriaren 15a.

LEHIAKETAK

Narratiba, bertso eta poesiako Iparragirre sariak. Legazpiko Udala. Epea: urriaren 7a.

Bidaia eta mendi kronikak. Berria. Berdin du Euskal Herrian geratu bazara edo urrutira joan zaren oporretan. Bidali 8.000 eta 10.000 karakterreko idazlana, 8-12 argazki. Azken eguna: azaroaren 13a.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



Unai eta Amaia

Unai Aizpuru azpeitiarra eta Amaia Jauregi arrasatearra irailaren 17an ezkondu ziren Olatzeko ermitan. Eta orain, eztei-bidaian, Argentina aldean ibiliko dira. Ondo ibili, bikote! Amaia-ren lagunak partetik.



Bea eta Jose

Bea Rodriguez aretxabaletarra eta Jose Alonso bilbotarra irailaren 24an ezkonduko dira Untzillako San Pedro elizan. Etxe-Haundi jatetxean bazkalduko dute. Lagun, lankide eta familiakoak partetik, besarkada handia, ondo ibili New York eta Mexikon eta izan zoriontsu!



Unai eta Laura

Unai Dueñas eta Laura Fernandez datorren irailaren 24an ezkonduko dira Getxoko Santa Maria elizan, eta eztei-bidaian Australiara doaz. Lagunen eta familiakoak partetik, zorionak, eta izan oso zoriontsu! .

HILDAKOAK

Juan Jauregi Loiti.

Aramaion, irailaren 9an. 76 urte.

Ignacio Aramburu Inchausti.

Bergaran, irailaren 15ean. 90 urte.

Alfredo Larrea Martinez.

Arrasaten, irailaren 16an. 78 urte.

Sabina Iñarra Iribar.

Oñatin, irailaren 17an. 88 urte.

Narciso Sasiain Zabala.

Arrasaten, irailaren 17an. 94 urte.

Rosario Goenetxea Aranzabal.

Bergaran, irailaren 18an. 84 urte.

Pura Taboada Garcia.

Arrasaten, irailaren 18an, 92 urte.

Daniel Osa Alberdi.

Bergaran, irailaren 21ean. 65 urte.



M. Carmen eta Felix

M. Carmen Arriaran eta Felix Barrena oñatiarrak Oñatiko San Migel Goiaingeruaren parrokian ezkondu ziren 1962ko irailaren 22an. "Zorionak eta urte askotarako. Muxu handi bana zuen seme Aitor, Juan Ramon, Iñaki eta Jonen partetik".

ESKER ONA

Ignacio Aramburu Inchausti

Bergaran hil zen 2011ko irailaren 15ean, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko irailaren 23an.

ESKER ONA

Santi Zubia Ojanguren

Oñatin hil zen 2011ko irailaren 13an.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, irailaren 24an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan ospatuko da.

Oñatin, 2011ko irailaren 23an.

URTEURRENA

Juan Mari Azkoitia Arrizabalaga

'Matxain'

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Zenbat oroitzen guztiongan poza eta tristura aldi berean Ikusten ez zaitugula aldamenean.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezturik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Juan Jauregi Loiti

Aramaion hil zen 2011ko irailaren 9an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aramaion, 2011ko irailaren 23an.

ESKER ONA

Valentina Lizarralde Esquibel

Juan Kruz Mujikaren alarguna

Antzuolan hil zen 2011ko irailaren 7an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan, 2011ko irailaren 23an.

OROIGARRIA

Narciso Sasiain Zabala

'Gatxikarro'

Arrasaten hil zen 2011ko irailaren 17an, 94 urte zituela.

Elur melur ez naiz aurten zure beldur badaukat ganbaran nahiko arto eta egur.

Zure iloben partetik. Gero arte, lagun. Arrasaten, 2011ko irailaren 23an.

ARAMAIO Fiachras

Bergarako taldea azken diskoa aurkeztzen dabil han eta hemen, eta gaur Aramaion egingo du geldialdia. *Hiltzera goaz* dauka izena diskoak eta betiko etiketatik ihes egin dute, eurena den soinua lortuta. Orain dela urtebete grabatu zuten diskoa eta aurtengo martxoa ezkeror dihardute aurkeztzen.

Gaur, Sastiñan, 20:00etan.



GOIENA



ORGANIK

ARRASATE 'Maniatic@s'

Pertsona guztiek dituzten manien gainean jardungo du dantza-antzezlanak. Eguneroko bizitzan edonork dituen erokeria txikiak antzeztuko dituzte gorputz mugimenduaren eta eszenaratzearen bitartez.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

MUSIKA**ARAMAIO** Fiachras taldearen kontzertua

Bergarako eta Lazkaoko taldearen folk doinuak zuzenean
Irailaren 23a, barikua, Sastiñan, 20:00etan.

BERGARA Gazteendako DJ jaialdia

DBHko ikasleendako da, Udalak antolatuta.
Irailaren 24a, zapatua, Zabalotegi aretoan, 18:30ean.

BERGARA Napoka Iria eta Mara

Barikuro gaztetxean antolatzen diharduten saio akustikoen barruan. Napoka Iria bikote eibartarra da eta abesti sentibera eta indartsuak jotzen dituzte. Laudioko Igor Artzuaga dago Mara pertsonaiaren atzean; piano-jotzaile trebeak formatu berezi baina oso interesgarria eskaintzen du. Piano klasikoa eta letra pentsatuak lehen momentutik harra-patzen zaituen emanaldi baterako.

Gaur, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE 'Una noche sin Sabina'

Joaquin Sabina kantariaren bertsoak egiten dituen taldearen ikuskizuna
Irailaren 23a, egubakoitza, Al-Andalus elkartearen, 20:45ean.

ARRASATE Maria de la Colina

Andaluziar etxeen arteko topaketetako saio nagusia izango da, kantari ezagunaren eskutik. Domekan, hilak 25, 18:00etan, Al-Andalus elkartearen.

ANTZERKIA**ARETXABALETA** 'Caos y otras esperanzas'

Venezuelako Altosf antzerki taldeak egingo du helduendako antzezlan hori. Sarrera 5 euro da.

Irailaren 23a, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:00etan.

ARETXABALETA 'Kanpanolue' antzezlanak

Eidabe taldeak *Kanpanolue* antzezlanak eskainiko du Herriko Plazan.

Irailaren 23a, egubakoitza, Herriko Plazan, 19:30ean.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxe: 943 25 05 13

IRAILA 23
IRAILA 29

DANTZA**ELGETA** 'Herrixa dantzan'

Hileko azkeneko domeketan. Sarrera doan eta parte-hartzea libre. Berrituta dator *Herrixa dantzan*: lehenengo zatian, taldeko dantza ludikoak, Patxi Monterok gidatuta. Lehenengo saio honetan, udan ikasitako Walo-niako kontradantzak ekarriko ditu, besteak beste. Eta bigarren zatian, berriz, Adolfo Jainaga soinu-jotzaileak bikotean dantzan egiteko piezak joko ditu: balsak, rantxerak, pasodoblea, habanerak, polka, txotisak, mazurka, jota, tangoa...

Irailaren 25a, domeka, Espaloia kafe antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Maniatic@s' dantza ikuskizuna

Organik antzerki taldeak *Maniatic@s* lana eskainiko du Amaian. Pertsona orok dituen manien gainean jardungo dute.

Irailaren 24a, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

ARRASATE Sueños de Andalucía

Arrasateko Al-Andalus elkarte

dantza taldearen saioa topaketan barruan.

Gaur, egubakoitza, 20:45ean.

JAIK**BERGARA** San Migel jaiak

Angiozarren ospatuko dituzte.
Irailaren 29a, eguna, egun osoan.

OSPAKIZUNAK**ARETXABALETA** Erretiratuen Eguna

Mokadutxoa eta dantzaldia eskainiko die Udalak herriko erretiratuei Basotxon.

Irailaren 23a, egubakoitza, Basotxo erretiratuen egoitzan, 18:00etan.

OÑATI Haurren danborrada

Txikien txanda izango da, musika bandak lagunduta. Ondoren, buruhandiak eta erraldoiak egongo dira.

Irailaren 24a, zapatua, 18:00etan.

ARRASATE Andaluziarren arteko topaketak

Euskal Autonomia Erkidegoan

dauden andaluziarren elkartearen arteko topaketak ospatuko dituzte asteburuan. Egitarau zabala prestatu dute domekara arte. Elkartean bertan egun osoan egongo dira jarduerak, dantza, jatekoa eta musika.

Asteburuan zehar, Al-Andalus elkartearen, Musakolan.

HITZALDIAK**BERGARA** 'Euskal Herriaren erronka sozioekonomikoak'

Imanol Esnaolak egingo du berraldia. Udalak antolatu du Gain-degiaren laguntzarekin, Euskal Herriko Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Behategia.

Irailaren 28a, eguaztena, Irizar jauregian, 19:00etan.

IRTEERA**ELGETA** Intxortaren magalean ibilbidea

Espainiako zibila Euskal Herrian oinarri hartuta, ibilbide honetan, Elgetako Intxor-

ta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera egongo da. Ibilbidea Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik abiatuko da; lehendabizi, Interpretazio Gunea bisitatuz, eta, horren ondoren, 5 kilometroko ibilbide tematikoa oinez eginez. Euskaraz eta gazteleraz izango da irteera. Parte hartzeko aurrez izena eman behar da 943 71 89 11 zenbakian. Izen-ematea: 5 euro helduek eta 2 euro 16 urtetik beherakoek.

Irailaren 25a, domeka, Espaloia Kafe antzokian, 10:00etan.

BESTELAKOAK**ELGETA** 1972ko kintoen bazkaria

Antolatzaileek garaiz izena emateko eskatu dute. Eta irailaren 18a da izena emateko azken eguna. Argibide gehiago, hemen: 628 88 73 01.

Irailaren 24a, zapatua, Elgetan, 14:00etan.

ESKORIATZA Erreka Eguna

Plazan elkartu, eta, auzolanean, ikasleak taldetan banatu eta erreka garbitzera jaitsiko dira. Mugikortasun Asteko egitarauaren barruan.

Irailaren 24a, zapatua, plazan, 10:30ean.

BERGARA Truke azokarako jostailuen batzea

Jostailuekin egiten den gehiegizko kontsumoa murrizteko eta jostailuen berrerabilera bultzatzeko truke azoka antolatu dute. Hain zuzen ere, irailaren 30ean eta urriaren 30ean izango da azoka, baina, lehenago, jostailuak batuko dituzte, hilaren 29ra arte.

Irailaren 29a arte, Jardunen (kultura etxea) 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

OÑATI Artzain-txakurren nazioarteko lehiaketa

Hego eta Ipar Euskal Herriko, Biarnoko, Kataluniako, Espainiako eta Frantziako txakurrek hartuko dute parte. Zelai eder baten egiten da lehiaketa. Bestalde, aspaldiko urteotan, antolatzaileek erakutsi dute seriotasunez lotuta izaten dituztela egun horretako saioak.

Domekan, irailak 29, Santa Lutiako zelaian, 10:00etan.



INOREN ERO NI

OÑATI Inoren ero ni

Inoren Ero Ni, Kañeria 13, Los Carniceros del Norte eta Miedo taldeek joko dute zapatuan txosnetan. Rock, post-rock eta punk musika nagusi, hortaz, jarrera eta soinu

sendoa faltako ez dira kontzertuetan. Inoren Ero Ni da guztietan ibilbide sendoena duena eta baita izaera bereziarena duen taldea ere.

Bihar, zapatua, txosnetan, 22:00etan.



GOIENA

ARRASATE Plazako dantza tradizionalak

Portaloi taldeak, AEDk eta Gazte Bulegoak antolatuta dantza tradizionalen ikastaroa antolatu dute, urritik ekainera, astelehenero egitekoa. Izena urriaren 7ra arte eman daiteke AEDren bulegoetan edo Gazte Bulegoan. Urriaren 10ean hasita, 18:30etik 20:00etara.

IKASTAROAK

BERGARA Plazako dantza tradizionalak

2011-2012ko ikastaroak. Irailetik ekainera, astearteetan. Hasiera: irailak 27. Hiru maila, helduentzat. Lehenengo mailako ordutegia: 18.30-20:00. Antolatzailea: Jardun Euskara Elkartea Irailaren 27a, martitzena, Zabalotegiko gaztelekuan, 18:30ean.

ARRASATE Kontserbak egiteko ikastaroa

Bedoña Batu elkarteak antolatu-ta. Izen-ematea zabalik irailaren 19ra arte 688 88 79 02 telefono zenbakian. Irailaren 24a, zapatua, Bedoñako eskola-etxean, 10:00etan.

ARRASATE Eskulanak

Egurra, laminak, margoketa, birziklatzea, Van Dal, eztainua, zilarra, beruna eta kristala. Ekin Emakumeak Elkarteak antolatu-ta (943 79 83 70 edo 651 70 79 36). Irailaren 13tik abenduaren 20ra, martitzenetan, 15:30etik 17:30era.

ARRASATE Orratz-lanak

Puntua, gantxilloa, bainika, gurutze-puntua... Ekin Emakumeak taldeak antolatuta (943 79 83 70 edo 651 70 79 36). Irailaren 15etik abenduaren 15era. Eguenetan, 15:00-17:30.

UDALA

ELGETA Gaztelekua zabalik

Ikasturte berriarekin hasiera. 12 urtetik gorako umeendako jarduera da. Irailaren 23a, egubakoitza, gaztelekuan, 18:00etan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE Kimu berri

Gazteen artean ekintzailetza sustatzeko erakusketa da, zenbait ekimenen berri emanez. Aisialdi eta kirol proposamenak dira nagusiki aurki daitezkeenak. Domekara arte, Kultureteko klaustroan, 17:30etik 20:30era.

ARRASATE '¿Deja la ciencia sitio para Dios?'

Ateismoaren berri eta erlijioaren dogmak zalantzan jartzen dituen erakusketa da. Iniciativa Atea taldeak antolatuta. Azken eguna da gaur. Gaur, egubakoitza, 18:00etatik 21:00etara.

BERGARA Kutxu Otamendi

Artistaren zenbait lanekin erakusketa antolatu dute haren lana ezagutzera emateko helburuarekin. Haren sinbolismo garaiko lanak dira, gehienbat. Artistak –auto istripuan hila– lotura sendoa zuen Bergararekin.

Domekara arte, Zabalotegi aretoan, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, zapatuan bakarrik, 18:00etatik 20:30era.

BERGARA Telesforo Monzon

Telesforo Monzon (1904-1981): ber-gararra, politikaria, kultura-gi-zona izeneko erakusketa. Urriaren 2ra arte, astean zehar 18:00-21:00 eta asteburuetan 12:00-14:00 eta 18:00-21:00, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

BERGARA 'Sentitzea, animaliek bezala'

Bi helburu nagusi ditu: bisitariei gizakien eta animalien arteko harremanen inguruan hausnarraraztea eta naturarekiko kontaktua aldarrikatzea. FAURECO europar proiektuaren barruan dago, eta fauna basatia berreskuratzeko zentroek, eta, zehazki, Donostiako Arrano Etxeak, egiten duten lana aurkezten du. Eguaztenara arte, astean zehar 09:00-12:00 eta 18:00-20:00 eta asteburuan 12:00-14:00.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA I. Argazki Rallya

Irailaren 24an Aretxabaletako I. argazki rallya egingo da. Izen-ematea Arkupen egin beharko da egunean bertan. Han dituzue lehiaketako oinarriak. 370 euro banatuko dira sarietan. Bihar, 10:30etik 20:00etara, herrian zehar.

KIROLA

OÑATI IX. San Migel golf txapelketa

Jaietako golf txapelketa tradizio-nala egingo da, aurten bederatzigarren aldiz. Irailaren 23an eta 24an, zapatua eta domeka, Irelore Golf Eskolan, egunean zehar.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Cars 2
Domeka: 17:00.

Un cuento chino
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

ELGETA

ESPALOIA

Salidos de cuentas
Eguaztena: 21:30.

EIBAR

COLISEO 1

Arriya, la piedra
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

La boda de mi mejor amiga
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

La piel que habito
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Zooloco
Domeka: 17:00.

GASTEIZ

GURIDI

El árbol de la vida
Barikutik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Colombiana
Barikutik eguenera: 17:00, 19:00, 22:30.

Mammoth
Barikutik eguenera: 19:45.

La boda de mi mejor amiga
Barikutik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Los amos de Brooklyn
Barikutik eguenera: 17:00, 19:00, 22:30.

Super 8
Barikutik eguenera: 17:30.

Lo contrario al amor
Barikutik eguenera (martitzenean ezik): 20:00, 22:30.

La deuda
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Con derecho a roce
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Colombiana
Barikutik eguenera: 17:00, 19:00, 22:30.

FLORIDA

No habrá paz para los malvados
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Los pitufos
Barikutik domekara: 18:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Los castigadores
Barikutik domekara: 17:00, 20:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera:20:00, 22:30.

Principiantes
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

La piel que habito
Barikutik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Kerity, la casa de los cuentos
Barikutik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 18:00.

Los pasos dobles
Barikutik domekara: 18:45, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15, 22:30.

La cara oculta
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

El caso Farewell
Barikutik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

BOULEVARD

Phineas y Ferb
Barikutik eguenera: 16:00, 18:00.

La piel que habito
Barikutik eguenera: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35.

La cara oculta
Barikutik eguenera: 16:10, 18:20, 20:30, 22:35.

Los amos de Brooklyn
Barikutik eguenera:16:30, 19:10, 22:00.

Animal United 3D
Barikutik eguenera: 16:30, 19:10, 22:00.

Fright Night 3D
Barikutik eguenera: 19:50.

El origen del planeta de los simios
Barikutik eguenera: 16:05, 18:15.

Super 8
Barikutik eguenera: 20:25, 22:40.

Cómo acabar con tu jefe
Barikutik eguenera: 16:05, 18:05, 20:10, 22:20.

No habrá paz para los malvados
Barikutik eguenera: 16:00, 18:10, 20:25, 22:45.

Con derecho a roce
Barikutik eguenera: 15:45, 18:00, 20:20, 22:35.

Colombiana
Barikutik eguenera: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

La deuda
Barikutik eguenera: 15:45, 18:00, 20:20, 22:30.

Otra película de huevos y un pollo
Barikutik eguenera: 16:05, 18:10, 20:15.

Cowboys & Aliens
Barikutik eguenera: 22:20.

Los pitufos
Barikutik eguenera: 16:00, 18:05.

Lo contario al amor
Barikutik eguenera: 20:15, 22:25.

GORBEIA

No habrá paz para los malvados
Barikutik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30
Zapatu eta domekan, baita: 15:50.

Con derecho a roce
Barikutik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30
Zapatu eta domekan, baita: 15:50.

Colombiana
Barikutik eguenera: 17:50, 20:05, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:35
Zapatu eta domekan, baita: 15:35.

Cómo acabar con tu jefe
Barikutik eguenera: 18:00, 20:00, 22:20.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

La cara oculta
Barikutik eguenera: 18:10, 20:15, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:25.
Zapatu eta domekan, baita: 16:05.

No habrá paz para los malvados
Barikutik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30
Zapatu eta domekan, baita: 15:50.

Los amos de Brooklyn
Barikutik eguenera: 18:45, 21:30.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

La deuda
Barikutik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 00:15.

Lo contrario al amor
Barikua eta domekatik eguenera: 19:45, 22:15, 00:25.
Zapatua: 22:15, 00:25.

Super 8
Barikutik eguenera: 17:30, 19:50, 22:10.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30

La piel que habito
Barikua, zapatua eta domeka: 19:00, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Origen del planeta de los simios
Barikutik eguenera: 20:20, 22:30.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:40.

La boda de mi mejor amiga
Barikutik eguenera: 19:55, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:45.

Cowboys & Aliens
Barikutik eguenera: 17:55, 20:10, 22:25.
Zapatu eta domekan, baita: 15:40.

No habrá paz para los malvados
Barikutik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Bariku eta zapatuan, baita: 00:30
Zapatu eta domekan, baita: 15:50.

Los pitufos
Barikutik eguenera: 17:55.
Zapatu eta domekan, baita: 15:55.

Arriety y el mundo de los diminutos
Barikutik eguenera: 18:10.
Zapatu eta domekan, baita: 16:10.

Arriya, la piedra
Barikutik eguenera: 20:10.

Fright Night
Barikutik eguenera: 22:10.

Fright Night 3D
Bariku eta zapatuan: 00:15.

Destino Final 5 3D
Bariku eta zapatuan, baita: 00:10.

Destino Final 5
Bariku eta zapatuan, baita: 00:40.

Phines y Ferb
Barikuan eta domekatik eguenera: 16:15, 18:00.
Zapatuan: 16:15, 18:00, 19:45.

Zooloco
Zapatu eta domekan: 16:30.

Monte Carlo
Barikutik eguenera: 18:10.

Animals United 3D
Zapatu eta domekan: 15:30.

KRIKITA



NO HABRÁ PAZ PARA LOS MALVADOS ★★★★★

Zuzendaria: Enrique Urbizu.

Herrialdea: Espainia.

Urtea: 2011.

Aktoreak: Jose Coronado, Juanjo Artero, Helena Miquel.

Iraupena: 104 minutu.

Zinema beltz eta indartsua

Donostiako Zinemalditik pasatu ondoren, gaur heltzen da zinemetara Enrique Urbizuren azkeneko lana. *Todo por la pasta*, *La caja 507*, eta orain *No habrá paz para los malvados*-ekin zuzendari bilbotarrak zinema beltza eta *thriller*-ak gogoko dituela erakutsi du, eta baita zinema mota honek erabiltzen dituen kodigo, gai eta pertsonaiekin emaitza nabarmenak lortzeko gai dela ere. Askotan, film beltzen hasieran zerbait berezia gertatzen da: heriotzaren bat edo desagertzeren bat, eta, horren ondorioz, ikerketa hasten da. Eta poliki-poliki itxuraz nahiko argi eta sinpleagoa ematen zuen kasua korapilatuz

doa azpiko beste motibazio, konspirazio eta interesak agertu ahala. Horixe bera gertatzen da *No habrá paz para los malvados*-en. Putetxe baten hilketa bat gertatu eta hiltzailea lekuko bat topatu nahian dabilen bitartean, nazioarteko azpijokoak ezagutzen joango da. Droga, terrorismo islamiarra, talde horiek Estatuko segurtasunerako lanean dauden goi-karguekin dauzkaten loturak, I-11 eta M-11 gogorazten dizkigutenak, Hipercorren itzala... Urbizuk film indartsu eta konplexua osatzen du. Urte askotxo pasa dira zuzendariaren azkeneko lanetik. Denbora izan du bere azkeneko proiektua garatzeko eta hori ondo igartzen da. Michel

Gaztanbiderekin batera idatzitako gidoia benetan landua dago. Istorioak osagai eta azpijoko ugari ditu, baita pertsonaia ustelak, lege onez jokatzten duten ikertzaileak eta nahiko anbiguoak diren beste batzuk ere. Gidoiak oraina nolakoa den azaltzen digu eta iraganari buruz datu batzuk ematen dizkigu, ikusleak horiekin istorioa bete dezan. Urbizuren filmatzeko modua neurritsua, boteretsua eta indartsua da. Indarkeria oso modu egokian azaltzen zaigu: zuzena, baina gozatu gabe; aktoreen lana bikaina eta sinesgarria da eta filmak duen atmosfera benetan beltza da.

ANTONIO ZABALA



goiena

2011-09-23

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Erditu ostean emaitzak bikoiztu

- Oihana Kortazar mendi-lasterkari elgetarrak Espainiako, Europako eta munduko onena izatea lortu du
- Ama izan ostean lasterketetara itzuli da berriro ere eta inoizko denboraldirik onena egin du

ARRITXU BARRUSO | ELGETA

Urtebete eta hiru hilabeteko etenaldiaren ostean indartsu itzuli da Oihana Kortazar lasterketetara. Esan daiteke ia den-dena irabazi duela: Espainiako kopa, Espainiako txapelketa, Europako txapelketa eta munduko kopa -munduko txapelketarik ez, aurre ez delako egin-. Beste era batera esanda, 18 lasterketetatik 16 irabazi ditu. Egin daiteke denboraldi hoberik?

Merezitako saria

Mendi-lasterkari elgetarra Arrasaten izan zen atzo, eguna, Mendi lasterketen Euskal Selektzioak aurre lortutako emaitzen berri emateko Ternuak antolatutako aurkezpen ekitaldian. Bertan kontatu zigun oso pozik dagoela lortutako emaitzekin, baina berak ere ez zituela espero horrenbeste domina: "Asko entrenatu naiz eta nire asmoa zen ahalik eta ondoen egitea, baina ez nuen espero horrelakorik. Urte gogorra izan da eta pozik nago benetan, egindako esfortzuak emaitzak eman dituelako".

Denboraldi ona, baina gogorra

Ama izan ostean, 2011ko urtarri-lean itzuli zen Oihana Kortazar



Oihana Kortazar atzo egindako ekitaldiaren ostean. | ARRITXU BARRUSO

entrenamenduetara eta martxoan hasi zituen lasterketak. Amatasuna, etxea eta entrenamenduak uztartzea gogorra izan dela esan zigun: "Umearekin egon ahal izateko ez-orduetan entrenatu behar izaten nuen askotan; batzuetan goizeko bostetan, gero lanera joan

ahal izateko, eta beste batzuetan eguerdian, bero handiarekin. Lasterketak hasi zirenean, eta batez ere kanpora joan beharra izaten nuenean, faltan sumatzen nuen umea. Horregatik nago horren pozik, esfortzuak merezi izan duelako".

Haurdunaldian ere sasoian

Denboraldian zehar lortutako domina guztiez harro sentitzeaz gain, Kortazar harro sentitzen da frogatu duelako ama izan ostean nork bere alorrean onena izaten jarrai dezakeela: "Badi-rudi ama izan ostean emakumearen bizitza aldatu egiten dela, eta, askotan, gizonezkoa beharrean, emakumea izaten da bere zaletasunei uko egin behar izaten diena. Nire kasuan, laguntza handia izan dut, baina neuk ere esfortzu handia egin behar izan dut ama izan ostean lasterketetara itzultzeko. Emakume asko *abandonatu* egiten dira haurdun geratzen direnean eta hori errekuuperatzea gero oso zaila da. Ni neu osasuntsu mantentzen ahalegindu naiz".

Oraindik ez da amaitu

Lasterketa garrantzitsuenak irabazi dituen arren, denboraldia ez da amaitu. Azaroaren 5ean kilometro bertikalen Europako txapelketan izango da: "Proba nahiko gogorrak dira. Askoz motzagoak dira, baina desnibel handiarekin".

Ea denboraldia borobiltzeko kilometro bertikalean ere amatasunak indarra ematen dion.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Ziabogen ordua

Batasuna ohiaren ziaboga osatzen ari da iragarritako norabidean. Estrategiari buruz, inoizko argien mintzatu ziren Bateragune epailetan Arnaldo Otegi eta Rafa Díez bide soilik politikoen alde eta borroka armatuaren zamatik libratu beharraz. Eta, hitzetik ekintzara, Bilduri ardurak eta erabakiak hartzea tokatu zaionean ikusi ditugu zabiogaren onurak, Kutxa Bank egitasmoan nabarmen. Badi-rudi zabiogaren azken kolpeak izango direla presoen posizionamendua eta erakunde armatuaren agurra, eta horiek burutzean etorriko dela helmugarako txanpa indartsua.

Beste trainerua, estatu espianiarra, ez da zabiogan hasi ere egin. Hainbeste errepikatuta norabide egokiarena, orain inork ez du adorerik esateko biratu beharra dagoela helmugara iristeko. Zaila, beste behin ere hauteskunde kanpainen egonda. Eta zabioga hasten ez duten bitartean lehengoak jarraitzen du, Bate-raguneraren epai ankerra adibide. Epaitegiak bahituta daude bunker politiko eta mediatikoaren eskutan eta lelo zaharrekin diraute, begi bistakoa ikusi gabe.

Kontua da zabioga egin eta helmugara bidean jarri denak duela abantaila estropada irabazteko. Itsaso txarrenarekin ere.

seat.es

PROBA EZAZU

MINIMO
2.500€
PORTU COCHE

SEAT EXEO
18.800€TANSEAT LEON COPA
13.400€TANSEAT IBIZA SPOTIFY
9.600€TANSEAT ALTEA XL COPA
15.200€TAN

PLAN SEAT E BERRIA. ONA ZURETZAT, ONA GUZTIONTZAT.

Batazbesteko kontsumoa 3.4l-tik 8.4 l-tara/ 100 kmko.CO₂ emisioak 89g-tik 197g/kmko bitartera. Prezio gomendatua penintsula eta balearretarako. SEAT Exeo 1.8 TSI 88KW(120ZP) Reference 18.800€tan. SEAT Leon 1.2 TSI 77KW(105ZP) Copa Reference 13.400€tan. SEAT Ibiza 1.2 51KW(70ZP) Reference Spotify 9.600€tan eta SEAT Altea XL 1.2 TSI 77KW(105ZP) Copa Reference 15.200€tan. (BEZ, matrikulazio zerga, garraioa eta promozio deskontua barne) 2011/10/31rarte Volkswagen Finance S.A EFC-k eskeinitako promozioa bezero partikular eta autonomoentzat gutxienez 6.000€ finantziatu eta 8 urte edo 160.000km baino gehiago dituen auto bat utzi behar dute. Eskeintza hau ez da beste finantziazio eskeintza batzuekin bateragarria. SEAT Ibiza, SEAT Leon, SEAT Altea eta SEAT Exeo gama guztian eskeini liteke. Argazkitako ekipamendua, SEAT Ibiza Sport, SEAT Leon Copa Style, SEAT Altea XL Copa Style, SEAT Exeo Reference.

VOLKSWAGEN TALDEA

ASEGINOLAZA URTEAGA KALEA, 37 - BERGARA - TELF. 943 761 250